goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2016-04-29
EGUBAKOITZA
681. ZENBAKIA
16. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

## Aloña Mendiko gimnastak zilarrezko ezteien ospakizunetan | 14

## Almen: 50 urte hezkuntza lantzen eta zerbitzua ematen | 7



**KILOMETROAK 2016**
Gehigarri berezia | 25

Oñatiko kaleak euskal dantza tradizionalez girotuko dira zapatuan | 24



Bilbao Mendi Film Festivaleko pelikularik onenak Arrasaten | 33

## Aloña, korrikalarien zain: 300 bat izango ditu | 22



Korrikalariak Aloñara. | J.A.

## Eskoriatzako Olaeta auzoan konponketak egingo dituzte

Bertako alkateak iragarri du asmoa 'Harira' saioan | 18



Realeko futbolariak Bergara Kirol Elkarteko gazteen erdian, Irizar jauregian.

XABIER URZELAI

## REALEKO ELITEA BERGARAN

Emakumezkoen futbolaz berba egin zuten Nahikari Garcia eta Itsaso Urrutia futbolariek | 23



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Selma Huxley, historia arakatzaile nekaezina
- Polioaren aztarnak lehen pertsonan

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6 | HERRIAK 7
KIROLA 22 | KULTURA 24
ZURE IRAGARKIAK 34
ZORION AGURRAK 35 TELEBISTA-IRRATIA 36
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

# Europako musika eskolen topaketa Debagoienean

Maiatzaren 6an eta 7an eskualdeko sei udalerritan kontzertuak izango dira | 24

8.500 musika ikasle elkartuko dira Donostian maiatzaren 4tik 7ra bitartean, Emusik jaialdian. 120 kontzertu baino gehiago eskainiko dituzte 59 herritan eta Debagoienetik ere pasatuko dira. Hain justu, kontzertuak eskainiko dituzte Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Aramaion, bertako ikasleekin batera. | 24

Jean Louis David
Maiatzaren 5etik aurrera HELBIDE BERRIAN!
(Ibargarai 48)
(Maiatzaren 2an, 3an eta 4an ITXITA)
Ibargarai 48 • BERGARA | Tel.: 943 76 22 48



**SINADURAK**
ANAJE NARBAIZA | 6
IBAN ARANTZABAL | 6
ENERO FERNANDEZ | 8
ANDER BOLIBAR | 13
JOSU ZUBIA | 15
MIKEL ARROIABE | 16
ANDERE ARRIOLABENGOA | 20
ANDER ETXEBERRIA | 40

**902 100 040**
**gipuzkoa.eus**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ORAIN GIPUZKOA

ERRENTA2015

# ZERTAN INBERTITZEN DU ALDUNDIAK ZURE DIRUA?

Ekonomiaz, garapenaz, aberastasuna sortzeaz eta giza ongizateaz haratago, Gipuzkoa hazten jarraitzeko zergak biltzeaz haratago, orain, jartzen duzun euro bakoitza zugan inbertitzen dela ulertzeko momentua da. **Orain Gipuzkoa.**

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO URTEKO AURREKONTUA

# 812M€




**17M€** DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA

**39M€** GOBERNANTZA ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOA

**59M€** MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE ANTOLAKETA

**78M€** BIDE AZPIEGITURAK

**22M€** INGURUMENA ETA OBRA HIDRAULIKOAK

**55M€** KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROLAK

**70M€** EKONOMIA SUSTAPENA, LANDA INGURUNEA ETA LURRALDE OREKA

**120M€** OGASUNA ETA FINANTZAK

**345M€** GIZARTE POLITIKA

**7M€** BATZAR NAGUSIAK

# Hauteskunde orokorrak, ate-joka

Inbestidurarako epea astelehenera artekoa izan arren, adostasun zantzurik ez da ikusten; Debagoieneko alderdi politikoen iritzia eskuratu du Goienak.

**1.** Zer iruditzen zaizu hauteskundeak errepikatu beharra?

**2.** Emaitzak aldatu egingo direla uste duzu?

**3.** Emaitzak aldatzen ez badira, zer aldatu beharko litzateke?



**AGURNE BARRUSO**
EH BILDU

**1.** "Lau hilabeteotan, Madrilgo lau alderdi nagusiek (PP, PSOE, Ciudadanos eta Podemos) jardun dute bakoitza politikoki hobeto zelan kokatzen den ikusten eta horren arabera jokatzen eta ez benetan akordioetara iristen; erantzukizun falta handia izan dute laurek".

**2.** "Herritarrak eta gu geu ere gogaituta gaude hauteskundeak berriz egitearekin; uste dut abstentzioa apur bat igoko dela, eta, seguru aski, alderdien banaketa ez da askorik aldatuko. Egongo dira bariazio txiki batzuk, baina ez nabarmenak".

**3.** "Hauteskunde legea da aldatu beharko litzatekeena, erantzukizun falta hori errepikatu ez dadin. Bakarrik falta zaigu lau hilabete barru egoera berean egotea. Ezin duguna egin da berriro horrelako despropositorik onartu".



**JOSU EZKURDIA**
EAJ

**1.** "Hauteskundeak errepikatu beharra porrota da. Garbi geratu da Espainian alderdi politikoek ez dakitela politikarik egiten, ez dakitela akordioak lortzen, ez Euskadin egiten dugun moduan, eta, zentzu horretan, oso berri txarra da hauteskundeak errepikatu behar izatea".

**2.** "Euskadin emaitzak nahiko antzerakoak izango dira; Espainian badirudi mugimendu apur bat izango dela, baina antzerako samarrak izango dira. Eta, zoritxarrez, horrek dakar zailtasun handiak izango dituztela berriro ere gobernua osatzeko".

**3.** "Aldatu behar dena da Espainiako alderdi politikoen politika egiteko era (…) Gutxieneko batzuk adostu beharko dituzte gobernua osatu ahal izateko; eta espero dugu osatuko den gobernua Euskadira begira ere egotea".



**IGOR URIZAR**
AHAL DUGU

**1.** "Guk ahalegin guztiak egin ditugu akordioa lortzeko, baina ez da posible izan; abenduaren 20an hiritarrek aldaketaren alde bozkatu zuten eta uste dugu baldintza horiek ez direla eman Ciudadanosen eta PSOEren artean egon den politika neoliberalen jarraipenarekin"

**2.** "Uste dugu koherenteak izan garela gure programarekin, hiritarrekiko gure konpromisoarekin. Gure intentzio eta itxaropena da emaitzak are hobeak izatea".

**3.** "Itxarongo dugu hiritarrek ea zer bozkatzen duten eta ea zer mezu bidaltzen duten; eta, horren arabera, berriro ere ahaleginduko gara guztiokin berba egiten, eta, batez ere, Alderdi Sozialistak benetan aldaketa ordezkatzea gura badu, euren borondate politikoan egongo da gakoa".



**PACO GARCIA**
PSE-EE

**1.** "Gure ustez, ez da aukerarik onena bigarren bueltara joan beharra. Dena den, uste dut itxaron egin behar dela; oraindik partidua ez da amaitu, epaileak ez du amaiera dela esan, eta itxaropena gorde egin behar da azkenera arte, maiatzaren 2ra arte".

**2.** "Airean dago zer gertatuko den. Niri gustatuko litzaidake, azkenean, ezkerreko alderdiak ados jartzea eta gobernu aurrerakoia osatzea, eta PPren gobernua behin betiko deserriratzea denok dakigun moduan, ustelkerian murgilduta dagoen gobernua".

**3.** "Batzuetan dena aldatuko da; besteetan, badakigu ez dela aldatuko ezer. Rajoyk pasatu ditu hilabeteok eserita. Hori zen estrategia. Podemosi dagokionez, argi geratu da Iglesias jaunak eskuratu gura izan duen bakarra boterea dela".



**JOKIN MERINO**
EZKER ANITZA-IU

**1.** Bi gauza daude agerian: 78ko Konstituzioaz geroztik sortutako erregimenaren funtzionamendua –txandakako bipartidismoaren gehiengo kualifikatuekin errodilloa pasatu eta interes berak zerbitzatu– eta aniztasun politikoaren ezintasuna akordioetarako. Hori porrot politikoa kontsidera genezake".

**2.** "Ikusten duguna da bi ikuspegi daudela: batetik, ikus daiteke frustrazio egoera hauteskundeak egoera berean errepikatuz gero; baina guk horri gura diogu kontrajarri beste ikuspegi bat: panorama politiko berria sortzen dela eta momentu historiko paregabean gaudela ezkerreko indarren benetako konfluentzia egiteko".

**3.** "Gure ustez, aldatu beharko litzatekeena da alderdiek erakutsitako jarrera eta borondate politiko falta".



# ESTREINATZEKO PISUAK ETA DUPLEXAK BERGARAN

Aukeratu zure *AlquilaFácil* etxebizitza hilean 850 €-tik hasita eta ezagutu **gehiago ematen dizun alokairua.**

**Orain, 3 hilabete DOAN zure etxebizitza hornitzeko**

**Maiatzaren 31ra arte soilik**










## Zubiaurre kalea, 3

- 58 m² eta 145 m² arteko pisuak eta duplexak
- 2 edo 3 logelarekin, 1 edo 2 bainugelarekin eta, batzuk, terrazarekin
- Duplexek trastelekua ere badute
- Akabera onak eta kanpoaldeko arotzeria aluminioz egina kristal bikoitzarekin
- Barnealdeko arotzeria egurrez egina eta tronadura-zoruekin (sukaldean eta bainugeletan izan ezik, zeramikazkoak baitira)
- Gas natural bidezko berogailuak eta aire girotua dituzte
- Etxebizitza-zonalde batean kokatuak eta erdialdearekin ongi komunikatuak. Arrasaterako irteeratik hurbil
- Trastelekua erosteko aukera (kontsultatu eskuragarritasuna eta prezioa)
- Salmentarako ere eskuragarri

Servihabitat

**Servihabitat.com · 902 15 01 02 · zure CaixaBank bulegoa**

Prezio baliodunak 2016ko apirilaren 22ean, data honetatik aurrera aldatu ahalko direlarik. Kontsultatu informazio eguneratua eta eskuragarritasuna 902 15 01 02 telefonoan edo www.servihabitat.com webgunean. *AlquilaFácil* baldintzak baliodunak dira www.servihabitat.com webgunean kanpainaren ikonoa agertzen duten etxebizitzentzat. Zergak, bitartekaritza-gastuak, kostuak eta zerbitzuen alta ez daude argitaratutako alokairuaren barne eta errentariaren kargura izango dira. Eskaintzaren gainerako baldintzei buruzko informazio gehiago www.servihabitat.com webgunean edo 902 15 01 02 telefonoan. Eskaintza balioduna 2016ko abenduren 31ra arte. *ABALIK GABE: ez da berme gehigarririk eskatuko, baldin eta errentariak jabeak eskatutako kaudimen-baldintza guztiak betetzen baditu. 3 HILABETE DOAN: www.servihabitat.com webgunean kanpainaren ikonoa agertzen duten etxebizitzen alokairurako merkaturatze-baldintzak. Hilabete bateko gabealdia alokairuaren ordainketan, *AlquilaFácil* kanpainian barne hartutako bi hilabeteez gain (guztira, hiru hilabete), 2016-3-30 (barne) eta 2016-5-31 (barne) artean egindako erreserba baliodunentzat, betiere alokairu-kontratua 2016-6-17a (barne) baino lehen formalizatzen bada. Gabealdia aplikagarria izango da soilik errentariak alokairu-kontratua betetzen badu 12 hilabeteko epean zehar. Zergak, bitartekaritza-gastuak, horniduren kostua eta alta errentariaren kontura izango dira. Deskontu hau ezingo zaio bestelako eskaintza edo promozioei gehitu.




LABeko kideek egindako agerraldia, atzo, Seber Altuben. | MAITE TXINTXURRETA

# Prekarietatearen aurkako deialdia Maiatzaren 1ari begira

LABek Eibarko manifestazioan egingo ditu aldarrikapenak, eta ELAk Bilbon eta Iruñean

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Langileen Nazioarteko Eguna aldarrikapenerako egun izango da, beste behin, domekan. *Euskal Herria prekarietatearen aurka!* leloarekin, Eibarko manifestaziorako (12:00) dei egin du LABek. ELA, ostera, Bilbon (11:45) eta Iruñean (11:30) elkartuko da *Gehiago balio dugu* leloarekin.

**Negoziazio kolektiboa**

Aurtengo Maiatzaren Lehenak aurpegi konkretuak dituela jakinarazi du ELAk: "Diskriminazio gero eta handiagoa pairatzen duten emakumeena; etorkizuna izateko aukera ukatzen zaien gazteena; gerratik eta miseriatik ihesi datozen milioika langileena… Edota gure herriaren aurpegia, zeinari ukatu egiten dioten oinarrizko eskubide bat: negoziazio kolektiboa". Hala, diote horiek guztiak aldatu arte Maiatzaren 1a aldarrikatzen jarraituko dutela.

**Martitzenean hitzaldiak**

LABeko kideek, ostera, "prekarietateak gaixotu eta hil egiten du", esan zuten atzo, Lan Osasunaren Nazioarteko Egunean, Arrasaten egindako agerraldian. 2015ean 55 heriotza-istripu izan zirela gogorarazi zuten, eta 2016an, dagoeneko 16 direla hildako langileak. Egoera hori irauli gura dute, eta eskatu aberastasunaren eta lanaren banaketa: "1.200 euroko gutxieneko soldata eta 35 orduko lan-astea; emakumeengana neurri horiek iristeko politika zehatzak; lan osasuna ziurtatzeko neurriak; eta euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzea".

Hori horrela, hainbat ekintza egingo dituzte datozen egunotan. Bihar, apirilak 30, murala margotuko dute Arrasaten; eta domekan, Eibarko manifestaziora joango dira auto karabanan Garibai etorbidetik irtenda 10:00etan. Debagoiendar guztiak gonbidatu dituzte hara, eta, batez ere, "egoera prekarioan" daudenak.

Eguaztenean, maiatzaren 4an, ostera, hitzaldia egingo dute bi herritan: *Independentzia vs prekarietatea*. Arrasaten, Irati elkartean izango da, 18:30ean, Jone Etxebarria gidari dela; eta Bergaran, Irizar jauregian egingo dute, 19:00etan, Joseba Permachekin.

# Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien 28. edizioa aurkeztu dute

JOSU BILBAO | ARRASATE

Euskarazko kazetaritzan, edozein euskarritan (prentsa idatzian, irratian, telebistan, Interneten), 2015eko maiatzetik 2016ko maiatzera bitarte egin diren lanen artean bikaintasunagatik eredugarri direnak nabarmentzea eta saritzea du helburu atzo aurkeztu zuten Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien 28. edizioak. Patxi Baztarrika –Hizkuntza Politikarako sailburuordea–, Ainara Rodriguez –Andoaingo Udaleko Euskara zinegotzia– eta Oihane Agirre –Goiena telebistako programazio zuzendaria– izan ziren ekitaldian, eta aurtengoaren ezaugarrien berri eman zuten.



Agirre, Baztarrika eta Rodriguez. | GOIENA

Iaz legez, bi sari izango dira: Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, 9.000 eurokoa; eta Kazetari Berria Saria, 3.000 eurokoa.

# Gaur agurtuko dute Aita Menniren irudia eta ekarpena ezagutzera emateko hilabetea

M.A. | ARRASATE

Benito Menni hil zela 102 urte bete dira aurten, eta, Aita Menniren Ahizpa Ospitalarien eskutik, hainbat ospakizun egin dituzte Gipuzkoako eta Bizkaiko zentroetan. Helburua izan da Aita Menniren irudia eta ekarpena ezagutaraztea, eta horretan jardun dute langileekin, egoiliarrekin eta pazienteekin egin dituzten askotariko ekintzetan; besteak beste, hitzaldiak, film emanaldiak, musika saioak eta eukaristiak izan dituzte. Hain zuzen, eguaztenean, Donostiako elizbarrutiko gotzaina etorri zen.

Ekitaldiak gaur bukatuko dituzte, mokadu berezia eskainita eguneko ospitalean.



## ZABALIK



**ANAJE NARBAIZA**
goiena.eus/komunitatea/

# Urrutikua gertu

Bertsolaritzak erakusten dosku bat-batekotasunak izan daben garrantzixa gure nekazari kultura transmititzeko garaixan. Donostia 2016 eta Mintzola ahozko lantegixak antolatuta, *Europa bat-batean* ekimenak argi lagatzen dau ez dagoela horrenbesteko aldia munduko beste herrialde batzuk egitten dabenarekin.

Danek hitza oiñarri hartuta era askotako bertsuak osatzen dittuzte, doiñu eta musika ezberdiñez jantzitta.

Katalanak glosarixak dira eta musikakin lagunduta bertsoak botatzen dittuzte; normalian, musika errepikatuz bertsua laguntzen dabe. Egixa esan, oso gertukua edo ezaguna egitten jakun eurak entzutia, nahiz aurretik sekula entzun barik egon. Eskertu giñuan itzulpena, baiña barik be musika ezaguna egitten jakun eta katalanez zenbait berba be ez jakuzen arrotzak egitten.

**Hitza oiñarri hartuta era askotako bertsuak osatzen dittuzte**

Ondoren, Sardiniako kantadoriak hartu zeben txandia, haura izan zan sorpresia, euren kulturan horren berezixak diren kultura nuragikuetako, nuragien barrenetik zuzenian etorri balira bezela entzun giñutzen bertsuak eta oillo narrua atara zoskuen bi lagunek osatutako bikotiaren urruma luze eta sakonak, kantu arkaikua benetan, oso urrutitik zetorrena, baiña abestuan bidez hondoraino sartzen zana.

Eta azkenik, Turkiarekin daben arazo politikuak dirala eta, Kurdistanetik ezin eta Alemaniatik zetorren dengbêj kurdua; kasu honetan, bertso jarriak abestu zittuen musikaz lagunduta, oso sentsaziño bitxia izan giñuan; oso hitz arrotzak eta, zer esanik ez, doiñuak, oso urrutikuak, ziharo ezezagunak, baiña kantatzeko era… ez zan ez ezezaguna, tristura nabarixa zan bere kantuetan. Ondoren, saiuan zihar elkarrekin kantatuz herri ezberdiñen arteko kulturak nahasi ziranian izugarrizko solidaritatia sentittu giñuan. Oin arte, bertsuen mundua gertukuak disfrutatzeko baliatu dogu, eta, aurrerantzian, urrutikua gertu sentitzeko baliatu geinke, bertsolaritzari dimentsiño berri bat emonez.

## USTEAK USTE

**IBAN ARANTZABAL** | iarantzabal@goiena.eus

# Etorkizuna sortzeko leku

Debagoieneko ekintza borobil bat: *gerra eguna* Elgetan. Puntu on asko: memorixa ariketa eraginkorra, debagoiendar asko parte hartzen, antolatzailliak ordu asko lanian –bereziki aittatu J. Monge eta J.R. Garai; demasak zarie!–, gorputza hartu daben errekreaziño eta omenaldi eguna, ikusle ehundakak… Eta klima berezi bat: Barne sailburu izandakuak, ETAko militante bat urte asko preso egindakua, lehendakari bat, HBren sortzaileetako bat, EAJko mitikuak, PSEko lehendakari izandakua, alderdi txikixaguetako asko, alkate andre eta jaunak… Mimau biharreko egun bat dirudi, pasautakua irakurri eta etorkizuna sortzeko gune pribilegiaua. Inbersiño on bat.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | goiena.eus/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Isiltasuna gora eta behera

**Goizalde Landabaso**
http://goo.gl/rX3Cw8

Jabetu zara inoiz bertsolariei gaia eman ostean sortzen den isiltasunaz?

Ikus-entzuleentzat unerik latzena dela esango nuke. Ezin hitzik egin, ezin kontzentrazioa hautsi, eta ezin isiltasunari eutsi.

Pentsatu duzu inoiz isiltasun tenkatu horretan zerura edota lurrera begiratzen dutenean hitz galduren baten xerka aritzen direla? Burmuinean galdutako berba hori lurrean aurkituko duten itxaropena ote dute?

Akorduan daukat, behinola, une dramatiko horretan hiruzpalau urte izango zituen neskatila bertsolarien eremura hurbildu eta lurrera begira geratu zela. Neskatila hura jakin-minak jota zegoen. Zer bilatzen ote zuten lurrean? Zergatik egiten zituzten oinarekin zirkuluak? Lurrera begira geratu zen tarte luzean. Han batutakoen artegatasuna ezin astindurik neskatila hura ere urduri paratu zen. Aitak atera zuen xuxurlaka.

Isiltasun mota asko daude. Aipatutakoa bat da. Bada, baina, osterantzeko sailkapenik.

Edozelan ere, badirudi ez gaudela eroso isiltasunean. Miles Davisek asko zekien musikaz, baina askoz gehiago haren gabeziaz. "Isiltasuna zaratarik bortitzena da, agian zaratetatik bortitzena da", zioen.

Bizi dugun sasoian zaila da isiltasuna aurkitzea. Isiltasunean ere bada-eta soinurik; beharbada Miles Davis ere konturatu zen horretaz.

Pentsa zenezake azken sasoikoa dela isiltasun beharra, ezerezaren soinu banda.

Heideggerrek, ordea, geure baitako izakiak hitz egin zezan isiltasuna aldarrikatzen zuen; eta Gilles Deleuzek alferreko hitzez inguratuta geundela uste zuen.

Gero eta urriagoa da isiltasunaren eremua. Bertsolariak oldozten ari diren une hori, antzerkian une batzuetan, kontzertu klasikoetan.

Beti, baina, oso dramatikoak dira isiltasun hauek. Deserosoak, eztularen edo bufadaren batek arrakalduak.

Gauez ere, loa ez datorrenean ohean etzanda neure pentsamenduak entzuten ditut.

Apika dagoeneko akabatu dugu isiltasuna.

# Kanalak

**Imanol Epelde Pagola**
http://goo.gl/gixBiE

*Bob esponja* ikusiko du aurrena, *Pepa txerria*-ren kapituluren bat gero, *Doraemon* buru potolor astuna ere ez da faltako.

Eta ordu erdi pasatzerako sofak irentsiko du telebistako hipnosira. Pertsona izateari uzteraino.

Olentzerok ekarritako ehun eta berrogei jostailuek ez dute erakarriko.

Giza arimak ere abandonatu egingo du.

Gehienetan baliorik kutre, sexista eta bortxazkoenak instalatzeko, Appak mugikorrean nola.

Sortzea da bizitza. Esnatu eta sortzea. Jaio eta sortzea. Hilko ez bagara. Telebista piztuko ez badugu. Batez ere goizetan. Txoriak esnatzen diren bezain kantari jaiki beharko lukete. Guk eta gure umeek.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Oxel Arrieta.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.850 ale
**Difusioa:** 18.507 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# HERRIAK

# Almenek 50 urte: iraganari begiratua etorkizunerako bidean

- Erakusketa jarriko dute lau herritan; Gatzagan atzo ezkero dago
- Ekainaren 4ko bazkarirako txartelak maiatzaren 5etik aurrera salgai

**MIRARI ALTUBE** | ESKORIATZA

Mende erdia pasatu da Eskoriatzako eta Aretxabaletako herritarrek Dorletako Amaren ikastetxea sortu zutenetik. Ikasle, irakasle eta guraso mordoa pasatu da bertatik urteotan, eta Leintz bailarako hezkuntzan zeresan handia izan du. Hala, atzera begiratu eta ospatzeko garaia iritsi da orain, pausoz pauso aurrera jarraitzeko.






Lehenengo ikasleetako batzuk; ikastetxearen eraikitze lanak; kirol elkarteko talde bat; eta gaur egungo ikasleak. | ARIZMENDI IKASTOLA

**Lehen ikasturtean 40 ikasle**. Hezkuntzaren egoerarekin kezkatuta agertu ziren Leintz bailarako hainbat familia 1965ean; izan ere, seme-alaben aukerak lehen mailako irakaskuntzara eta Arrasateko lanbide eskolara mugatzen ziren. Hori horrela, herritarren, enpresen eta erakundeen laguntzari esker eta Eskoriatzako marianistak bidelagun hartuta komentua izandako eraikinean, Ederlan lantegi parean, eskolak ematen hasi ziren. 40 ikasle elkartu ziren 1965-1966 ikasturtean.

Lehen bi urteotako esperientziak herritarrengan sortutako itxaropenari esker ikasle kopurua izugarri hazi zen, eta horrek ekimena sendotu beharra eragin zuen. Hala, 1967an Almen (Asociacion Leniz Mancomunidad de Enseñanza) eratu zuten, eta euskararen, kulturaren eta kirolaren sustapenarekin elkartu hezkuntza. Handik laster egin ziren bazkide 2.000 bat norbanako, 22 enpresa (gehienak Fagor taldekoak) eta udalak, kultura eta kirol elkarteak, parrokiak eta beste hainbat eragile. Barne eraldaketaren bidez, laster eratu zuten Almen ikastola, eta euskal hezkuntzaren bide urratzaileetako bat izan zen. 2000. urtean Arizmendi ikastolako gune izaera hartu zuen eta gaur egun 6 eta 18 urte arteko 702 ikasle ditu.

**Ahalmen pertsonal eta kolektiboa**
50 urteotako ibilbideari gainbegiratua egiteko *Ahalmen* hartu dute lelotzat: "Ahalmen pertsonal zein kolektiboen erakusgarri eta bilgune izan nahi delako: iraganetik gaur egunerako eta gaur egunetik etorkizunerako eraldaketarako ahalmen". Ahalmen horien guztien berri emateko hainbat ekimen egingo dituzte datozen asteotan; erakusketak, esaterako. Ikastetxearen ardatzak erakutsiko dituzte argazki bidez Leintz bailarako lau herrietan: eraikinaren eboluzioa, udalekuak, kirol elkartea, irteerak, ikasle taldeak, irakasleak… Herri bakoitzean, erakusketa zabaltzen den egubakoitzean, aurkezpen txiki bat egingo dute, eta bizipenak eta sentipenak partekatzeko tartea eskaini elkartutakoei, mokadutxo bat hartzen duten bitartean. Era berean, argazkiak eta bideoak jasotzen dabiltza; horiek erakusketetan jarriko dituzte eta jasotakoekin DVDa egingo dute oroigarri gisa.

Almeneko protagonista batzuekin ikus-entzunezko saila ere egin gura dute: "Oroitzapenez oroitzapen osatuko da mende erdiko historia eta gaur eguna eta etorkizuna ere aztertuko da". Youtube bidez eta sare sozialetan zabalduko dituzte.

Kanta eta bideoklipa egin dituzte kantu ezagun baten oinarriarekin, eta kamiseta teknikoak eta motxilak ere gertatu dituzte oroigarri gisa.

**Ekainaren 4an festa**
Ospakizun handia ekainaren 4an egingo dute. Orduko bazkarirako txartelak maiatzaren 5etik 13ra egongo dira salgai, Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Arrasaten. Kontuak lotzen dabiltza oraindik eta laster emango dute horren berri.

Sare sozialetan –Facebook, Instagram, Twitter eta Youtube– harrera beroa izan duela urteurrenak jakinarazi dute antolatzaileek. Argazkiak eta bideoak jarri dituzte horietan, baita webgunean ere (*www.arizmendi.eus/eu/almen50urte*).



**PEDRO MENDIETA**
LEHENDAKARI OHIA

"Jose Mari Sarasua buru zela hasi nintzen ni lehen urteetan eta Errektore Kontseiluko lehendakari izendatu ninduten. Gu sartu ginenean euskalduntze prozesua bultzatu genuen; izan ere, orduan eskola nazionalak erdaldunen ghetto ziren. Irakasle askok, baina, ez zekiten euskaraz, marianisten ikastetxetik zetozelako, eta lan handia egin behar izan zen. Bailarako kooperatiba taldeak sustatu zuen ikastetxea, eta, hain zuzen, kooperatiben antolamendua jarri eta parte-hartze demokratikoa bultzatu zen".



**JOSEBE MURUAMENDIARAZ**
IRAKASLEA

"29. ikasturtea da niretako Almenen, eta funtsean ez da aldatu, beti berrikuntzaren bidean gabiltza, gure ikasleen hezkuntza eta ongizatearen bila. Istorio mordoa ditut, noski; goiz batean ikastolara etorri eta bi ikaslek, etxetik alde egiteko asmoarekin, Gasteizerako autobusa hartu zutela jakin genuen. Autoa hartu, joan eta Gasteizko autobus geltokian aurkitu nituen. Almen nire bigarren etxea da. Ikasle, guraso eta lankide asko ezagutu eta maitatu ditut. Nire ibilbide pertsonala zein profesionala garatzeko aukera ugari eman dizkit".



**LOREDI BEITIA**
GURASOA ETA IKASLE OHIA

"Irakasle, ikasle eta gurasoen artean dagoen hurbileko harremanak lasaitasuna ematen dit. Gurasook gehiago inplikatu beharko ginateke; nik uste dut ez dugula ezagutzen ikastolan dugun garrantzia. 50. urteurrena dela-eta buruari bueltaka kontu asko ekarri ditut gogora: ijitoak Almen azpira etortzen zireneko urduritasuna; irakasle batek zigor bezala pistari bueltaka jartzen gintuenekoa; klaseak bukatutakoan izaten genituen bertsolaritza eskolak; lagunekin kontu kontari pistari emandako bueltak…".



**AINHOA SANCHEZ**
IKASLEA

"Almenen pasatu ditudan urteak bizikletan ibiltzen ikasten duzun prozesuarekin alderatuko nituzke. Hasiera, LHko urteak, oreka lortzeko gurasoek gurpiltxo txikiak jartzen dituztenekoa; ondoren, DBHko lau urteak, gurpiltxo txikiak kendu eta bi gurpilekin soilik ibiltzen hasten zarenekoa. Azkenik, batxilergoan, bizikleta gainean lasai ibiltzen zara, baina gauza berriak probatzeko asmoz esku bat askatzen hasi eta bertan oreka lortzeko ahaleginak bueltatzen dira, horrek dakarren urduritasunarekin. Amaitutakoan, denok lortuko dugu oreka totala".

## EKITALDIAK

**ERAKUSKETA**

50 urteotako ibilbidearen urratsak jaso dituzte.

- **Leintz Gatzaga**: apirilaren 28tik 30era, kultur etxean
- **Arrasate**: maiatzaren 5etik 7ra, Kulturaten
- **Aretxabaleta**: maiatzaren 11tik 14ra, mojen komentuko elizan
- **Eskoriatza**: maiatzaren 25etik 28ra, kultur etxean

**BILDUMA**

Argazkiak eta bideoak jasotzen dabiltza DVDa egiteko.

**IKUS-ENTZUNEZKOA**

Oroitzapenak bilduta ikus-entzunezko saila egingo dute.

**KANTA ETA BIDEOKLIPA**

Maiatzaren erdialdera aurkeztuko dituzte.

**FESTA HANDIA**

Ekainaren 4an egingo dute eta bazkarirako txartelak maiatzaren 5ean jarriko dituzte salgai.

# Laubide plazak Arizmendiarrieta gogoratuko du aurrerantzean

Kooperatibismoaren sortzailearen ekarpena goraipatu zuten inaugurazioan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Laubide Plaza zena Jose Maria Arizmendiarrieta Plaza izango da aurrerantzean. Astelehenean egin zuten, Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteak eta Arrasateko Udalak antolatuta, inaugurazio ekitaldia. Kooperatibismoaren sortzailea jaio zela 100 urte bete izanagatik antolatutako ospakizun ekitaldiak borobildu zituen haren omenezko plazaren inaugurazioak. Iturbide egoitzan egindako ekitaldi instituzionalean, Arizmendiarrietarengandik ikasteko asko dugula adierazi zuen, besteak beste, Jabier Retegik: "Iskanbila guztien gainetik daude herriaren eta gizartearen premia larriak eta etorkizuneko erronkak. Ikasi dezagun Arizmendiarrietarengandik elkarrekin lan egiten oinarrizko arazoei aurre egiteko, gure ikuspegi ezberdinen gainetik". Bestalde, Mondragon Taldeko presidente Javier Sotilek Arizmendiarrietak korporazio kooperatibo "ezberdin bat" eratu zuela goraipatu zuen ekitaldian: "Behin bakarrik kointziditu nuen Arizmendiarrietarekin, baina ausartzen naiz esatera izan zuen enpresari sena izan zela berezi egin zuena. Haren ekarpen handienetakoa izan zen egun Mondragon moduan ezagutzen dugun ekosistema hastea, bultzatzea eta berritzea".


Gortinatxoa ireki osteko talde argazkietako bat, astelehenean. | JOKIN BEREZIARTUA

**Gorroñogoitia eta Ormaetxea**

Maria Ubarretxena alkateak, Arizmendiarrieta ezagutu ez bazuen ere, Arrasaten hari esker dagoela esan zuen: "Kooperatibismoa da gure herriak daukan berezitasun handienetakoa. Guk normaltasunez ikusten dugun hori ez da batere normala. Horregatik jarri behar dugu balioan, harro sentitu behar dugu, eta daukagunaz jabetu. Hori gogoan izateko Arrasateko plaza bati jarriko diogu bere izena; bertatik igarotzean, gogora dezagun gaur egun daukaguna hein handi baten berari esker dela".

Ekitaldiaren ostean, Laubide Plaza zena Jose Maria Arizmendiarrieta Plaza izendatu zuten ofizialki. Ubarretxenak eta Arizmendiarrietaren ikasle izandako Alfonso Gorroñogoitiak eta Jose Maria Ormaetxeak ireki zuten gortinatxoa. Ondoren, Arizmendiarrietaren senitartekoek eta Mondragon Taldeko hainbat ordezkarik aprobetxatu zuten plaka oroigarriaren azpian argazkiak ateratzeko eta, bide batez, momentua betikotzeko.

# Muzibartik San Frantziskoraino irekiko da berrurbanizatzeko zatia

J.B. | ARRASATE

Arbolapeta eta Muzibar arteko kaleen berrantolaketa dela-eta, Udaleko ordezkariek bilera egin zuten astelehenean Zarugalde kaleko bizilagunekin: "Asko eta askotarikoak izan dira jasotako proposamenak. Baina ekarpen guztiak aztertu ostean, ikusi da eraberritu behar den eremuak handiagoa izan beharko lukeela. Beraz, Muzibartik San Frantziskoko biribilgunera doan eremurako aukera ezberdinak aztertuko dira", jakinarazi dute prentsa ohar bidez. Eremu berri hori bi fasetan gauzatuko litzateke, Muzibartik Arbolapetarainokoa lehendabizi eta Arbolapetatik San Frantziskorainokoa ondoren. Udalaren arabera, proiektuaren "egungo egoera zehatza" zein den eta helburuak zeintzuk diren azaltzeaz gain, bileraren egitekoa izan zen prozesuaren baitan datozen urratsak zeintzuk izango diren aurkeztea: "Bizilagunen iritziak eta ekarpenak ere entzun eta jaso ziren, proiektuak eragingo dituen aldaketen inguruan arduratuta daude-eta", gaineratu dute. Izan ere, zirkulazioa Zarugalde kaletik bideratzearen aurka agertu ziren osoko bilkuren aretoan egon ziren bizilagunak.

**"Gutxiago eta zehatzagoak"**

Bigarren fase horretako proiektua jendaurrean jartzeko orduan 21 aukera jarri beharrean "aukera gutxiago eta zehatzagoak" jarriko dituztela jakinarazi du Udalak: "Bileran argi geratu zen aurreko erakusketan aurkeztutako 21 proposamenak gehiegi izan zirela".



Astelehen arratsaldean Herriko Plazan egindako agerraldia. | ENEKO AZURMENDI

# Errefuxiatuekiko "jarrera pasiboa" izatea egotzi dio EH Bilduk Europari

J.B. | ARRASATE

*Vergüenza, beste Europa bat posible da* leloarekin, agerraldia egin zuen EH Bilduk astelehen arratsaldean Herriko Plazan. Siriako gerratik ihesi datozen errefuxiatuekiko Europako Batasuna erakusten ari den "jarrera pasiboa" salatu zuten elkarretaratzean: "Europako Batasuneko instituzioak drama humanitario hau pasibotasunez ari dira hartzen. Itxi dituzten mugak irekitzea eskatzen dugu", esan zuen EH Bilduko Xabi Vallinak. Koalizio ezkertiar eta abertzaleak gaineratu zuen Europak, nazioarteko legeria bihurritu eta giza eskubideen babesa bultzatuko lukeen jarrera humanistari eutsi beharrean, neurri polizial eta militarrak aktibatu dituela azken hilabeteetan.

Errefuxiatuekiko elkartasuna adierazi eta nazioarteko harremanen "bestelako antolaketa bat" posible dela aldarrikatu zuten.

# Aspaldiko egitaraurik zabalena aste bukaeran San Andresko jaiak ospatzeko

J.B. | ARRASATE

Jose Luis Etxebarria *Porru*-k gidatutako boluntario talde batek antolatu ditu San Andresko festak aurten; gaur hasiko dira, domekara arte. Azken urteetatako egitarau zabalena lotu dute; txakurren erakustaldi bat antolatu dute lehen aldiz, eta aspalditik –15 bat urte, gutxienez– galduta zeuden herri kirolak berreskuratu dituzte.

Gaur hasiko dira jaiak, suziri jaurtiketarekin (16:30), eta gero, Txatxilipurdirekin askotariko jolasak izango dira Kurtzetxiki plazan (17:00). Gauean, Gudarien Plazan, Sin + taldeak joko du (22:00). Bihar, zapatua, Incansables txarangarekin poteoa (13:00), bazkaria Gudarien Plazan (14:30) –espero dute, gutxienez, 100 lagun elkartzea–; gaztetxoentzat zezentxoak eta poneyak Hiruki Plazan (16:00); txakurren erakustaldia (18:30) eta punk kontzertua izango dituzte Gudarien Plazan. Libertad Condicional, Kadena Perpetua, Zarzamora, Screammers & Sinners eta Subversion X taldeak igoko dira agertokira (22:00). Domekan, meza nagusia (12:00), gaiteroekin kalejira eta herri kirolak –Aratz Mugerza eta Xabier Zaldua aizkoran eta korrikan, eta Irati Astondoa eta Karmele Gisasola txingekin, ingudearekin eta aizkorarekin– Gudarien Plazan (12:30) eta Corazon de Encina elkarteko erretiratuendako bazkaria (14:30) izango dituzte.

**"Lotura berezia" auzoarekin**

San Andres auzoarekin "lotura berezia" dauka Etxebarriak: "Jaiotzez aretxabaletarra naizen arren, Arrasateko udaltzainburu izateko bertan bizitzea jarri zidan baldintza moduan orduko alkate Jose Antonio Ardanzak. Horregatik etorri nintzen Arrasatera, eta San Andresen erosi nuen etxea. Erdigunean baditut lagunak, baina San Andresekiko lotura berezia daukat. Horrek animatu ninduen festak antolatzera".

NIRE USTEZ



ENEKO FERNANDEZ

## Eraldatzaile

Astelehenean, On Jose Maria Arizmendiarrieta Plazaren inaugurazioan, besteak beste, kooperatibismoaren berezitasuna aitortzeaz eta balioan jartzeaz hitz egin zuten. Bizitza osoa kooperatibismoaren bueltan eman ondoren, barrutik nahiko ondo ezagutzen dudala uste dut eta izugarrizko altxorra dugula ez dut ukatuko. Estrapolatu beharrekoa, esango nuke. Baina politikari bezala, orain kanpotik ere begiratzea tokatzen zait, herritar guztientzat ari gara-eta lanean. Gogoeta hau ere entzun zen atzo: "Mundua ez zaigu eman bakarrik begiratzeko, eraldatzeko ere eman zaigu, eta eraldaketa hori ez da eskuekin egingo, lehenengo ideiekin eta ekintza planekin egingo da".

Primeran! Baina ideia eta plan horiek arrasatear guztientzat izan daitezela eskatzen dut: baita Eskola Publikoarentzat, hiletak elizatik kanpo egin nahi dituztenentzat, infernu ezberdinetatik ihesi ditugun atzerritarrentzat edota langabezian daudenentzat. Integralak eta integratzaileak. Izan ere, azkenaldian klasismo, berekoikeria eta arrazakeria gehiegi nabaritzen dut kalean. Gainera, apaizaren beste esaldi bat berreskuratu nahiko nuke: "Formula sozialak eraginkorrak izango dira formula horiek hartzen dituzten pertsonak formula horien mailan dauden bitartean".

Eta esango nuke herri honek Antzinako Egiptoren gero eta antz handiagoa duela, faraoi, piramide eta guzti.

**"Klasismo, berekoikeria eta arrazakeria gehiegi sumatzen dut"**

## Arizmendikoen ikuskizuna gaur Amaian, ikas bidaiarako

Arizmendi Ikastolako batxilergoko lehen mailako ikasleek *Got Talent* izenarekin bataiatu duten ikuskizuna eskainiko dute gaur, egubakoitza, Amaia antzokian (18:00). Sarrera bost euro ordaindu beharko da; lortutako dirua hurrengo ikasturtean egin nahi duten ikas bidaia finantzatzeko erabiliko dute ikasleek.



Irudian, asteartean egindako Bertso Punk Musikatua. | NEREA GIL

# Bihar amaituko da Rockomikiak, hilabete osoan zabalik egon ondoren

Ekintza ugari antolatu dira erakusketaren baitan

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira antolatutako Rockomikiak erakusketak ateak itxiko ditu bihar, zapatua.

Komikiak, fanzineak, disko azalak eta bestelako piezak erabiliz, 80ko hamarkadan sortutako kultura underground eta herrikoia aldarrikatzea izan du helburu. Aurretik Donostia eta Gasteizen egin den arren, Arrasatekoa berezia izan da, bertako artista eta kolaboratzaileen parte hartze zabala izan duelako. Erakusketarako material ekarpena egiteaz gain, asteartean egindako Bertso Punk Musikatua ekitaldia da horren adibide.

Bertan, bertsoek, musikak eta zuzeneko margoek bat egin zuten Kulturateko klaustroan. Garikoitz Lopez de Muniain eta Marixe Ruiz bertsolariek 80ko hamarkadan girotutako bertsoak izan zituzten ahotan. Jarraian, Igor Salaren akordeoiaren laguntzarekin, Urtzi Belastegi *Pepin* eta Oier Beitia *Magu* kantu ezagunak abesten aritu ziren, eurek moldatutako hitzekin. Hori gutxi ez, eta, bitartean, hainbat artistak zuzeneko margoak egin zituzten arku artean jarritako oihaletan. Sormena, aniztasuna eta giro ona izan ziren protagonista.

### Balorazio positiboa

Kepa Altube ilustratzaile arrasatearra izan da erakusketan bere ekarpentxoa egin duenetako bat. Haren ustez, "hunkigarria" izan da garai klabe hartako irudiak gogora ekartzea. Eta positiboki baloratu ditu ikastetxeetatik egin diren bisita gidatuak, garai horietatik asko ikas daitekeelako.

Garrantzitsutzat jo du Altarribaren *El ala rota* azken lanaren aurkezpena primizian eduki izana ere. "Arrasaten horrelako eskaintza izatea pozgarria da".

## Gaur, Julen Ribasen margo tailerra

Gaur arratsaldean, 19:00etan hasita, Julen Ribas komikigile eta marrazkilari arrasatearrak erakustaldia eskainiko du Kulturaten. Gerturatzen direnek komiki bat sortzeko prozesua nolakoa den ikusi ahal izango dute, zirriborrotik bukaerako lanera arte. "Azken finean, komiki bat egiteko prozesua oso luzea da. Bost edo zortzi biñetako komiki bat egin beharrean, erabaki dut biñeta bakar bat hasieratik bukatu arte nola egiten dudan erakustea", adierazi du Ribasek.

Sormen lan hori arkatza eta papera baliatuta egingo ditu. Izan ere, teknika digitalekin lan egitetik, arkatz eta paperaren teknikara itzuli da Ribas azkenaldian. "Paperean marrazten gehiago gozatzen dut. Digitalean dena egiten da samurragoa, bizkorragoa... Zuzentzeko aukera gehiago eskaintzen dituen teknika da. Paperean ez dago *Control+Z* hori. Kontzentrazio handiagoa eskatzen duen jarduna da. "Komiki-zaleentzako aukera polita da egile baten teknika bertatik bertara ikustea, eta, niretzako, nire lana erakusteko saio bat izango da". Rockomikiak egitasmoaz galdetuta, "dibulgazioa eta sormena" bultzatzeko baliagarri dela esan du.

**Andoni Iñurrategi eta Itsaso Gallastegi** | Txatxilipurdiko begiraleak

# "Gazteen motibazioetatik tiratzen dugu, udalekuen motor izan daitezen"

Aurtengo udaleku itxietarako eta irekietarako izen ematea zabalik dago maiatzaren 13ra arte



Andoni Iñurrategi eta Itsaso Gallastegi begiraleak. | XABI GOROSTIDI

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Andoni Iñurrategi eta Itsaso Gallastegi Txatxilipurdiko langileak dira eta eskarmentu handia daukate udaleku kontuetan. Aurtengo eskaintza-eta lantzeko solaskide aproposak, beraz.

**Zuen ustez, zer behar da Txatxilipurdiko begirale on bat izateko?**

Lehenik eta behin, gazteekin ibiltzea eta hauekin enpatizatzea gustuko duen norbait. Euren belarriak, eskuak eta begiak izateko balio dezakeen norbait. Eta noski, poztasun puntutxo bat eta ekarpenak egiteko gogoa oso lagungarriak dira.

**Gazteen artean euskara sustatzea eta hauen garapen autonomoa bultzatzea izan ohi dira Txatxilipurdiren udalekuetako balio erantsiak. Nola lantzen dituzue bi puntu hauek?**

Euskararena urte osoan zehar egiten dugunaren jarraipena da. Nola lantzen dugun? Ba, udaleku guztian zehar euskara erabiliz testuinguru guztietan; sukaldatzen, jolasten, harrikoa egiten, asanbladetan, gaubeiletan... Gazte batzuentzat, euskara eremu formaletan erabili beharreko hizkuntza da, eta, horrela, gorroto puntu har diezaiokete. Udalekuetan helburua da aisialdia, ondo pasatzea, barre egitea euskaraz posible dela erakustea. Autonomiaren garapenari dagokionez, gazteen motibazio eta nahietatik tiratzen saiatzen gara, udalekuen motorra eurak izan daitezen. Gure antolaketa lanak egiten ditugu, baina gero, udalekuetara datozen pertsonetara moldatzen gara.

**Azaldu aurtengo eskaintzan zer dagoen?**

DBHko 1. eta 2. mailetakoentzako Ozaeta eta Askizuko udalekuak dauzkagu. Bata barrualdean eta bestea kostaldean. Leku bakoitzean bost eguneko egonaldia antolatu dugu, bi talderentzat. Batzuek Ozaetan hasi eta Askizun amaituko dute eta besteek, alderantziz. Talde txikiagotan banatuta, errazagoa da gazteek euren oskola apurtu eta hasieratik eroso eta aske sentitzea.

DBHko 3. eta 4. mailetakoentzat *Kosta ala kosta* udaleku ibiltaria antolatu dugu, Ozaeta inguruan hasi eta Zarautzen amaituko dena. Mendi ibilaldi txikiak egingo ditugu. Urrutira joan gabe, inguruan ditugun paraje eta altxorrak erakusteko asmoarekin.

## Berritasuna San Juan jaietako kartel lehiaketarako

Aurtengo edizioan, Debagoienean edo Aramaion erroldatutakoek bakarrik har dezakete parte. Aurreko edizioetan, Euskal Herrikoak ez ziren parte hartzaileak izan dira irabazle gehienetan. Era honetan, jaiak gertuago bizi dituztenen parte hartzea lehenetsi nahi izan du udalak.

## Al-Andalus kultur etxeko taberna-jatetxea enkantean

Al-Andalus kultur etxeko taberna-jatetxea enkantera atera dute, negozia ustiatzeko interesa dutenentzat.

Izena emateko epea zabalik egongo da maiatzaren 1etik 15era, eta asmoa da ekainaren 1erako jabe berria izatea. Interesatuek, deitu zenbaki honetara (626 26 33 78) eta Josegatik galdetu



# San Andresko jaiak 2016
## ARRASATE

## Egubakoitza, apirilak 29

**16:30 Etxafuegoak**
**17:00 Haur-jolasak,** mahai-futbol txapelketa, aurpegi margotzea, haur eta gaztetxoentzako txokolatea, eta buruhandiak.
**22:00 Sin + taldearen kontzertua,** Gudarien plazan.

## Zapatua, apirilak 30

**10:00 Etxafuegoak**
**13:00 Kuadrillen arteko txikiteoa** Incansables txarangarekin, Avenida tabernako terrazan hasita.
**14:30 Auzo-bazkaria** Gudarien plazan, Incansables txarangarekin (helduek 12 euro eta haurrek 6 euro).
**16:00 Gaztetxoentzako poneyak eta zezentxoak,** Hiruki plazan, Bergarako Zezenak Ganadutegiarekin.
**18:30 Txakur erakustaldia,** Gudarien plazan, Wurssy elkartearen eskutik.
**22:00 Kontzertua** Gudarien plazan**: Libertad Condicional, Screamers & Sinners, Kadena Perpetua, Zarzamora** eta **Subversion X.**

## Domeka, maiatzak 1

**11:00 Etxafuegoak**
**12:00 Meza nagusia.**
**12:30 Kalejira** Arrasateko Gaiteroekin.
**12:30 Herri kirolak** Gudarien plazan:
Aizkora eta korrika: Aratz Mugerza eta Xabier Zaldua.
Txingak, ingudea eta aizkora: Irati Astondoa eta Karmele Gisasola.
**14:30 80 urtetik gorako erretiratuentzat bazkaria,** Corazon de Encina Kultur Elkartean. **Bazkalostean, musika Javi Sound-ekin.**

**BASTIDA** Akademia | **BITTORI** Erretegia | **EQUS** Taberna | **INTERSPORT LORAMENDI**
**ITXASO** Kafetegia | **JOSE ARANZABAL** Sukaldeak eta Etxetresna Elektrikoak
**KUKURUTXO** Gozoki Denda | **MONDRAGON LINGUA** Hizkuntza Eskola
**LIZARRALDE KIROLAK** | **RAOS** Sarraila Denda 24 ordu eta Oinetakoen Konponketa
**TANTAKA** Taberna | **URRETXU** Taberna | **OIHAL** Gortinak




Arrasatearrak Euskadiko Aerobik Txapelketan. | IMANOL SORIANO

# Arrasate Dragoikoak, Espainiako txapelketara

## Asteburuan Valladoliden jokatuko den aerobik txapelketan lehiatuko dira Arrasateko gimnastak

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko neskak Espainiako aerobik txapelketan arituko dira asteburu honetan. Aurtengo txapelketa Valladoliden izango da, eta bertara joango dira ahalik eta lan txukunena egiteko asmoz.

Iazko edizioa Bilbon izan zen, eta handik domina pare bat ekartzea lortu zuten. Aurten, ordea, zailagoa izango da iazkoa errepikatzea. "Iaz jende mordoa etorri zen Arrasatetik animatzera, eta publikoaren energia sentitzea da gimnasta batentzako pizgarririk onena", adierazi du Edurne Elkorok, taldeko entrenatzaileak

Apirilaren 9an Euskadiko aerobik txapelketa jokatu zen Arrasateko Iturripe kiroldegian. Han egindako lan bikainari esker eskuratu zuten lehia nazionalean aritzeko txartela. Elkorok entrenatzen dituen neskek urrezko hiru domina eta zilarrezko bat lortu zituzten, eta maila aparta erakutsi zuten Biribildu gasteiztarren eta Urdaneta bizkaitarren aurka.

**Lorpen handia**

Horrelako txapelketa batean aritze hutsa klub bezala "lorpen handi" bezala definitu du Elkorok. "Ez gara emaitzarik lortzera joango. Gure helburu nagusia neskek kantxan gozatzea eta ondo pasatzea izango da. Bertan, munduko txapelketan parte hartzen duten gimnastak izango dira, eta haiekin batera entrenatzea sari polita da eurentzako". Aerobikean munduko txapelketa da txapelketa gorena, ez baita kirol olinpiartzat jotzen.

Taldeko hamar gimnastak hartuko dute parte. Uxue Azkue bakarka arituko da N2 kategorian eta Araitz Altubek berdina egingo du N3an. Azken maila horretan, Eider Lasanta, Izaskun Garcia eta Nahia Irazola lehiatuko dira hirunaka. Aerodance kategorian ere lehiatuko dira arrasatearrak. Iazko txapelketan domina eskuratu zuten aerobika eta koreografia uztartzen dituen modalitate honetan. Aurtengo edizioan, Maite Oliden, Maialen Gallardo, Araitz Altube, Leire Ugarte eta Maialen Diaz izango dira domina defendatzen saiatuko direnak.

Espainian badaude Euskal Herriak baino gimnasia tradizio handiagoa duten herrialdeak; batez ere, Valentzia eta Katalunia. Txapeldun gehienak bertakoak izan ohi dira, eta oso kirol hedatua da bai nesken eta bai mutilen artean. "Bi komunitate horiek dira betidanik indartsuenak. Hemen, adibidez, neskei lotutako kirol bat bezala barneratuta daukagu. Aldiz, Kataluniara edo Valentziara joanez gero, adin guztietako neska-mutikoak ikus ditzakezu kirol hau praktikatzen. 8 urteetakoetatik 20 dituzteneraino. Iazko munduko binakako txapelduna Valentziako bikote misto bat izan zen, eta hori adibide garbi bat da".

## ZALDIBAR

**4.JARDUNALDIKO EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Aldatz - Sonografos | **4-3** |
| Abokajarro - Monte Taberna | **5-1** |
| Dribling - Elorra JMA | **7-0** |
| Lasagabaster- Rayo Makabro | **8-2** |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| **A MULTZOA** | | | |
| **1** | Aldatz | **14** | **3** |
| **2** | Lasagabaster | **11** | **3** |
| **3** | Sonografos | **9** | **4** |
| **4** | Betrayer | **6** | **3** |
| **5** | Rayo Makabro | **1** | **3** |
| **B MULTZOA** | | | |
| **1** | Drinbling | **13** | **2** |
| **2** | Monte Taberna | **11** | **3** |
| **3** | Abokajarro | **9** | **2** |
| **4** | Olympiakojos FC | **4** | **3** |
| **5** | Elorra JMA | **2** | **4** |

**2. FASEKO 5. JARDUNALDIA**

APIRILAK 30, ZAPATUA

**11:30** Abokajarro - Olympiakojos FC / **Betrayer**

**12:30** Dribling - Monte Taberna / **Olympiakojos**

MAIATZAK 1, DOMEKA

**11:30** Dribling - Abokajarro / **Betrayer**

**12:30** Rayo Makabro - Betrayer / **Aldatz**

**13:30** Aldatz - Betrayer / **Rayo Makabro**

**Atsedenaldia:** Sonografos eta Elorra JMA

### Besaideko beteranoen XV. martxa ekainaren 4an egingo dute

Besaide Mendizale Elkarteak beteranoen XV. martxa antolatu du ekainaren 4rako.

Aurtengo ibilbideak lau ordu eta erdiko iraupena izango du. Herran (581 m), El Cubo (1.150 m) eta San Lorenzo (1.065 m) mendietan zehar arituko dira. Txangoa borobiltzeko, bazkaria egingo dute Añanan, galdutako indarrak berreskuratzeko.

### 'Nordic walking' ikastaroa gaur arratsaldean

*Nordic walking*-a –ipar martxa– hankei ez ezik besoei eta soinaren goiko alde osoari eragiten dion ibiltzeko modua da. Honi buruzko ikastaroa antolatu dute gaur kiroldegian, 17:00etatik 18:30era. Hamabost plaza eskainiko dira kiroldegiko ikastaroetan izena eman dutenentzat. Doakoa izateaz gain, materiala kirol zerbitzuek jarriko dute.

### Banda elastikoen onurak Arrasasoiren hirugarren txandan

Banda elastikoak landuko ditutze Arrasasoi egitasmoaren hirugarren txandan. Formazio saio honen helburuak izango dira sorbaldako arazoak saihestea eta gorputz osoa landuz indarketa ariketa egitea. Hurrengo saioak maiatzaren 2an (16:30-18:30) eta maiatzaren 5ean (09:00-11:00) izango dira.



Iazko kontzertuko une bat. | IMANOL SORIANO

# Arrasate Musikaleko orkestra eta Goikobalu, bat eginda

## Gaur, egubakoitza, arratsaldeko zortzietan hasita, San Frantzisko elizan emango dute kontzertua

X.G.| ARRASATE

Arrasate Musikaleko orkestrak eta Goikobalu abesbatzak indarrak batuko dituzte gaur iluntzean, beste behin. 2010az geroztik urtero eskaini duten ikuskizuna klasiko bihurtzeko bidean dago, ikusleen eta parte hartzaileen artean duen arrakasta ikusita. "Zazpigarren urtea da bat egiten duguna, eta jendea pozik irteten da kontzertu guztietatik. Guretzako, herriko orkestrarekin jotzea erronka polita da", adierazi du Iñaki Maidaganek, Goikobaluko zuzendariak.

Aurten, Musikaldia 2016 programaren barruan, emanaldi dotorea prestatu dute. Aurreko edizioetan bezala, Arrasate Musikalekoek emango diote diote hasiera saioari. Aurten ere ez dira filmetako soinu bandak faltako, eta *The Last of The Mohicans* (Azken Mohikanoa) eta James Bond-en pelikuletako abestiak joko dituzte giroa berotzeko. Behin hauek jota, Johannes Brahms-en *Hirugarren sinfonia* pieza klasikoa joko dute, Goikobalukoak oholtzara igo aurretik.

Ondoren, Gabriel Faure-ren, Joseph Haydn-en eta Wolfgang Amadeus Mozart-en hainbat pieza joko dituzte elkarrekin. Abestien aukeraketaren inguruan galdetuta, zera esan du Maidaganek: "Errepertorioa adostu egiten dugu, ez baita prozesu erraza izaten. Kanta batzuk oso politak izan arren, ez dituzte orkestrako instrumentu guztiak erabiltzen, eta helburua ahalik eta musikari gehien erabiltzea da. Beste kanta batzuek 100 ahots edukitzea eskatzen dute, baina gure koruan 56 partaide gaude, eta batzuetan motz geratu gaitezke. Abestien eta baliabideen arteko oreka bilatzen dugu".

# Reyes Pradosen eta Gemma Zabaletaren solasaldia

X.G | ARRASATE

AED elkarteak solasaldi interesgarria prestatu du Reyes Prados telebista aurkezlearen eta Gemma Zabaleta PSEko buruzagi ohiaren artean.

Datorren maiatzaren 4an izango da, Kulturateko Loramendi aretoan, arratsaldeko zazpietan. Bi protagonistak galdera hauen bueltan arituko dira solasean: *Zer eman dizu euskarak? Zer eman diozu euskarari?* Eta Txomin Madina Goienako kazetaria arituko da gidari lanetan.

Bi solaskideek euskara ikasteko erabakia hartu zuten eta horretan dihardute oraindik ere. Hala, euskaraz ikastera zerk eraman zituen eta euskara ikasteak euren bizitzara zer ekarri duen kontatuko dute, besteak beste.

# Bertan behera geratuko da Seminarioko eraikinaren eta Arrizuriagaren permuta

- Gipuzkoako diputazioak 1.107.000 euro emango ditu kultur ekipamenduetarako
- Osoko bilkuran Candyren lurren birkalifikazioa galaraztearen aldeko mozioa onartu zuten

**MAITE TXINTXURRETA** | BERGARA

Ohiko osoko bilkura izan zen astelehenean udaletxean. Saioa luze joan zen, eta eztabaida dezente izan zen udal gobernuaren eta oposizioaren artean.

Hasieran, jakinarazpenen atalean, alkateak bost edukiontzien sistemaren bidezko hondakinen bilketa sistemaren lehen asteari buruzko balorazioa egin zuen. Aipatu zuen edukiontzi batzuekin arazoak izan diren arren, dagoeneko konponduta daudela, eta hasierako datuak "onak" direla: "Lehenengo bilketan sailkatze desegokia oso txikia izan da, ehuneko bi eta hiru artekoa".

**Seminarioko eraikina**

Bestalde, alkateak aditzera eman zuen Gipuzkoako Diputazioak 1.107.000 euroko diru laguntza bideratuko duela kultur ekipamenduetarako. Osoko bilkuran onartzea faltako litzateke, eta gero, kultur sailarekin adostuko dute diru hori nola erabili.

Hitzarmen horren bitartez, UNED unibertsitatearen eta Udalaren arteko permuta atzera botatzen da. Hala, UNEDek Seminarioko eraikinean jarraituko du eta Arrizuriagako jauregiak Udalarena izaten segiko du.

**Gardentasuna eztabaidagai**

Gai horren harira, oposizioak "gardentasun falta" leporatu zion Udal gobernuari. EH Bildutik esan zuten diputazioak sare sozialen bidez zabaldu zuela berria, eta, ondorioz, Udal gobernuak bere burua horretara behartuta ikusi duenean bakarrik eman duela gai horri buruzko informazioa. Irabazi ere bat etorri zen EH Bilduk azaldutakoarekin.

Alkateak adierazi zuen "gardentasun osoz" lan egin dutela, eta nabarmendu zuen tokiko gobernu batzarrean eman zuela diru laguntzaren berri, baina oposizioko kiderik ez zela izan bertan.

**Candyko langileen mozioa**

Lau mozio eraman zituzten asteleheneko bilkurara. Lehena, Candy lantegiko enpresa batzordeak aurkeztutakoa. Udalbatzak aho batez onartu zuen lantegiaren lurrak birkalifikatzea galaraztea, enpresak etekinik ezin atera ahal izateko. Era berean, deslokalizazioaren aurka azaldu da udala mozio horren onarpenaren bitartez.

**Irabaziren mozioak**

Irabazik hiru mozio aurkeztu zituen; lehenengoa, kontratazio eta erosketa publiko berdearen ingurukoa, aho batez onartu zuten.

TTIP atlantikoko merkataritza itunaren aurkako mozioa ere onartu zuten, Irabaziren eta EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren eta PSEren abstentzioekin.

Memoria historikoa berreskuratzeko mozioa izan zen onartzen azkena. Desadostasun batzuk tarteko, etenalditxo bat egin zuten akordio batera heltzeko. Azkenean, moldatutako proposamena aho batez onartu zuten.

Aiert Lizarralde, Irabaziko zinegotzia, "pozik" azaldu zen bilkuraren amaieran.




AMAIA TXINTXURRETA

## Migel Altuna gogoan

Martitzenean, On Migel Altuna zenaren jaiotzaren mendeurrenaren harira, solasaldia egin zuten bere izena daraman institutuan, Altunak herriaren alde egindako lana eskertzeko. Aretoa lepo bete zen.



Maite, Kristina eta Edurne.

## Zubikua eta Maka dendak San Telmo museoko desfilean izango dira

**M. TXINTXURRETA** | BERGARA

Hurrengo zapatuan, maiatzak 7, Donostiako San Telmo museoan egingo duten moda desfilean izango dira Bergarako Zubikua eta Maka dendak. Bertan, udaberri-uda sasoiko tendentziak ezagutaraziko dituzte. Maiatzaren 8an, berriz, Londres Hotelean 2016ko Pop up udaberri-uda moda azoka egingo dute; moda gustuko dutenentzat aukera paregabea! ***Animatu eta etor zaitezte!***

STM San Telmo Museoa
**Moda desfilea**
Maiatzaren 7an, 12:00etan
HOTEL DE LONDRES Y DE Inglaterra
**Pop up**
Maiatzaren 8an, 10:30 - 20:00

## Jaiak ospatuko dituzte bihar eta etzi Labegaraietan

**M.T.** | BERGARA

Zapatuan 11:00etan emango diete hasiera Labegaraietako jaiei, eta ordubete geroago mozorro desfilea izango da, aurten lehenengoz (lehenago apuntatu behar da).

Arratsaldean, berriz, dantza saioa (17:00) eta haur eta helduendako krosa (18:15) izango dira. Iluntzean, berriz, triki-poteoa eta ogitartekoak, eta gauean DJ Arno.

**Domeka**

Domekan, 10:00etan, txistularien dianak esnatuko du auzoa. 11:00etan eskolen bizikleta lasterketa izango da, eta meza.

Arratsaldean, mus txapelketa (16:00), txirrindularien 53. Labegaraieta saria (16:00) eta haurrentzako jolasak, txokolatea eta buruhandiak.

## Kilometroak 2016ko bideokliparen grabaketa zapatuan

K OMUNITATEA GOIENA |
KILOMETROAK 2016 BERGARA

Zapatuan (hilak 30) Kilometroak 2016ko bideokliparen grabazio saio bat egingo dugu. Aranzadi Ikastolako komunitateko kideei eta interesa duen orori dei egiten diegu parte hartzeko. 15:30etik 18:30ak arte izango da. Seminarioko patioan egin dugu hitzordua. Estra moduan parte hartu nahi dutenei dei egiten diegu *Demasa* arropekin agertzeko.

## Gimnasia erritmikoa izango da domekan Labegaraietan

Domekan, apirilak 30, Gipuzkoako Eskolarteko Gimnasia Erritmikoko txapelketako saioa izango da Labegaraietako kiroldegian, Ariznoa elkarteak antolatuta. 10:00etan hasi eta 20:00ak ingurura arte iraungo du.

DRAGON ORIENTAL
Jatetxea
Janaria ere etxera eramaten dugu
Plater gustukoenak:
• Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
• Curry triangeluak okelaz beteta
• Langostino frijituak almendrekin
*Etor zaitez!*
☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA

## 'Xaxau' birusak hartuko du herria Pentekosteetan

Xaxau konpartsak dena prest dauka jaietarako. Aurten, Bideberriko txosnaguneaz gain, kaleko presentzia areagotu nahi dute. Horren adibide, Bad Sound Systemen kalejira, elektrotxaranga, kantu-jira... Egunean zeharreko eskaintza ere indartu dute, eta, noski, musikarik ez da faltako. *Xaxau.eus* webgunean ikus daiteke egitarau osoa. "Jaietako olatua" aprobetxatu eta Xaxau urte osoan zehar aktibo egongo den taldea izateko erronka hartu dute.

## Bergara Hiriko lehen finalerdia martitzenean

Bergara Hiria: Zubizarreta/Aranguren 22- Mendi/Thomas 2. Urretabizkaia-Murgiondo 22 Errandonea-Arandia 10. Datorren martitzenean final erdiak. Promes mailan, Salaberria-Zezeaga/Garcia-Artola. Nagusiak: Santxo-Gorrotxategi/Ugalde-Martinez. Gaurko partiduak, 19:15ean hasita: alebinetan, Aloña Mendi-Etxeberria/Pereira; kadeteetan, lau t'erdikoa: Ormazabal-Gartzia; gazte mailan Arruti-Otermin; nagusietan, Alberdi-Diez eta Zubizarreta-Iñarra.

## Datorren astean salduko dituzte herri bazkariko txartelak

Maiatzaren 16an, astelehena, urtero legez herri bazkaria izango da San Martin plazan (euriarekin Seminarioko karpan). Maiatzaren 2tik 6ra, 18:00etatik 21:00ak arte Udal Pilotalekuko leihatilan, 16 eurotan salduko dituzte txartelak. Bi kolorekoak izango dira: urdinak nagusiendako eta familia giroan joango diren adingabeendako; eta horiak adingabeendako. Pertsonako sei txartel eros daitezke, gehienez. Menua: entsalada, oilaskoa, saiheskia eta sorbetea. 700 lagunentzat lekua izango da.

## Elikadura burujabetza landuko dute eguazteneko azokan

Astero bezala, Oxirondoko azokan egitarau berezia antolatu dute eguazten arratsalderako, maiatzak 4. Arratsaldeko seietatik aurrera, inguruko baserritarrek ekarritako bertako eta sasoiko produktuak izango dira eskuragarri. Horretaz gain, aste honetan elikadura burujabetzaren inguruko tailer bat eskainiko du Esti Redondo adituak, herritar orori zuzendua. Bestalde, 18:30etatik aurrera pintxo potea izango da Oxirondoko azokan Etxagi tabernaren eskutik.

# Osintxuko Kofradixetan jotzeko lehiaketa musika taldeendako

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Irail hasieran Kofradixak ospatuko dituzte Osintxun, eta jai batzordean dagoeneko hasiak dira data horri begira gauzak antolatzen. Nobedade modura, jaietan kontzertua emateko musika taldeen arteko lehiaketa bat deitu dute, *Osintxun musikara!* izena duena.

Izen ematea zabalik dago, eta taldeak maiatzaren 31ra arte apuntatu daitezke. Jai batzordearen helburua Euskal Herriko musika taldeei aukera bat ematea da. Edonork, talde zein bakarlari, eman dezake izena lehiaketan.

**Bi fasetan**

Lehiaketa bi fasetan banatuko da: lehenengoa epaimahaiaren aurre-hautaketa izango da; eta bigarrena, hautaketa horretatik irtendako sei talderen zuzeneko emanaldia irailaren 2an, egubakoitza, Osintxuko jaietan.

Kofradixetan zuzenekoa eskaintzeko aukeraz gain, irabazleak 500 euroko saria eramango du etxera eta bigarrenak, berriz, 200 eurokoa.



IMANOL SORIANO

## Musirakaren agurra

Osintxuko Musiraka dantza taldeak zapatu gauean eskaini zuen hamaika urteko ibilbidearen ostean *azken dantza*, Bergarako Udal Pilotalekuan, Orkestrako ganbera taldearekin eta Uxue Agirreren poemez lagunduta. Ondo merezitako txaloak jaso zituzten ikusleen partetik.

## 'Apirilean musika'-ko emanaldiak eta organo kontzertua asteburuan

Apirilaren 29an, egubakoitza, arratsaldeko zazpietan, *Martxa kalera!* Zumarragako eta Bergarako musika eskoletako Big Band taldeen eskutik. Zapatuan, 13:00etatik aurrera, *Kaleak tronpa soinuez beterik!* eskolako tronpa ikasleek herriko kaleak alaituko dituzte. Domekan, Santa Marina elizan, Stoltz-Freres organoaren aldeko kontzertua, 19:00etan hasita. Gerardo Rifon, organoa; Josune Ena, biolina; Nekane Gabilondo, zeharkako txirula; Marije Ugalde, sopranoa.

## "Musiraka dantza taldeari"

KOMUNITATEA GOIENA
IOSU ELORZA ETA LEIRE IRUIN

Penaz idazten ditugu lerrook. Zapatukoa *The last dance of Musiraka* izan zen. 11 urte pasa dira osintxun Musiraka sortu zuenetik. Euskal dantzak oinarri, bestelako erritmoekin fusionatuz, makina bat plaza bete dituzte. Izugarrizko ikuskizunarekin agurtu ziren, eta Pilotalekua txiki geratu zen merezitako agurra emateko. Betiko iraungo du guztion bihotzetan azken emanaldi hark. Eskerrak partaide guztiei. Herriko kulturak asko galtzen du zuen agurrarekin.

NIRE USTEZ

ANDER BOLIBAR



## Anitza eta jendetsua

Zer moduz atzoko kontzertua? Ederto, jendetxoa gerturatu zen. Zer moduz asteazkeneko hitzaldia? Ona, kolore orotariko jendea etorri zen.

Aniztasuna eta harrera handia dira herrigintzatik antolatutako ekimenetako helburu desiratuenak, baina zer da aniztasuna? Zergatik jendetsua? Merkatuko arrakasta irizpideen araberako autodiagnostikoan tenkatu garelakoan nago.

Zer ikasi duzu hitzaldian? Botere harremanak deseraikitzen lagundu digu? Alternatibak planteatzen? Nolakoa izan da antolatzeko prozesua? Eraldaketa bilatzen baduzu, jendetza bertaratzea bigarren mailako kontua izan beharko zen.

Zer da ezberdina izatea? Aniztasunaren simulakroan, herrigintzako jende asko zapaltzen dugulakoan nago: Markatuak, kutsatuak, seinalatuak, betikoak... aniztasunerako gaitz pandemikoak kasik, herrigintzan lan lepo egin izan dutenak gutxietsi eta argazki koloretsutik kanporatuak. Bilatutako atomizazioan, adin, genero, jatorri eta hainbat alderdi politikoetako kideen saltsa artifizialetara ohitu gara. Munduko arrozak prestatzeko edo argazki koloretsurako gonbidatu dugun horrekin kontatzen al dugu egunerokoan?

Gure ustezko gabezia edo konplexuetatik komunikatzen dugu, indargune edo helburuetatik baino. Pisu handia kenduko dugu gainetik kopuru eta itxurekin itsutu beharrean, antolatutakoaren ekarpen erantsia balorean jartzen badugu. Bakartasunean anitzak gara, multzoan berdintsuak.

OHARRAK

**AURREMATRIKULAZIOA**

Ipintza BHIn batxilergorako matrikula maiatzaren 2tik 12ra. Hilaren 3an, 18:00etan, bilera informatiboa gurasoentzat.

**SAN JOXEPE**

Errenteriara mendi irteera maiatzaren 11n; han bazkalduko dute. Izena emateko azkenengo eguna: maiatzaren 3a.

ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa

BATXILERGOA, ARANZADI IKASTOLAN

* ZIENTZIETAKO ibilbidea
* GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIETAKO ibilbidea

Aurrematrikula, maiatzaren 2tik 12ra.
Informazio saioa, maiatzaren 3an, asteartea, 18:30ean, Ikastolako Areto Nagusian.

Batxilergoko gainditu en %92
Selektibitateko gainditu en %100



ikastolenelkartea

# Zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte bihar gimnastek

## Santa Ana aretoan izango da ikuskizuna eta Aloña Mendiko 120 gimnasta inguru elkartuko dira



Oñatiko gimnastak Almudena Cidekin, urtarrilaren 16an, kultura etxean. | ALOÑA MENDI

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aloña Mendiko gimnasia erritmikoko sailak 25 urte betetzen ditu aurten, eta bihar, zapatua, egingo du urteurreneko ekintza nagusia. Kiroldegian izan ordez, Santa Ana aretoan izango da, 17:15ean. "Ikuskizuna berezia izatea gura genuen, eta horrek tokia ere ezohikoa izatea eskatzen du", azaldu du Lide Osinaga entrenatzaileak.

Egun 4 eta 14 urte arteko 120 neskatila inguru dabiltza gimnasia erritmikoko taldean. Biharko ospakizunean, baina, gimnasta ohiek ere parte hartuko dute. "Ez da saio teknikoa izango. Dantzaren antza izango du. Musika ere ez da izango entrenamenduetan erabiltzen duguna, dantzarako musika izango da. Gainera, zuzeneko musika izango dugu, gurekin batera egongo dira-eta Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleak", argitu du Osinagak.

### Ekainean

Ordubete inguru iraungo du ekitaldiak eta argazki zaharrekin osatutako ikus-entzunezkoa ere botako dute. Atzo, eguena, egin zuten azken entsegua.

Ikasturtea bukatzear dagoenean egingo dute 25. urteurreneko ekitaldi nagusia. Kurtsoa ekainean egingo duten erakustaldiarekin bukatuko dute.

# Gezurretan ibiltzea leporatzen diote elkarri

O.E. | OÑATI

Onartutako hainbat inbertsio datorren urtera pasatzeari buruzko erabakiaren soka ez da eten oraindik. Alderdi jeltzaleak berretsi du erabaki hori Udal Gobernuaren "planifikaziorik ezagatik" gertatu dela, eta hori esatean EAJk "betiko matrakari" eragiten diola uste du EH Bilduk. Udal Gobernuak adierazi du udalaren zorpetzea %66 txikiagoa zela 2015ean 2010ean baino, eta udalaren aurrezki garbia mantendu egin dela epe berean. Gaineratu du "2011 aurretik hirigintza arloan udalak izaten zituen aparteko diru sarrerak aspaldi" desagertu zirela, eta adibide bat jartzen du: "2008an lur salmenta aprobetxamenduengatik udalak 4.200.000 euro ingresatu zituen eta 2011-2016 epean, 1.448.224 euro".

EAJko udal taldeak "ekarpenik ez egiteaz gain trabak jartzea" duela helburu salatu du EH Bilduk. Dio ez dutela "inoiz sumatu lankidetzarako prest agertu den oposizio ardurasturik". Eta gaineratu du "ironia hutsa" dela beste kudeaketa baterako euren laguntza eskaintzea.

### Erantzuna

Alderdi jeltzaleak alkatea "manipulazioz eta irainaz baliatu" dela adierazi du, "EAJren lana gutxiesteko asmoz". Eta gaineratu: "EAJk ez du gezurrik esan; gobernuak aurkeztutako aurrekontuek ez dituzte jasangarritasun eta oreka-irizpideak betetzen, ezta gastu arauak ere". EAJk dio alkatearen hitzen helburua "herritarren arreta desbideratzea" dela, baina EAJren kudeaketaren "emaitza ona" bistan dagoela eta herritarrek hori ondo bereizten dutela.

# Francisco Esnal organo jotzailearen zigilua aterako du filatelia taldeak

O.E. | OÑATI

San Migel parrokiako organo jotzaile izandako Francisco Esnalen zigilua aterako du Oñatiko Zekak, filatelia eta numismatika elkarteak. Datorren maiatzaren 6an beteko dira 100 urte Esnal apaiza hil zela, eta urteurren hori gogoan hartuta aterako dute zigilua. Turismo bulegoan egongo dira salgai.




Francisco Esnalen seilua. | ZEKA OÑATI

### Errosario bezperan

Francisco Esnal Anso donostiarra zen jaiotzez, baina Oñatin zeregin ugari gauzatu zituen. Ume eta nagusiei kantua erakusten hasi zen eta 1895ean sortu zuen gaur egun parrokiako abesbatza dena.

Konpositore moduan ere lan bat baino gehiago egin zituen; tartean, Arantzazuko Ama Birjinaren salbea. 1902ko irailaren 21ean estreinatu zuten, Oñatin egin ziren euskal jaietan. Orduz geroztik urtero kantatzen hasi ziren Errosario bezperan, Julian Zelaia, organo jotzailea, hil zen arte (1970). Baina 80ko hamarkadan, tradizioa berreskuratuz, berriro hasi zen kantatzen parrokiako abesbatza, Egun ere abesten du, Oñati eta Ganbara abesbatzekin batera.

Seiluaren lau eredu egingo dituzte, 100 seilu guztira, eta Turismo bulegoan salduko dituzte.

# Galdeketa egiteko diru laguntza behar du Oñatiko taldeak

Galdeketa egiteko zilegitasuna lortuta (1.600 sinadura oraingoz Oñatin), berau egiteko baliabideak lortu behar ditu orain Erain Debagoienako Oñatiko taldeak. Boto-paperak, hautetsontziak eta bestelako materiala erosteko dirua batzeko kanpaina abiaraziko dute asteburu honetan. Gaur, egubakoitza, Arantzazun jarriko dute mahaitxoa dirua batzeko, Buetraitzeko igoera aprobetxatuz; domeka goizean, Foruen plazan. Auzoetako jaietan ere egongo dira.





GOIENA

# Oinez, patinetean zein bizikletan joan dira eskolara

Urgain–Errekaldeko ikasleak Tren Ibiltarian eta Txantxiku ikastolakoak, oinez. Motordun ibilgailuak etxean utzi eta eskolara oinez, patinetean edo bizikletan joateko ekimenak antolatu dituzte azken bi aste hauetan. Irakasle eta gurasoen laguntzarekin eta ibilbidean zehar jendea batuz heldu dira batzuk eta besteak euren geletara.

# Umeen iritzia jaso gura du udalak aurrekontuak lantzeko

Datorren urteko aurrekontuak banatzeko umeen iritzia ere jakin gura du udalak. Hala, 3 eta 8 urte arteko umeen iritzia jakiteko, eurei zuzendutako parte-hartze saioak antolatu dituzte. Gaur, egubakoitza, harrera ofiziala egingo diete ordezkari politikoek umeei osoko bilkuren aretoan, 17:30ean, eta ginkana egingo dute gero Foruen plazan. Beste hiru saio ere egongo dira, ekainera bitartean. Helburua da jolasen bidez udalaren funtzionamenduaren berri ematea umeei, eta euren ekarpenak jasotzea.

NIRE USTEZ



JOSU ZUBIA

# Ba... ez dakit

Ameslariek diote: "eta... mundua aldatuko bagenu?". Besteek: "Nola? Zertarako? Ezin da. Alferrik da...". Ameslariek, mundua aldatzeko gogo eta hegan egiteko behar horrekin agertzen direnean, ingurukoen konformismoaren isla diren erantzun horiek jasotzen dituzte, normalean. Batzuek esango dute esperientziaren izenean ematen diren erantzunak direla... nork daki. Esperientzia edo beldurra; bietako bat, baina emaitza berdina da: zalantza.

Hau egingo banu zer lortuko nuke? Hau egingo bagenu zer lortuko genuke? Bazenu? Balute? Bazenute? Bahu? Balu? Ba... ez dakit. Esperientziak dio kontu "moderno" horiek oso zaharrak direla, eta, hain zuzen, funtzionatu ez dutelako gaudela horrela, edo, hobeto esanda, egon behar garela horrela. Nahiz eta gustuko ez izan ehuneko ehunean... konformatu egin behar garela.

Beldurrak ez digu porrotaren aitzakiarik ematen, baina berrira salto egitea eragozten digu. Berria ederra izan daiteke edo porrot egin duen hori baino okerragoa. Baina konformismoa ez ote da porrota bere horretan?

Esperientzia edo beldurra; bietako bat, baina emaitza berdina da: zalantza. Emaitza zoriontasuna izatea nahiko nuke. Ez nuke zalantzarekin geratzerik nahi; mundua ezingo dugu aldatu, baina bakoitzak bere mundua, bai.

## Arku tiroko Euskal ligako bigarren jardunaldia egingo dute domeka goizean Arantzazun

Oñatiko Txantxiku Arkulariak taldeak antolatuta, basoko arku tiro jardunaldia egingo dute domekan, 09:30ean, Zozopasen. Ibilbidea animalia itxurako 20 irudiz osatutakoa izango da eta hiruzpalau laguneko taldeetan banatuko dira etorriko diren 60 arkulari inguru, oñatiarrak tartean. Lau kategoria egongo dira.



Dollygans eta Albok taldeen arteko finala 2014an. | JOKIN BEREZIARTUA

# Bihar dira beteranoen finalak Azkoagainen

### Ligakoan Zalaparta eta Kalañatasaray lehiatuko dira eta kopakoan, Auschwitz eta Sasquatch

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Zapatuan jokatuko dituzte, Azkoagainen, beteranoen denboraldiko azken partiduak. Ligako zein kopako finalak jokatuko dituzte.

Kopako finala Auschwitz eta Sasquatch taldeek jokatuko dute, 15:30ean. Ligako talde irabazlea, berriz, 17:00etan hasiko den partiduan erabakiko da, Zalaparta eta Kalañatasary taldeen artekoan. Lehen partidua, baina, 14:00etan izango da: ligako 3. eta 4. postuak jokatuko dituzte Etxaixat eta Albok taldeek.

**Zalaparta**

Denboraldiko ezustekoa Zalaparta taldea izan da. Talde berria da, denboraldi honetan sortutakoa, eta finalera heldu da. Gainera, liga hasi aurretik San Migel jaietan Larrañako zelaian jokatzen den zazpiko futbol txapelketa irabazi zuen, irailean, eta beteranoen liga erregularrean talde onena izan da.

Bestalde, maiatzaren 11n talde bakoitzeko ordezkari bat batzarrera, 19:00etan, joatea eskatu dute batzordeko kideek, fidantza hartzera.

## Kirol ekintzetako segurtasunaz mintzatuko dira

Kirol proba bat antolatzeak ze erantzukizun eskatzen duen eta segurtasunaren klabeak zeintzuk diren; horien gainean eztabaidatuko dute maiatzaren 11n kultura etxean. Antxintxikaneko eta Fortunako ordezkari bana egongo da, eta gaian aditua den abokatu bat.

## 20:00etan botako dute jaietako etxafuegoa Olabarrieta auzoan

Gaurtik, egubakoitza, domekara bitartean auzoko jaiak ospatuko dituzte Olabarrietan. Kontzertuak, auzo afaria, haurrendako jolasak eta gehiago antolatu dituzte. Gaur eta bihar autobusa egongo da 23:00etatik aurrera.

## 1984an jaiotakoek ospakizuna egingo dute ekainaren 4an

1984an jaio zirenek ospakuzina egingo dute datorren ekainaren 4an. Non egingo duten eta zenbat diru eta non ingresatu behar denaren gaineko informazioa Facebooken jarriko dute. Bestela, bi telefono zenbaki hauetara dei egin daiteke: 690077355 edo 615736497.

Matrikulazio epea zabalik!

HaUrreskoLak

0-2 URTE

Maiatzaren 2tik 11ra | 2015-2016an jaiotakoentzat.

*BERGARAKO Haurreskola*
Boni Laskurain pasealekua 15
Tel.: 943 76 25 96

*ELGETAko Haurreskola*
Torrealdea 3
Tel.: 943 78 82 36

*ESKORIATZAKO Haurreskola - KULUNKA*
Gaztañadui 25
Tel.: 943 71 57 70

*OÑATIKO Haurreskola - TXIKI TXOKO*
Olakua auzoa 19
Tel.: 943 71 64 05

*ARRASATEKO Haurreskola - MUSAKOLA*
Elkano 8
Tel.: 943 79 13 03

*ARRASATEKO Haurreskola - BEDOÑABE*
Alfontso VIII 1
Tel.: 943 79 76 86




Aretxarteko presidente Idoia Elexpuru, bezeroen artean banatzen dabiltzan poltsak esku artean dituela. | MIRARI ALTUBE

# Berrerabiltzeko poltsak banatzen dabil Aretxarte

Berriro erabiltzen dituztenek ezkurtxoak jasoko dituzte tabernetan gastatzeko

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

*Erabili eta berrerabili* kanpaina jarri du abian Aretxabaletako Aretxarte merkatarien elkarteak egunotan. Oihalezko poltsak banatuko dituzte bezeroen artean, gero berriro erabiltzeko konpromisoarekin.

**3.200 poltsa arrosa**

*Erabili eta berrerabili* lelodun kanpaina Aretxarteren aurtengo lehenengoa da. Bi tamainatako oihalezko 3.200 poltsa arrosa banatuko dituzte datozen asteotan bezeroen artean, dendari bakoitzak 60 inguru: "Poltsa handiak dira, ederrak, produktu asko sartzeko; txikiak, ostera, txikiendako oso egokiak, baita merienda eramateko ere", jakinarazi du Idoia Elexpuruk, merkatarien elkarteko presidenteak.

Poltsa oparitu bai, baina berrerabiltzeko konpromisoa eskatu gura diete herritarrei. Eta berrerabiltzen dituztenek saria jasoko dute trukean: ezkurtxoak –Aretxabaletako moneta– oparituko dizkiete: "Euro bateko eta bi euroko balioa duten plastikozko txanponak jasoko dituzte bezeroek, eta horiek hainbat tabernatan erabili ahal izango dituzte".

Aretxarte barruan dauden herriko hamahiru tabernetan ordaindu ahal izango da ezkurtxoekin; hona hemen horiek: Bedarreta, Express, Orly, Gurea, Akorde, Haizea, Urbaltz, Izotz, Dagda, Izartu, Eguzki, Atseden eta Aretz.

**500 euroko bonua**

Ezkurtxoak oparitzeaz gain, 500 euroko bonu baten zozketan sartuko dira poltsak berrerabiltzen dituztenak: "Kanpainak iraungo du maiatz osoa, eta zozketarako txartelak beteko dituzte bitarte horretan bezeroek. Gero, zozketa ekainaren 4an egingo dugu", dio Elexpuruk, eta gaineratu du: "Bonuaren irabazleak egun horretan 10:00ak eta 13:00ak bitartean gastatu beharko ditu 500 euroak Aretxarteko dendetan".

Herriko merkatariek ingurumenaren aldeko aletxoa jarri gura dute kanpainarekin. Horregatik, plastikozko eta paperezko poltsa gutxiago behar izateko egunotan oparitutako poltsak kalean ikusi gura dituzte: "Poltsa mordoa pilatzen zaizkigu etxeetan; hortaz, erabil ditzagun Aretxarteren oihalezkoak, eta, bide batez, Aretxabaletan olatu arrosa zabaldu".

## NIRE USTEZ

**MIKEL ARROIABE**



## %0ko audientzia lortu arte

Hamabost egun izango die, hiru aste igual, ETB1en audientzia emaitzak argitaratu ziena. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikuslien artien %1,9xak ikusten ei dau gure telebista publiko maittia. Bat koma bederatzi! Asteburu horretan bertan ETB1ek zapatu gaberako antolatu zauen programaziñua hauxe izen zan: San Josetako trikiti jaialdia eta honen ostien erromeria Lasturren. Jaso deixela eskua hau ikusten egon zanak.

ETB1en oingo irudixa hauxe da, egixa esan, txapela, trikitixa eta pelota partiduak, itxura ezin euskaldunaua, XX. mende hasierakua esango nauke nik, baña bihotza vascoa dauko, ez daittezela lagunak hasarretu.

Euskal Herriaren euskalduntze berantiarraren teoria asmatu dau, saskibaloi talde españolen partiduak emuten ibilli da urtian ziher, Gaur Egunen samurrau botatzen dittu Jaeneko pasadizuak Baionakuak baño, eta gure gaztiak asimilatzeko *Gu ta gutarrak* sortu dau.

Segi hola, ETB, euskal gizartia Telecincotzen… %0ko audientzia lortu arte.

**"Euskalduntze berantiarraren teoria asmatu dau"**



*Inun* musikari bizkaitarra Arkupen, martitzenean. | M.A.

# Musika eta dantza izango dira Arkupeko protagonista maiatzean

'Inun' musikariak agurtu du apirila eta 'Sorkun' errenteriarra etorriko da datorren hilabetean

**M.A.** | ARETXABALETA

Mikel Inuntziaga *Inun* bakarlari bizkaitarra izan zen martitzenean Arkupen, apirila agurtzeko. Karmele Igartua aretxabaletarraren poemak eskaini zituen, baita Miren Agur Meabe eta Bernardo Atxaga idazleenak ere. Horrez gain, *Berreginez* diskoko lanak eskaini zizkien elkartutakoei, eta horiek gustura jarraitu zituzten haren kantak eta azalpenak.

**'Sorkun' maiatzaren 14an**

Maiatzean ere musika doinuak izango dira nagusi Arkupen. Batetik, Leizarra musika eskolako ikasleak izango dira protagonista, eta hainbat emanaldi egingo dituzte gurasoendako eta lagunendako. Hona hemen egunak: maiatzaren 10ean, haize-instrumentuak; 16an, trikitia eta panderoa; 24an, flauta, panderoa eta akordeoia; eta 30ean eta 31n, gitarra eta konbo taldeak. Horrez gain, maiatzaren 6an eta 7an Donostiako Emusik jaialdi barruan antolatutako kontzertuak izango dira Herriko plazan, eta 22an tronboi-joleen topaketa egingo dute.

Bestetik, hilaren 14an, zapatua, *Sorkun* musikari ezaguna etorriko da. Iaz argitaratutako *Ziklomorphosia* diskoko kantak eskainiko ditu, beste hainbatekin batera.

**Dantza Astea**

Musikak ez ezik, dantzak ere izango du lekua hilaren 28tik 31ra. Dantza Astea izenarekin estilo askotakoak erakutsiko dituzte; besteak beste, euskal dantzak, hip-hopa, sabel dantza eta aretoko dantzak.

# Andramaixetako txosna-guneko ekitaldiak antolatzeko bilera egingo dute maiatzaren 5ean

Gazte Ekimenak herritar guztiak gonbidatu ditu



Herri afaria iazko Andramaixetan txosna-gunean. | M.A.

**M.A.** | ARETXABALETA

Andramaixak gertatzen hasi gura du Gazte Ekimenak, eta txosna -guneko ekitaldiak antolatzeko bilera egingo du datorren eguenean, maiatzaren 5ean, 19:30ean, udaletxe zaharrean. Azken urteetan txosna inguruko giroa "anitza" dela konturatu dira, eta gazteak ez ezik gainerako herritarrak ere gonbidatu gura dituzte bilerara.

"Herritar oro gonbidatu gurako genuke. Aurreko urteotan ere herriko hainbat eragileren eta norbanakoen ekarpenak izan ditugu; besteak beste, gurasoen proposamenak, dantza afrikar saioak…", jakinarazi dute Gazte Ekimenekoek, eta gaineratu: "Jaiak herritik eta herriarendako antolatu gura ditugu. Horregatik, aretxabaletar guztiak zaudete gonbidatuta proposamenak egin eta txosnen gainean berba egiteko".

Ibai Zangitu eta Joseba Urzelai | Gure Esku Dagoko kideak

# "Etorkizuna gazteona da, geuk ere erabaki dezagun zer gura dugun"

- 1.000 sinaduratik gora lortuta izan arren, eguaztena arte jasoko dituzte
- Ekainaren 12a Aretxabaletan jaiegun handia izango dela iragarri dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Datorren eguaztenean emango diote bukaera sinadura bilketa kanpainari, eta pozik daude aretxabaletarrek emandako erantzunarekin. Ekainaren 12ko festa handirako gertatzen hasteko gonbidatu dituzte guztiak.

**Zelan joan da sinadura bilketa?**

Ibai Zangitu: Oso ondo! Aretxabaletan 650 behar genituen, baina gure erronka izan zen 1.000 jasotzea; baita lortu ere. 1.150 inguru goaz (martitzenean) eta azken egunok ere probetxuzkoak izatea espero dugu.

**Sinatzaileen gehiengoaren irudia zein da?**

I.Z.: Helduek eta nagusiek bikain erantzun dute; gazteak dira dinamika honetara gutxien hurreratu direnak. Gazteengana iristeko gaude oraindik, eta Gure Esku Dago-ren bueltan orokorrean gertatzen dabilen kontua da; helduak dabiltza bileretan, ekitaldietan… baina etorkizuna gazteona da! Hortaz, gazteok erabaki beharko dugu, ba, zer gura dugun, ezta? Horregatik, azken ekitaldiak horiei begira antolatu ditugu: kontzertua eta bakarrizketa saioa, hain zuzen.

**Zergatik animatu beharko lirateke herritarrak sinatzera?**

Joseba Urzelai: Gure eskubidearen aldeko aldarrikapen bat egiten gabiltza, Euskal Herriaren egoerari buelta erdia eman gura diogu.

I.Z.: Herri bat garen heinean, gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea dugu. Zer izan gura dugun geuk erabaki gura dugu, ez diezagutela kanpokoek inposatu. Hemen bizi garenok elkarrekin erabaki dezagun hori.

**Sinadurak jasotzeko orduan elkarteen laguntza izan duzue, ezta?**

J.U.: Bai, guztiak eskertu gura ditugu; izan ere, gastronomia elkarteek pintxoak egin dizkigute eguaztenetako pintxo-poterako.

I.Z.: Aretxartek, ostera, zozketarako saria eman digu. Hortaz, eskerrik asko guztiei!

**Zeintzuek bozkatu ahal izango dute ekainaren 12an?**

I.Z.: Aretxabaletan erroldatuta dauden eta 16 urte beteta dituzten guztiek.

J.U.: Kontuan hartu behar dena da nortasun agirian agertzen den bizilekua ez bada Aretxabaleta, nahiz eta hemen egon erroldatuta, udaletxean eskatutako errolda agiria aurkeztu behar dela.

**Sinatu ez dutenek ere bozkatu ahal izango dute, ezta?**

J.U.: Bai, horixe! Sinadurak beharrezkoak dira galdeketa egin ahal izateko, baina garrantzitsuena bozkatzea da.

I.Z.: Jaiegun handi bat izango da ekainaren 12a eta hainbat ekitaldi antolatuko ditugu. Emaitzaren gainetik, parte-hartzea izango da garrantzitsuena. Bideak pausoz pauso egiten dira, eta pauso garrantzitsua emango dugu orduan. Poliki-poliki aurrera goaz!



Zangitu eta Urzelai, Durana kalean. | MIRARI ALTUBE

**EKITALDIAK***

**APIRILAK 29**

**20:00** Bakarrizketa saioa Ion Martinez *Txiki*-rekin

**MAIATZAK 14**

**16:30** Debagoieneko mus txapelketaren herriko kanporaketa

**MAIATZAK 21**

**16:30** Debagoieneko mus txapelketaren finala

* Pagaldaixenean dira guztiak.

## 24 orduko frontenis txapelketa deitu du UDAk

M.A. | ARETXABALETA

Etengabeko 24 orduko mutilen binakako frontenis txapelketa antolatu du UDAk, Orly tabernaren laguntzarekin. Maiatzaren 7an, zapatua, jokatuko dute, Iturrigorri pilotalekuan, eta izena emateko epea zabalik dago hilaren 3a arte, martitzena; honako helbide honetara idatzi behar da: *udafrontenisa@gmail.com*. Bikoteak 10 euro ordaindu beharko ditu lehenengo partidua jokatu aurretik, eta irabazleek jasoko dute saritzat bertako produktuekin osatutako saskia.

UDA ospatzen dabilen 70. urteurrenaren bueltan antolatu dute txapelketa. Maiatzean, ostera, Gipuzkoako areto futboleko maila guztietako finalak jokatuko dituzte; hilaren 14an izango dira.

## Larrain dantza entseguak egiten dabiltza astelehenetan

Euskeriaren Eguna ospatuko du Loramendik maiatzaren 21ean, eta ordurako gertatzen hasteko larrain dantza entseguak antolatu ditu. Astelehenetan egingo dituzte, 18:30etik 20:00etara, udaletxe zaharrean; hona hemen egunak: maiatzak 2, 9 eta 16. Ez dago aurrez izenik eman beharrik.

# Kurtzebarri eskolatik pasatutako idazleak izan dituzte gogoan

Literatura Asteak 25 urte bete ditu eta irakurketa maratoia eginda bukatu dute

M.A. | ARETXABALETA

Literatura Astea egin dute Kurtzebarri eskolan, egunotan, Liburuaren Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta; 25. aldiz egin ere: "Epe luze horretan egindako ekintzak gogora ekarriz, hainbat lan burutu ditugu", jakinarazi dute. Hala, 25 urteotan eskolara gerturatutako idazleen gaineko erakusketa antolatu dute. Aurten Castillo Suarez idazle eta poeta nafarra izan dute kontu-kontari Lehen Hezkuntzako ikasleek: "*Paxkalin* ipuina kontatu zien, baina bukaera irakurri gabe; hortaz, ikasleek bukaera imajinatzeko aukera izan zuten. Ondoren, argitaratuko duen hurrengo liburua aurreratu zien".

Aurten *Liburuen altxorra* hartu dute ardatz hausnarketarako: "Irakurtzen ditugun liburuen gainean jardun dugu: Zer irakurtzen dugu? Zertarako? Zer topa genezake irakurketetan? Zer altxor gordetzen dute liburuek?".

**Irakurketa maratoia**

Literatura Astea bukatzeko, irakurketa maratoia egin dute, beste behin; 25. aldiz hau ere. Liburuz bete zuten areto nagusia atzo, apirilak 28, eta ikasleak, irakasleak, gurasoak eta hainbat herritar gerturatu ziren irakurtzera eta ikasleek egindako lanak ikustera.



Ikasleak Kurtzebarri eskolako aretoan irakurtzen. | M.A.

# Buztinaren onuren berri emango du Ane Remediosek, Kuku Mikuk antolatutako ikastaroan

Maiatzaren 16an eta 17an izango dira saioak eta izena aurrez eman beharra dago

M.A. | ARETXABALETA

Kuku Miku elkarteak buztinaren gaineko trebakuntza saioa egingo du maiatzean. Fisioterapian aditu Ane Remedios aretxabaletarrak gidatuko du ikastaroa, eta izena emateko epea zabalik dago. Hona bideak: *sanefisioterapia@hotmail.com* eta 943 25 24 40. Bazkideendako prezioa da 30 euro eta gainerakoendako, 35 euro.

Maiatzaren 16an, astelehena, egingo dute lehenengo saioa, 10:00etatik 13:00etara, eta martitzenean, maiatzaren 17an, bigarrena, 17:00etatik 20:00etara. Teoria eta praktika bateratuko dituzte saio guztietan. Taldea osatzeko, gutxienez, bost lagun gura dituzte, eta, gehienez, hamar.

**Buztinaren aplikazioak**

Buztinak erabilera asko ditu, Remediosen esanetan. Haurdunaldian, edema eta flebitisarendako da onuragarria; edoskitze garaian, mastitisa eta bularreko erroitzak sendatzeko; eta ume txikiek izaten duten dermatitisari –atopikoa zein fardelarena– ere asko laguntzen dio. Horrez gain, erredurendako, zauriendako, herpesarendako eta beste hainbatendako ditu onurak. "Buztinaren aplikazio terapeutikoak ikasiko ditugu, baita zelan prestatu, eman, kendu eta gorde ere", dio Remediosek eta gaineratu du: "Buztina izanez gero, etxe gehienetan izan ohi dugun botikinarekin ahaztu ahal izango gara!".

# Joserra Zubizarreta: "Hurrengo proiektua Olaeta konpontzea da"

Herriko mugikortasunean hainbat arazo daude; ibilgailuen abiadura, erdiguneko biribilgunea...

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea Goiena telebistako *Harira* saioan izan zen martitzenean, eta bertan hainbat gairen inguruan aritu zen, Eneko Azkaratek egindako galderak erantzuten. Besteak beste, edukiontzi sistema berria, martxan dituzten hurrengo proiektuak eta herriko mugikortasunean dauden arazoak izan zituen hizpide.

Dagoeneko hamar hilabete pasa dira Eskoriatzako alkate kargua hartu zuenetik, eta herritar asko gertutik ezagutzea, askorekin konfiantza lortu duela… adierazi zuen, eta ordutik hona izan duen harrera eta babesa azpimarratu zuen.

Udal Gobernu berriak zorpetze maila ondo zainduko duela adierazi zuen, baina, hala eta guztiz, herritarrek eskatutakoa egiten saiatzen ari direla aipatu zuen. Hiri-berritze planaren bileretan egin ziren 262 eskaeretatik %78 gauzatuta edo amaitzeko dituztela adierazi zuen, eta %18 martxan daudela. Hala, "hurrengo proiektua Olaeta konpontzea izango da".



Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea Goienako platoan, *Harira* saioa grabatu bitartean. | IMANOL BELOKI

### Hurrengo proiektua, Olaetan

Olaeta auzoan lur erorketak izan ziren, eta, horregatik, obra egin beharra dagoela adierazi zuen Joserra Zubizarretak. Bestalde, "herrian eztabaida sortzen ari den beste gai bat Arbiñostetik Aranburuzabalako irteera da. Alde bat espaloi gabe dago, eta Gabonetarako eremu hori ondo jartzea espero dugu. Obra egitean, pentsatuko dugu ispiluak jarri edo ez…". Gainera, kanposantuko berrantolaketa egingo dutela ere adierazi zuen.

### Ibilgailuak bizkorregi

Aste honetan, herriko seinaleak margotzen eta zenbait lekutan lehen baino muga handiagoak jartzen ari dira, eta Ertzaintzarekin batera egiten ari diren ikerketa ere adierazi zuen: "Herri barruan noizbehinka radarra jartzea ere pentsatu izan dugu. Herriko sartu-irteerak, eta Santa Ana aldean oso azkar ibiltzen dira autoak".

Honekin batera, lehentasuna oinezkoek izan behar dutela adierazi zuen, eta Jose Arana kaleak ere oinezkoentzat izaten jarraituko du. Bestalde, Euskal Birarako kendu egin ziren egurrezko posteak eta loreontziak, eta, beraz, definitiboki kenduta, ez dituzte berriz jarriko.

### Biribilgunea eta autobusak

Herri erdigunean, berriz, autobusak biribilgunean buelta emateko arazoak izaten ditu, eta, ondoko hesia jota, askotan hautsi izan da. Horri konponbidea eman nahi dio Udalak. "Aukera bat da hesia atzeratzea; hala espaloi zati bat jaten duzu, eta mugatzen ari zara oinezkoen espazioa. Errotonda txikitzea ere pentsatu dugu, baina garbi dago leku gutxi dagoela bertan. Bizkai aldean ba omen dago herriren bat lurrak buelta emanez autobusak buelta ematen duena. Ez dakit halako sistemaren batera iritsi beharko garen…".

### Sistema berriarekin "pozik"

Edukiontzi sistema berria jarri berri da Eskoriatzan, eta, atez ateko zintzilikario guztiak kenduta, funtzionamendu osoan ari da bosgarren edukiontzia. "Oso gustura gaude sistema berriarekin, eta herritarrak ere hala daudela uste dut". Bestalde, oraindik gauza batzuk berregokitu, berrantolatu beharrean daudela ere esan zuen, eta horretarako eguneroko jarraipena egiten ari dela Udala. Eta egokitzapenak egingo dituztela adierazi du.

### Argiterian arazoa

Plan integrala egin du Eskoriatzako Udalak Mankomunitatearekin batera, bost herrirekin batera Espainiako Estatuari diru laguntza bat eskatuz. Hala, "konkretuki Aranburuzabala kalean, herritik irteten garela, ezkerraldean, bereziki, utzita dugu espaloi zati bat faltan, argi gutxirekin…". Horri ere heldu beharko diotela adierazi du alkateak, baina hori datorren urtera begira.

### EAJren eta Elizateen akordioa

Kanpainan esan zutenaren ondorio bat dela adierazi zuen alkateak. "Guk esan genuen herri oso bat nahi genuela, eta ez alde batetik elizateak eta beste aldetik herri -guneak. Hasieratik bilatzen ibili garen zerbait izan da, eta helburu hori lortzen ari gara".



I.B.

## Xaboi naturalak egiten ikasten

Olioarekin xaboia egiten ikasteko ikastaroa izan da Eskoriatzan, eta tailerra kultura etxeko jubilatuen sukaldean egin zen. Udalatx mintegiko Idurre Arangurenek eta Nerea Altunak eman zuten tailerra, eta, alderdi teorikoa eta praktikoa egin ondoren, ikastarora joan zen bakoitzak xaboi bat eroan ahal izan zuen etxera.

## Atxorrotxeko Eguna domeka honetan ospatuko da

Ohiturari eutsiz, kanpaiak joko dira Gurutze Santuaren ermitan, ekaitzak uxatzeko

**I.B** | ESKORIATZA

Ohiturari eutsiz, maiatzeko lehen domekan Atxorrotxeko Eguna ospatuko da; hau da, etzi. Hala, aurten ere herritarrak mendiko botak jantzi, motxila hartu eta Atxorrotx mendira igoko dira egunaz disfrutatzera. Hainbat bidetatik igo daiteke, baina herritar gehienak Bolibar auzotik igoko dira.

09:00etan, herria esnatzeko txistulariek diana joko dute herriko kaleetan zehar, eta 09:30an batuko dira herritarrak plazan, gorantzako bidea hasteko. 11:00etan, berriz, meza izango da Atxorrotxeko Gurutze Santuaren ermitan, eta goiz osoan zehar kanpai hotsak entzungo dira. Izan ere, ohiturak dioen moduan, bertako kanpaiak joz, ekaitzak uxatzen dira. Mezaz gain, eguerdira arte taberna egongo da Atxorrotxen, eta mokadutxo bat jan eta zerbait edateko aukera izango da bertan.

Arratsaldean, berriz, 18:00etatik aurrera herritarrek etxean egindako tortillak salduko dira herriko plazan. Bertan batutako dirua Eskoriatzako Atxorrotx gobernuz kanpoko erakundearentzat eta Atsegi taldearentzat izango da. Hala, antolatzaileek herritarrak animatu nahi dituzte etxean egindako tortillak plazara eraman ditzaten.

### Eguna amaitzeko, erromeria

Plazan, tortilla-pintxoez gain, taberna ere jarriko da, eta, bertako giroa handitzeko, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak eta pandero-joleak jarriko dute musika. Bada, dantzarako tartea egongo da, nahi duenarentzat, eta hala emango zaio amaiera egunari.

## 'Bizi baratzea' liburua aurkeztuko du Jakoba Errekondok

*Bizi baratzea, garaian garaikoa garaiz* hitzaldia eskainiko du Jakoba Errekondok Zaldibar antzokian datorren martitzenean, maiatzaren 3an, 18:30ean. *Bizi baratzea* liburuaren aurkezpena egingo du bertan, eta, azalpenak eman ondoren, landareei buruzko zalantzak eta galderak argitzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

## Maider Landak zinegotzi kargua utziko du

Eskoriatzako EH Bildu alderdiko Maider Landa zinegotziak kargua utziko du, eta bere ordez Edorta Arana izendatuko dute. Zerrendan hurrengo hautagaia Miriam Isasmendi izango litzateke, baina arrazoi pertsonalengatik kargua ez hartzea erabaki du. Izendapena osoko bilkura bidez egingo da.

**Xabi Lizarralde** | Goiener

# "Jasangarritasun energetikoa bultzatzea du helburu Goienerrek"

## Aldatu fundazioak 'Y tú ¿cómo te sostienes?' bakarrizketa eskainiko du gaur Torresoroan

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Jasangarritasuna eta aurreztea oinarri duen eredu energetikoa bultzatu gura du irabazi asmorik gabeko Goiener Kooperatibak. Energia berriztagarriak oinarri, herritarra kontzientziatu gura dutela dio Xabi Lizarralde kideak.


Xabi Lizarralde. | MAIDER ARREGI

**Jendea kontziente da klima aldaketa errealitatea dela?**
Hedabideei esker nik uste dut baietz. Baina horrek dakartzan ondorioak oraindik ere urruti ikusten dituztela esango nuke.

**Interes ekonomiko asko daude?**
Argindar sarearen oligopolioa, ate birakariak, Garoña, energia berriztagarrien aurkako PPren politika... interes ekonomiko handia dagoela argi eta garbi dago.

**Zergatik erabili behar dira energia berriztagarriak?**
Batetik, zuzenean erregai fosilak sortzen duen kaltea murrizteko; bestetik, eredu energetiko hori bultzatzeko paso aktiboa da Gobernuari itxaron gabe, eta kontsumo arduratsua bultzatzen da, gainera. Pixkanaka, bakoitzak ahal duena eginda, asko lortu daiteke.

**Zein aukera ditu herritarrak bultzada hori eman ahal izateko?**
Goiener aukera ona dela esango nuke; hemengo enpresa da eta gardentasunez funtzionatzen du. Kooperatiba bat da eta bazkideek boto bidez hartzen dituzte enpresako erabakiak. Egun, 4.500 bazkide ditu Euskal Herrian Goiener kooperatibak.

**Bailaran hitzaldi eta jardunaldi sorta antolatu dituzue. Baita Antzuolan ere. Zein da helburua?**
Jasangarritasun energetikoa bultzatzea da asmoa. Energia berriztagarriak erabiliz, hainbat herritan martxan jarri diren proiektuak –Oñatikoa eta Legazpikoa– azaltzen gabiltza jardunaldi eta tailerretan. Antzuolan gaur, egubakoitza, bakarrizketa bat izango da, 22:00etan, torresoroan. Maiatzaren 11n, eguaztena, 19:00etan, Olaranen hitzaldia eta tailerra egingo da Goiener ezagutzera emateko eta etxera iristen diren fakturak ulertzen laguntzen ikasteko, besteak beste.


Zapatu eguerdian, konposta egiteko azalpenak eman zituzten plazan . | I.S.

# Konposta egitera gonbidatu dituzte antzuolarrak

**L.Z / M.A.** | ANTZUOLA

Konpost Eguna ospatu zuten zapatuan. Udalak nahi du herritar gehiago animatzea nor bere materia organikoa kudeatzera. Vermican enpresako ordezkarien laguntzarekin informazio mahaia ipini zuten. "Erraza" dela eta "emaitza ona" lortzen dela nabarmendu zuten.

Antzuolako 140 familiak dihardute etxeko konposta egiten, eta 56 familia dira auzoko konposta egiten dutenak.

**Konpostari irtenbidea**

Konpostagailu txikiak eta handiak izan zituzten ikusgai. Zaku handi batean loreontzietara botatzeko prest dagoen ongarria erakutsi zuten, eta poltsa bana banatu zuten gerturatu ziren herritarren artean.

Orain arte ez bezala, orain, ongarria pilatzen hasi dira, eta Udalak ongarri horri irtenbidea eman nahi dio. Konpostagailutik ateratako ongarria, dagoenetan, ortuan erabil daiteke, adibidez. Loreontzietan botatzeko, aldiz, egokiagoa dela makina birrintzailetik pasatzea azaldu zuten. Konposta ongi egiteko hainbat gomendio ere eman zuten. "Etxetik bereizketa ondo eginda eraman behar da, zati txikiak bota behar dira, ondo zabaldu behar da, eta ondo aireztatu. Eta gainetik material lehorra bota behar zaio, organiko guztia ondo estaltzeko eta usaina eta eltxoak ekiditeko".


MAIDER ARREGI

# Motozerraz, bazterrak txukuntzen

Antzuolako brigadako taldea Lapatza inguruko bazterrak garbitzen aritu da. Garikoitz Llobregat brigadako kideak motozerra modu egokian erabiltzeko ikastaroa egin berri du. Izan ere, aurrerantzean, Europak horrela gomendatuta eta istripuak saihesteko, motozerra erabiltzeko baimena atera daiteke. Llobregat da lehen promozioko ikasleetako bat.

# 'Kapulana bat zintzilik', bertsoa eta elkartasuna

**M.A.** | ANTZUOLA

Asteburuan Mundukideren 15. urteurrena ospatuko dute Antzuolan. Euskal Herrian barrena ibili den erakusketa ikusgai izango da bihar eta etzi, Olaranen (18:30-20:30). Miren Amurizak bertso eta ipuinekin jantziko ditu, gainera. Lankuk eta Mundukidek elkarlanean antolatutako *Kapulana bat zintzilik* bertso eta ipuinen emanaldia ere domekan, maiatzak 1, izango da, Olaranen, 19:00etan.

**'Kapulana bat zintzilik'**

Miren Amurizak Mozambiken bizitakoa eta ikusitakoa kontatuko du domekako emanaldian. Afrikako nekazaritza, kooperazioa... kapulana oihalean batuko ditu Amurizak.

**ANTZUOLAKO ALKATEA**

**GOIENA TELEBISTA | HARIRA ALKATEEKIN ELKARRIZKETAK BEÑARDO KORTABARRIA, ANTZUOLAKO ALKATEA**
MAIATZAK 3, 22:00ETAN | ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

EGIN GALDERA:
**Whatsapp**: 688 69 00 07
**Posta elektronikoa**: berriak@goiena.eus
**Goiena app**: Galdera bidali



goiena

### Lan deialdia: landa ingurumenerako dinamizatzailea

Maiatzaren 2ra arte dago curriculuma bidaltzeko aukera. Urtebeteko lana eskaintzen da, luzatzeko aukerarekin. Baita lanari buruzko formazioa ere. Baldintza da unibertsitateko titulua eta nekazaritza arloan esperientzia izatea; EGA, III. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea eta B motako gidabaimena izatea.

### Landatxopekoak Guggenheimera joango dira ekainaren 1ean

Guggenheim museora irteera antolatu du Landatxopek. Baina joan gura dutenek aurrez museoaren gaineko jardunaldietan parte hartu behar dute maiatzaren 18an, 24an eta 26an (Olaranen 18:00etan). Izena eman gura dutenek maiatzaren 2an dute aukera Landatxopen 17:00etatik 18:00etara. Bazkideek doan izango dute; bestela, 10 euro da.

### Erain Debagoienak mus txapelketa antolatu du

Antzuolan maiatzaren 7an jokatuko da, Olalden, mus txapelketa, 16:30ean. Aurretik bazkaria egingo dute. Izena emateko epea zabalik dago herriko tabernetan. Egunean bertan ere eman daiteke. Finala Aretxabaletan jokatuko da maiatzaren 21ean. Sailkatutako bailarako hamasei bikotek hartuko dute parte.

# Aramaioko historia geologikoa ezagutzeko ibilbidea egingo dute

Lorabarri astea ospatuko dute maiatzaren 8tik maiatzaren 14ra bitartean

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Dena prest dute aurtengo Lorabarri asteari hasiera emateko. Kontsumo Elkarteak, Udalak, eskolak, guraso elkarteak eta erretiratuek antolatu dute egitaraua. Elikadura burujabetza, kontsumo arduratsua, herriko historia eta kultura, tokiko eta garaiko produktuak... izango dira Lorabarriren ardatz, beste behin.

Hurrengo domekan, maiatzaren 8an, hasiko dituzte ekintzak eta maiatzaren 14an bukatuko dira, Lorabarri azokarekin.


2015ean egindako Lorabarri azoka. | IMANOL SORIANO

**Anbotostera ibilaldia**

Aramaioko historia geologikoa ezagutuz ekingo dituzte ekintzak. San Martin eskolak eta Alkartasuna guraso elkarteak duten proiektuaren barruan, ibilaldi geologikoa egingo dute Etxaguendik Anbotostera. Maiatzaren 8an izango da, domeka, 10:00etan. Historia geologikoko hainbat material ikusteko aukera egongo da; fosilak, adibidez.

Maiatzaren 9an, astelehena, erretiratuen elkartean azukrerik gabeko gozoak prestatzen ikasiko dute –16:30– eta infusio dastaketa egingo dute ondoren. Azukreaz jardungo du Amaia Diez de Monasterioguren dietistak –17:30–.

**Hitzaldia: Josep Pamies**

Martitzenean, maiatzaren 10ean, Josep Pamiesek hitzaldia eskainiko du: sendabelarrak, kostu txikiko terapiak, elikadura eta osasuna izango ditu hizpide. Kultura etxean izango da, 18:00etan.

Eguaztenean Euskal Herriko ardo ekologikoaren dastatzea egingo dute; eta eguenean pagomotzei buruzko bideo emanaldia egingo dute Sastiñan eta Valentin Mugarzak tertulia eskainiko du.

Lorabarri asteari agur esateko, azoka egingo dute: maiatzaren 14an izango da, zapatua, 11:00etatik aurrera, Bizente Goikoetxea plazan.

# Erabakitze eskubidearen aldeko musika jaialdia

A.E. | ARAMAIO

Erain Debagoienak antolatuta musika jaialdia egingo dute, gaur, barikua. 20:00etan izango da, kultura etxean, 3 euroren truke. Musikariak izango dira: Enbata taldea, Sara Alonso eta Beñat Arizabaleta.

Sara Alonso aramaioarrak eta Beñat Arizabaleta aretxabaletarrak Euskal Telebistako *Izarrak kalean* saioan parte hartu zuten. Alonso gazteak, gainera, kantu saioa irabazi zuen: Zarauzko finalean Bruno Marsen *Marry You* abestu zuen.

Enbata taldeak dantzan jarriko ditu entzuleak.

**Mus txapelketa**

*Egiozu kiñu bat erabakitzeko eskubideari* lelopean esku eta mus txapelketa jokatuko dute maitzean. Kanporaketak bailarako herrietan izango dira. Aramaiokoa maiatzaren 14an izango da, 16:30ean, Eki tabernan. Finala Aretxabaletan izango dira maiatzaren 21ean, 16:30ean.

NIRE USTEZ


ANDERE ARRIOLABENGOA

## Azala eta mamia

Azken astean Kurdistan, Sardinia eta Herrialde Katalanetako inprobisatzaileen ordezkaritzak izan ditugu Euskal Herrian. Lau herri, lau kultura, lau historia, baina lotura sendo bat: hizkuntza gutxitu batean inprobisatzea.

Aramaion kurdu eta sardiniarrak izan genituen euskaldunekin batera. Gure artean emango zuten azken eguna zen eta saioa hasi aurretik nabaria zen giroan zegoen sentimendu anabasa.

Esaten da musika hizkuntza unibertsala dela, baita bertsoa ere. Hitzik gabe utzi ninduen sardiniar gazte batek, trikitiaz, *Egun da Santi Mamiñe* jotzen zuen bitartean, tablatu gainean zeuden guztiak koplatan entzuteak. Bakoitzak bere hizkuntzan, bakoitzak bere estiloan, baina sentimendu berdinaz.

Inprobisatzaileen gainetik pertsonak ezagutzeko aukera izan genuen, Simone, Paola, Mikele... Bakoitzaren herri eta hizkuntzaren egoeraz mintzatzeko aukera ezin galdu. Elkarrengandik ikasi, elkar animatu eta umiltasun lezio bat jaso genuen.

Pertsonalki eskerrak eman nahi dizkiet hau posible egin duten guzti-guztiei. Aurretiko lana mardula izan da eta Euskal Herrian eman duten denbora oso intentsua. Beñat Gaztelumendik saioan bota bezala, "bi herrialde etorri ziren eta sei lagun doaz".

**"Inprobisatzaileen gainetik, pertsonak ezagutu ditugu"**

TXALOAK ETA TXISTUAK


JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

# Goikoetxearen eskulturari erasoa

Joan zen barikuan Goikoetxearen estatua apurtu zuten. Aramaioko Udalak oharra zabaldu du gertatutakoaren gainean: herriko edozein gauza nahita apurtzea "lotsagarria eta onartezina" dela diote. Gainera, errespetu falta dela diote, bai Askasibar eskultorearekiko, eta baita Goikoetxea musikariarekiko ere.


IMANOL SORIANO

# Aramaio, inprobisatzaileen erdigune

*Europa bat-batean* egitasmoko udaberriko saioen azken emanaldian hiru inprobisatzaile modalitate ikusteko aukera izan zen Aramaion: bertsolariak, Kurdistango dengbeja kantu inprobisatzaileak eta Sardiniako kantariak. Bertsolari lanetan Beñat Gaztelumendi eta Xabi Igoa aramaioarra ibili ziren.

### Uztailean egingo dituzten udalekuetarako begiraleak behar dituzte

Uztailaren 6tik 22ra egingo dituzten udalekuetan begirale lanak egiteko eta horiek prestatzeko begiraleak behar dituzte. Begirale guztiek formazio berezia jasoko dute ekainaren 11n. Interesatuek maiatzaren 31 baino lehen eman beharko dute izena, Ana Muñoarekin egonda –arratsaldez ludotekan: 945 445374–. Soldata 310 euro izango da.

### Ehiza-barrutian sartu nahi ez duenak horren berri eman behar du

Aramaioko Udalak ehiza-barrutia berritu behar du. Barrutian lur zati publiko eta pribatu guztiak sartuko dira. Norbaitek bere lur zatia ehiza-barrutitik kanpo utzi nahi badu, horren berri emanez idatzi bat aurkeztu beharko du Udalean, apirilaren 23tik maiatzaren 11ra bitartean –biak barne–.

### Papargorrik otarreak zozkatuko ditu maiatzeko barikuetan

Papargorri abesbatzak otarreak zozkatuko ditu maiatzeko barikuetan. Txartelak salgai izango dituzte, euro baten truke, elkarteko neska-mutikoek. Saria jasoko dute maiatzaren 6ko, 13ko, 20ko eta 27ko ONCEko Cuponazoko sari nagusiko azken hiru zenbakiak dituzten txartelek. Helburua da abesbatzarendako dirua ateratzea.

### CUPeko ordezkariak Aramaion izango dira bihar arratsaldean

Bihar arratsaldean, zapatua, Kataluniako CUP alderdiko ordezkariak Aramaion izango dira. Aramaiok elikadura burujabetasunari eta burujabetasun energetikoari buruz dituen proiektuak ezagutzea izango da kataluniarren helburua. 16:30ean iritsiko dira eta Udal ordezkariekin egongo dira.

### Hildako animaliak jasotzeko zerbitzua dauka Aldundiak

Azken hilabetean Zabola eta Untzilla arteko bide ertzean ardiak agertu dira, hilda. Hori kontuan hartuta, Udalak gogorarazi du Foru Aldundiko nekazaritza sailak animaliak jasotzeko zerbitzua eskaintzen duela, doan. 945 18 17 67 zenbakira deitu eta hildako animaliak jasotzera joaten dira Aldundikoak.

ELGETA

# 780.000 euroko kalte-ordaina aitortzea onartu du udalbatzak aho batez

Udala akordio batera heldu da istripu batean kaltetutako familiarekin

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Istripu larria izan zen 2009ko Ferixa Nagusiko jaietan. Udal Gobernua eta kaltetutako familia akordio batera heldu dira, eta udalbatzak aho batez onartu zuen akordio hori martitzenean egindako osoko bilkuran. Hala, kaltetutako familiak 780.000 euroko kalte-ordaina jasoko du hamar urteko epean. "Akordio honetatik alde biak ateratzen gara indartuta. Epai bideak kaltea besterik ez zuen sortuko", esan zuen Iraitz Lazkano alkateak. "Udal honendako ezinbestekoa da epeka ordaintzea eta familiarendako ere hobeto da kalte-ordaina lehenbailehen jasotzen hastea dituen beharrizanak asetzeko". Oposizioa ere akordioaren alde agertu da. "Sentsibilitate handiko gaia da, eta komeni da sentsibilitate handiz jardutea", esan zuen Mikel Larreak. Alkateak argitu zuen Udalak hartuta duela familiarekin konpromisoa gaia errespetuz eta mimo handiz lantzeko.

**2015ean likidazio positiboa**

Udal Gobernuak, bestalde, 2015eko likidazioa aurkeztu zuen. Balantze ekonomikoa positiboa da. Alkateak azaldu zuen gastua %88an gauzatu dela, eta sarrerak %90ean. Udalak 120.000 bat euroko gerakin likidoarekin itxi du urtea. "Sarreretan aurreikuspen nahiko optimistak zeuden eginda eta orokorrean azpitik ibili gara, baina eduki ditugun sarrerak gastuak baino zerbait handiagoak izan dira. Hurrengo ogasun batzordean aztertuko dugu zein lerrotarako izango diren 120.000 euro horiek", jakinarazi du.

Oposizioak inbertsioetarako ahalmenaren inguruan galdetu zuen, eta erantzuna izan zen gaitasun hori minimoa izango dela. Lazkanok azaldu zuen ordaintzeko dauden maileguek eta bi kalte-ordainek asko baldintzatuko dutela Udalaren egoera ekonomikoa. "Onenera joanda urtean 40.000 bat euro izango ditugu zertan erabili erabakitzeko". Azaldu zuen sei mailegutan banatuta Udalak 600.000 euroko zorra duela, eta zor hori hogei urtera zabaltzeko hainbat aukera aztertzen dihardutela. Udalak aurreikusita dituen kobra gaitzen kopuruari erreferentzia eginez oposizioak kezka azaldu zuen sor daitezkeen altxortegi-arazoen inguruan. "Zorretan gelditzen direnak asko dira eta obligazioak ordaintzeak bere epeak ditu", esan zuen Mikel Larreak. Lazkanok uste du jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren kudeaketa Foru Aldundiari eman izanak lagun dezakeela zerga bilketan.

EH Bilduk *fracking*-aren aurka aurkeztutako mozio bat izan zen osoko bilkurako azken gaia. Udalbatzak aho batez onartu zuen.

ELGETA

## Domekan txalo artean inauguratu zuten Emakume Erresistenteen plaza

L.Z. | ELGETA

Oihartzun handia izan du aurreko aste bukaeran Elgetan egindako Erresistentzia Egunak; batez ere, Intxortako borrokaldien errekreazioak eta 41 emakumeri egindako aitortzak. Ekitaldi hunkigarriak eta jendetsuak izan ziren.

Emakume Erresistenteen plaza inauguratu zuten Intxorta 1937 Kultura Elkarteko Julia Mongek, Janire Lazkano zinegotziak eta 97 urteko Angeles Florez emakume erresistenteak. Bertaratutakoek txalo eta irrintzi artean ospatu zuten plazaren izen berria.

Aste bukaera berezia izan da. Barikuan liburutegitik antolatutako ekintzek ume andana bildu zuten, eta elizako organo kontzertuan 30 lagun elkartu ziren. Zapatu goizean, berriz, 53 emakume aritu ziren *zumba* saioan, eta *sketchcrawl* topaketak inguruko 27 margolari elkartu zituen herrian.




Julia Monge, Angeles Florez eta Janire Lazkano plaza inauguratzen. | I.S.

ELGETA



L.Z.

## Elkarrengandik hamaika ikasteko

Kultura Astea izan dute Herri Eskolan, eta egin dituzte bisita gidatuak liburutegira, jokoak, tailerrak... Herriko erretiratuek ere parte hartu dute. Antzinako jokoak eta taloak egiten erakutsi diete ikasleei. Gazteek, bueltan, sanblasak nola egiten dituzten erakutsi diete erretiratuei.

### OHARRAK

**IPUIN KONTALARIA**
Gaur, 17:30ean, 2-7 urte bitarteko umeendako saioa liburutegian. Kontu kontalaria: Begoña Alabazan.

**BATZARRA GAZTETXEAN**
Gaur, 19:30ean, gaztetxearen etorkizunaz berba egiteko batzar berezia gaztetxean.

**HAURRESKOLA**
Maiatzaren 2tik 11ra matrikula epea zabalik 2015ean eta 2016an jaiotako umeendako.

**HERRI URRATS**
Autobusa antolatu dute Elgetatik. Izen-emateak Haizea edo Rincon de Lola tabernetan.

ELGETA

## Gaztelekuan gertu dute udaberrirako eskaintza berezia eta zabalik da izen-ematea udaletxean

Zikin eta ur jolasak, altxorraren bila, sukaldaritza tailerra, irteera zaldian ibiltzera, gaubeila... Bergarako jaietako asteburuan izan ezik, guztietarako proposatu dute ekintza berezi bat gaztelekutik. Interesatuek bertan jasoko dituzte argibide gehiago. Izen-ematea zabalik da udaletxean maiatzaren 6ra bitartean. Prezioa da 25 euro hileko, eta zaldian ibiltzera joateko 10 euro.

ELGETA

## Bi orduko mendi irteera irekia antolatu du Elgetan Berbetan ekimenak zapaturako

Taldea 10:30ean abiatuko da Herriko plazatik eta asmoa da hiru Intxortak egitea. Bi ordu inguruko mendi irteera izango da, eta, mintzapraktika taldeetan dihardutenek antolatu badute ere, deialdi irekia egin dute. Helburua, noski, euskaraz egitea da. Amaitutakoan, trago bat egongo da Elgetako mintzapraktika taldeetan dihardutenerritarrendako.

LEINTZ GATZAGA

# Aparkaleku berria egokituta, auzo-konpost gunea lekualdatzen dabiltza

Ekarpen-gunearen ondora eramaten dabiltza; aparkaleku berria bukatzen den lekura, alegia

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Joan den astean hasi eta, ezustekorik ezean, oraingo astean bertan bukatuko dute Leintz Gatzagako auzo-konpost gunearen lekualdaketa. Hain justu ere, egurrezko instalazioa transformadore ingurutik ekarpen-gunera dabil eramaten Ramel enpresa. "Dena bateratuta egongo da, eta txukun", esplikatu du Roberto Otazuk, Hirigintza zinegotziak; eta hark gaineratu du oraingoa leku egokiagoa dela auzo-konpost gunearendako, orain arte etxebizitzen ondoan eta Jakionen ondoan egon da eta.

Lanok bukatu bitartean, hiru konpostagailu ipini dituzte transformadorearen aurrean, auzotarrek konposta egiten segitzeko.

Eta behin lekualdaketa lanak bukatuta, hondakinen ekarpen -gune osoari itxitura ipiniko diote, aparkaleku berriaren obrak egiteko lehenago zegoen etxolatxoa bota egin behar izan zuten eta.



Aparkaleku berria bukatuta, eta auzo-konpost guneko obrak. | UBANE MADERA

**16 leku**

Hain justu, aparkaleku horri dagokionez, erabilgarri dago, obrak bukatuta daude eta. "Uste baino leku gehiago atera dira: 16, guztira, eta beste bat autobusendako; etorkizunean, berriz, autokarabanendako bi leku sortzeko aukera dugu, turismo mailan herrian dagoen eskaerari erantzuteko; baina hori ikustear dago", adierazi du Otazuk.

Urtarrilean jausi zen aparkaleku berriko orubeko paretako lurra. Eustorma bat eraiki diote, berriro gerta ez dadin.

LEINTZ GATZAGA

## Almeneko erakusketaren ondoren, Mozambike

Mozambikeko eskualde bateko errealitatea oinarri hartu, eta Miren Amurizak bertso, testu eta ipuin bidez jantzita landutako ikuskizuna da *Kapulana bat zintzilik*, Lankuren eta Mundukideren ekimenez egindakoa. Bada, horren gaineko erakusketa kultura etxean izango da, maiatzaren 2tik 6ra bitartean; eta azken egun horretan (barikua), Miren Amurizak berak hitzaldia egingo du, 20:00etan.

Bestalde, eta nahiz eta egunotan erakusketa bertan egon, gaur, barikua, 19:00etan aurkeztuko dute Almen ikastetxearen gaineko erakusketa, 19:00etan kultura etxean.

MENDI LASTERKETA

# Lan bikoitza Aloñako deabruarendako

- Gaur, egubakoitza, egingo dute Buetraitzeko Igoera Bertikala, Arantzazun hasita
- Domekan 300 korrikalari batuko dira Aloñako 12. Igoeraren irteera puntuan

**XABIER URZELAI** | OÑATI

Aloñako Igoeraren 12. edizioan lanpetuta ibiliko da lasterketa girotzen duen deabrua, asteburua eskaintza bikoitzarekin dator eta. Kirol ikuskizuna gaur, egubakoitza (22:00), hasiko dute, Arantzazun, Buetraitzeko Kilometro Bertikalarekin –80 lagun daude izena emanda–. Eta domekan (09:00) Aloñako Igoera, puntako parte-hartzearekin: "Lehia polita izango da domekan: Walter Becerra, Imanol Goñi, Iñigo Lariz...", dio Argider Isastik, eta oilarren arteko zerrendan ez du kanpoan utzi gura denbora luzez min hartuta egon eta errekuperatuta itzuli den Iban Letamendi; oñatiarrak Sorian erakutsi berri du sasoian dagoela, eta motibazioan inork ez du gaindituko: "Ez nuke jakingo podiumeko ordena zein izango den esaten, baina horiek ibiliko dira borrokan. Eta, horietakoren bat despistatu egiten bada, Axi Alonso oñatiarra gain-gainean izango du, seguru".

Emakumezkoetan ere korrikalari erreferenteen atzetik ibili dira antolatzaileak, baina agenda kontuak direla-eta zailtasunak izan dituzte. Edozelan ere, aste barruan jaso dute berri ona: Oihana Kortazar, seguruenik, irteera puntuan izango da.

**%60, debagoiendarrak**

Lasterketa ez da, baina, aurrean ibiliko direnetara mugatzen, ezta gutxiago ere. Guztira, 300 dortsal banatuko dituzte antolatzaileek, eta horietako 91 oñatiarren eskuetara joango dira. Herrian lasterketak duen harrera onarekin batera, bailarako lasterkarien kopurua ez da atzean geratzen, parte-hartze osoaren %60 debagoiendarrak izango dira eta.



Jokin Lizeaga, 2014ko edizioan Aloñara bidean; atzetik Iñigo Lariz zetorren. | ARITZ GORDO

## Buetraitzeko igoera, gauez

Aloñako Igoeraren 10. edizioan egin zuten lehenengoz Buetraitzeko Kilometro Bertikala: "Oso kritika onak izan zituen lasterketak, baina hurrengo urtean ez genuen egin, nahikoa lan geneukan domekako proba antolatzen". Baina, proba hori errekuperatzeko hainbat lagunen proposamenak jaso, lagun horiek antolaketa taldera sartzera gonbidatu, eta halaxe dator bigarren edizioa: "Giro polita egongo da Arantzazun, eta hor ere espezialista onak izango dira: Iñigo Lariz, Julen Aranguena... Joseba Molinero oñatiarra ere txukun ibiliko da". 80 lagun inguruk eman dute izena, eta ez zitzaigun komeni askoz gehiago egotea, gauez izanda ezin dugulako proba askorik luzatu".


Lariz, Arantzazun. | GOIENA

ESKALADA

# Linazisorok 9a maila duen 'Begi puntuan' eskalatu du

Bergarako eskalatzaileak 15 urte baino ez ditu


Mikel Linazisoro bergararra, egindako lorpena ospatzen. | ASIER LINAZISORO

**X.U.** | BERGARA

Eskalatzaileen artean goiztiarrena, ez Euskal Herrian, ezta Espainian ere inork ez du lortu 15 urterekin 9ko zailtasun mailako hormarik igotzerik. Orain arte. Izan ere, Mikel Linazisoro bergararrak domekan ezarri zuen errekor berri hori, *Begi puntuan* (9a) igota.

Bergarako eskalatzailea goiz hasi zen nabarmentzen. 10 urterekin 7b zailtasuneko hormak igotzen zebilen, 11 urterekin egin zuen 8koetara salto, eta 13 urterekin *Koldoren mundua* eskalatu zuen (8c+). Hala, hurrengo pausoa 9koan zegoen, eta, hainbat ahalegin egin eta gero, domekan lortu zuen 2006an Patxi Usobiagak lehenengoz igo zuen bidea igotzea. Hala, bailaran bi eskalatzaile daude 9koen taldean sartuta, Linazisoro gaztea eta Ander Lasagabaster arrasatearra.

FUTBOLA

# Aretxabaletak eta Bergarak derbia jokatuko dute zapatuan

**X.U.** | ARRASATE

Erregional preferenteko 28. jardunaldiak Aretxabaletaren eta Bergararen derbia dakar (zapatua, 16:00, Ibarra). UDAko bigarren taldeak ez du apartekorik jokoan, mailari eusteko etxerako lanak eginda daude, baina sailkapenean hirugarren dagoen Bergarak (55 puntu) ez dio bigarren dagoen Mondrari (56) arnasa hartzen utzi gura. Hala, ibarrekoen arteko derbia izatearekin batera, Bergarak asko du jokoan.

Ordu erdi geroago (16:30, Mojategi), Mondrak sailkapeneko azken postuetan dagoen Usurbil hartuko du etxean. Antzuolak, berriz, Urkomendiren zelaian jokatuko du, Unben, zapatu arratsaldean (16:30).

**UDAk maila galdu du jada**

Hirugarren mailan Ondarroako Aurrera taldearen zelaian 3-3 egin ostean, matematikek diote UDAk kategoria galdu duela jada. Liga ez dute, baina, amaitu, eta domekan Getxoren bisita izango dute Ibarran (16:30).

Ohorezko erregionalean, berriz, liderrari irabazteko gauza izan zen Aloña Mendi domekan (1-0), eta bihar goizean (11:15), ahalik eta goren sailkatzeko kontrario zuzena den Ostadarren zelaian jokatuko dute.



Ezkerretik hasita, Realeko Izaskun Azpillaga, Nahikari Garcia, Itsaso Urrutia eta Garbiñe Etxeberria. | XABIER URZELAI

# Manu Diaz: "Guretako, apustu estrategikoa da emakumezkoen futbola sustatzea"

Aste barruan Bergarako Irizar jauregiko aretoa txiki geratu da Realeko elite mailako emakumezkoek emandako berbaldia entzuteko

**XABIER URZELAI** | BERGARA

Emakumezkoen Superligako Realeko Nahikari Garcia eta Itsaso Urrutia jokalariek eta Izaskun Azpillada eta Garbiñe Etxeberria koordinatzaileek berbaldia egin zuten martitzenean Bergarako Irizar jauregian, eta herriko jokalari emakumezko asko bertaratu ziren hara, berbaldia entzutera.

Besteak beste, Garbiñe Etxeberriak emakumezkoen futbolak izandako bilakaeraren gainean egin zuen berba: "Duela 30-35 urte ereindakoaren fruituak dira hauek, emakumezkoen futbola hazten doa, aurrerapausoak ematen. Arazoa da guk gurako genukeen erritmoan egiten ote gabiltzan aurrerapauso horiek, ezetz uste dut, motel samar goazela aurrera. Lan gehiago egin behar da, eta inguruak gehiago sinistu behar du gugan".

Erreferentziako taldeetan bai, baina herri mailako klubetan ere egin behar da apustu: "Eurak dira gure harrobia, Realera datozenak herriko klubetatik datoz, eta eurek egiten dute Reala handi. Eskertu egin behar zaie klubei egiten duten lana, eta oso pozgarria da ikustea, esaterako, gaur zelan bete den areto hau".

**Bergararendako, estrategikoa**

Hain zuzen, Bergarako kirol zuzendari Manu Diazek *estrategiko* berba erabili zuen aurten emakumezkoen alde egin duten apustua definitzeko: "Lehenengo aldiz neska gaztetxoei zuzendutako futbol eskola jarri dugu abian, eta sekulako sorpresa ederra jaso genuen, 25 gaztetxok izena eman zutela ikusita. Horiek dira gure harrobia, etorkizunean goragoko taldeetan jokatzen ibiliko diren neskak, alegia".

### ESANAK



"Gizonen dedikazio bera eskaintzen diogu futbolari"

**ITSASO URRUTIA** | REALEKO JOKALARIA



"Aurrera goaz, baina oso erritmo apalean"

**GARBIÑE ETXEBERRIA** | REALEKO ORD.



"Nesken futbol eskolan 25 gaztek eman dute izena"

**MANU DIAZ** | BERGARAKO KIROL ZUZEND.



"Ikasketak ez ditugu alboratzen futbolean jokatzearren"

**NAHIKARI GARCIA** | REALEKO JOKALARIA

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**HIRUGARREN MAILA**
Aretxabaleta-Getxo
Domeka. 16:30. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Ostadar-Aloña Mendi
Zapatua. 11:15. Lasarte Oria.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Mondra-Usurbil
Zapatua. 16:30. Mojategi.
Aretxabaleta-Bergara
Zapatua. 16:00. Ibarra.
Urkomendi-Antzuola
Zapatua. 17:30. Unbe.

**EMAKUMEZKOEN LIGA**
Urnieta-Arizmendi
Zapatua. 18:00. Urnieta.

**LEHEN ERREG. IGOERA**
Bergara-Oiartzun
Domeka. 17:30. Ipintza.
Mutriku-Mondra
Zapatua. 17:30. Unbe.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Aloña Mendi-Amaikak Bat
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Aretxabaleta
Zapatua. 11:15. Agorrosin.
Elgoibar-Mondra
Zapatua. 18:00. Mintxeta.

**GAZTEAK, IGOERA**
Oiartzun-Bergara
Domeka. 12:00. Oiartzun.

**OHOREZKO KADETEAK**
Oiartzun-Bergara
Domeka. 12:00. Oiartzun..

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
Aretxabaleta UDA-Elorrioko
Zapatua. 12:00. Ibarra.
Muskiz-Eskoriatza
Zapatua. 18:15. Muskiz.

**LEHENENGO MAILA**
Irudek-Pizza Per T. Mondrate
Zapatua. 19:00. Tolosa.

**GAZTEAK**
Pizza P. Mondrate-Laskorain
Zapatua. 12:00. Musakola.

**ESKUBALOIA**

**GIPUZKOAKO KOPA**
Izarraitz Aloña Mendi-Siglo XX
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**LURRALDE MAILAKO KOPA**
Arrasate-Ordizia
Domekan. 13:00. Iturripe.

**EMAKUMEZKOAK, KOPA**
Eibar-Iturritxo Aloña Mendi
Zapatua. 19:00. Ipurua.

**SASKIBALOIA**

**EBA**
Leihoak Zarautz-MU
Zapatua. 19:00. Aritzbatalde.

**BIGARREN MAILA**
Natra Oñati-Urdaneta
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**GIZONEZKO SENIORRAK**
Soraluze Bergara-D.Dolphins
Domeka. 17:00. Bergara.
MU-Alde zaharra
Zapatua. 16:00. Musakola.

**TXIRRINDULARITZA**

**53. LABEGARAIETA SARIA**
Domeka, 16:00etan hasita gazte mailakoen lasterketa.

**MENDI LASTERKETAK**

**BUETRAITZEKO KILOMETRO BERTIKALA**
Egubakoitza, 22:00etan hasita Arantzazun.

**ALOÑAKO 12. IGOERA**
Domeka. 09:00etan hasita, Oñatiko plazan.

**ARKU TIROKETA**

**EUSKAL HERRIKO LIGAKO 2. JARDUNALDIA**
Domekan, 09:30ean hasita Arantzazun.

**GIMNASIA ERRITMIKOA**

**ALOÑA MENDIKO 25. URTEURRENAREN BARRUAN ERAKUSTALDIA**
Zapatuan, 17:15. Santa Ana.

**PILOTA**

**OÑATI**
Egubakoitza, 18:30ean.

**ARETXABALETA**
Egubakoitza, 19:00etan.

**BERGARA**
Egubakoitza, 19:15ean.

**ARRASATE**
Egubakoitza, 20:00etan.

**ESKORIATZA**
Egubakoitza, 20:00etan.

**ANTZUOLA**
Egubakoitza, 20:00etan.

## Arrasateko taldeak Valentzian jokatuko du igoera fasea

Maiatzaren 13tik 15era jokatuko du Ford Mugarri Arrasatek igoera fasea, Alcasserren. Bere kontrarioak izango dira Comunidad Valenciana CH Alcasser, Baleares Handbol Marratxi eta Kataluniako Handbol Bordils taldeak. Maiatzaren 13an, etxeko taldearen kontra jokatuko du Ford Mugarrik, CH Alcasserren aurka, maiatzaren 14an, Hanbol Bordilsen aurka, eta maiatzaren 15ean Handbol Marratxiren aurka. Lau taldeen arteko lehiatik lehenengo postua eskuratzen duenak lortuko du lehen maila nazionalera igotzea.

## Labegaraietako 53. saria egingo dute domeka arratsaldean

Bergarako Labegaraieta auzoko jaien barruan, Lokatzak hainbat hitzordu antolatu ditu domekarako. Hasteko, goizean eskola mailakoek eta infantilek lasterketak egingo dituzte industrialdean –2006 eta 2007. urte artean jaiotako gaztetxoek bizikleta jaialdian parte hartu ahal izango dute– eta arratsaldean gazte mailakoek lasterketa izango dute, 53. Labegaraietako Saria (16:00etan hasita). Ziklistek 77 kilometroko ibilbideari egingo diote aurre, eta adi etxeko ziklistekin, Ulmako ordezkariak indartsu dabiltza eta.

LURRETIK



GOIENA TELEBISTA | LURRETIK | LEHEN SEKTOREA DEBAGOIENEAN
MAIATZAK 4, 22:00 | GARAZI AYESTA
EKOIZLEA: BAGARA HERRIGINTZAN ETA ARTEMAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# Europako musika eskolen arteko topaketa Debagoienera ere iritsiko da

- 8.500 musikari elkartuko dira maiatzaren 4tik 7ra Donostian, Emusik jaialdian
- Eskualdeko sei herritako ikasleekin batera eskainiko dituzte emanaldiak europarrek

**MIRARI ALTUBE** | DEBAGOIENA

Europako musika eskolen topaleku izango da Donostia maiatzaren 4tik 7ra bitartean. Emusik jaialdian elkartuko dira 8.500 ikasle, eta 120 kontzertu baino gehiago eskainiko dituzte 59 herritan, baita Debagoienean ere.


Bergarara etorriko den Eslovakiako taldea. | BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

**Europako ereserkia**

Musikari gazteak etorriko dira Alemania, Suitza, Letonia, Eslovakia, Estonia eta Hungariatik, besteak beste, eta euskal musika eskoletako ikasleekin egingo dute bat. "Musika batzen gaituen hizkuntza komuna da", adierazi dute antolatzaileek, eta jakinarazi ekitaldia aukera paregabea izango dela ezagutzak eta esperientziak partekatzeko.

Inaugurazio ofiziala maiatzaren 6an da, 11:00etan, Illunben (Donostia), eta, besteak beste, joko dituzte *Donostiako martxa*, *Txanton piperri*, Europako ereserkia eta Emusik jaialdirako bereziki konposatutako kanta: *Musikatu bizitza*. Debagoiendarrak ere hurreratuko dira ekitaldira; Bergaratik, esaterako, 110, eta Aretxabaletatik, 50 inguru.

Ekitaldi nagusiak, baina, egubakoitz iluntzean eta zapatu goizean herrietan egingo dituzten emanaldiak izango dira. Arrasate Musikaleko banda gaztearekin eta Musika hezkuntzako taldearekin batera Gironatik datozenek eta Norvegiako eta Suitzako taldeek jardungo dute Arrasaten. Oñatin, Alemaniako, Suitzako, Letoniako eta Albaceteko ikasleekin batera Jose de Azpiazu eskolako kideak izango dira, baita txorimaloak ere. Aretxabaletan ere talde horiek jardungo dute, Leizarra musika eskolako banda, abesbatza, dantzariak eta txistuordlariak lagun dituztela. Bergaran, ostera, dantzariak, gazte banda, orkestra sinfonikoa, trikitilariak, akordeoi taldea eta abeslariak izango dira Alemania, Suitza, Hungaria eta Eslovakiako eskoletakoekin. Eta Eskoriatzan eta Aramaion, txistulari eta dantzariekin egingo diete harrera Alemania aldetik datozen taldeei.Europako ereserkia eta *Musikatu bizitza* kantak joko dituzte emanaldi guztietan.

Emusik agurtuko dute Donostian, hilaren 7an, 20:00etan.

## KONTZERTUAK

| HERRIA | TALDEAK | KOKALEKUA |
|---|---|---|
| **MAIATZAK 6** | | |
| **Arrasate** | Sant Feliu (Girona) Banyoles (Girona) | 18:00, Monterron parkea |
| **Bergara** | Pinneberg (Alemania) Will (Suitza) | 18:30, San Martin plaza |
| **Oñati** | Waldshut-Tiengen (Alemania) Gelterkinden (Suitza) | 18:00, Foruen enparantza |
| **Aretxabaleta** | Caudete (Albacete) Marupe (Letonia) | 18:00, Herriko plaza |
| **Eskoriatza** | Ludwigsburg (Alemania) Heidenheim (Alemania) | 17:30, Gorosarri plaza |
| **MAIATZAK 7** | | |
| **Arrasate** | Haugesund (Norvegia) Matzendorf (Suitza) | 11:30, Monterron parkea |
| **Bergara** | Balassagyarmati (Hungaria) Sabinov (Eslovakia) | 12:30, San Martin plaza |
| **Oñati** | Caudete (Albacete) Marupe (Letonia) | 11:30, Foruen enparantza |
| **Aretxabaleta** | Waldshut-Tiengen (Alemania) Gelterkinden (Suitza) | 12:00, Herriko plaza |
| **Aramaio** | Ludwigsburg (Alemania) Heidenheim (Alemania) | 11:00, parkean |

# Dantzari Egunak Debagoieneko 200 dantzari heldu elkartuko ditu Oñatin

Arrasatekoek, Aretxabaletakoek, Antzuolakoek eta etxekoek erakustaldi dotoreak eskainiko dituzte bihar


Dantzariak, iaz, Antzuolako eskolako patioan. | GOIENA

**M.A.** | OÑATI

Dantzari helduekin beteko dira bihar, apirilak 30, Oñatiko kaleak. Han elkartuko dira Arrasateko Arrostaitz eta Lore Gazteak, Aretxabaletako Leizarra, Antzuolako Oinarin eta Oñatiko Oñatz dantza taldeetako kideak, 2016ko Dantzari Eguna ospatzeko.

**Euria bada, kiroldegian**

Kalejirarekin hasiko dira ekitaldiak, 11:30 bueltan. "San Juan kale inguruan hasiko dugu; Kale Barritik igo eta Atzeko Kaletik buelta eman. Herriko bazterrak girotzeko bueltatxoa izango da", jakinarazi du Iñigo Murgiondok, Oñatz taldeko kideak. Ondoren, 12:00etan, alardearen txanda etorriko da; plazan jardungo dute dantzan 13:15 ingurura arte. Agurraren ondoren, Arrostaitzekoek *Gasteizeko* dantzatuko dute eta Leizarrakoek *Pello Joxepe* kantuaren muntaia bat; horiez gain, *Lesaka*, *Uztai Handiak*, *Kateak*, *Muxikoak* eta *Kortes* dantzak ikusteko aukera izango dute hurreratzen direnek.

Etxe Aundin bazkalduko dute dantzari guztiek gero, eta arratsaldeko alardeari 18:00etan ekingo diote. Besteak beste, dantzatuko dituzte *Batelerak*, *Bizkaia*, *Oinarin* eta *Larrain dantza*. "Behin ekitaldi ofizialak bukatuta, jaiari trikiti doinuekin jarraipena emateko asmoa dugu kalez kale", dio Murgiondok.

Ekitaldiok Foruen plazan izango dira, baina, euria eginez gero, kiroldegira joko dutela iragarri dute antolatzaileek.

**Aretxabaletarrak lehenengoz**

Orain dela aste batzuk hasi ziren lanean bailarako antolakuntzako taldeko kideak biharko jaia gertu izateko. Aurten, gainera, bost taldek jardungo dute dantzan; izan ere, Aretxabaletako Leizarra musika eskolako helduen taldea lehenengoz joango da Dantzari Egunera, eta hori ere kontuan izan dute plazan zelan antolatu aurreikusterakoan. Murgiondok jakinarazi du harrera beroa egingo dietela aretxabaletarrei: "Pozik hartuko ditugu, bai horixe. Ea datorren urteko jaia antolatzera animatzen diren, nik gustura egingo nuke-eta dantzan Aretxabaletako plazan", jakinarazi du Murgiondok. Orain dela bi urte Arrasatek antolatu zuen, eta iaz, Antzuolak.

# KILOMETROAK 2016

www.kilometroak.eus | Kilometroak 2016 Bergara | @kilometroak | kilometroakbideoak | kilometroak

## SASOIRAKO GERTU

**Kilometroak 2016 jairako lanean jo eta su dabiltza Bergaran; dagoeneko bidearen erdia eginda, datorren sasoirako gertu**




EROSKI
ARRASATE
Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Iritsi da berriz ere
antxoaren
garaia

Kantauri itsasoko
benetako antxoa!

Udaberri honetan, dastatu Kantauriko antxoa. Momenturik onenean daude orain! Gure portuetatik iritsi berria, benetako gutizia da…

bazkidea bazara
-15%*
ANTXOA FRESKOETAN* (mostradorean eta erretiluan)



* Kontsulta ezazu eskuragarri dagoen zure ohiko dendan.



'Berrekin. Berregin' prozesutik sortutako Airez taldeak bultzatuko du 'Blai-blai'.

# Herritarrak sortzaile eta antolatzaile

## Kilometroak 2016k hasiera-hasieratik egindako apustuak fruituak ematen dihardu

Bergarako Kilometroak 2016 jaiaren antolaketa lanak bide onetik doaz, eta antolatzaileen erronka nagusia da Bergarako herria izatea Kilometroetako protagonista. Horretarako, autokritika prozesu sakon baten ondoren, benetako parte-hartze prozesu baten beharra ikusi dute Aranzadi ikastolako arduradunek.

Gipuzkoako ikastolen jai nagusiaren azken urteetako norabidea ez da denen gustukoa izan. Ondorioz, jai eredua hobetzeko herriaren parte-hartze aktiboa eta balio hezitzaileak bultzatzea dira Bergaran antolatuko den jaiaren erronka nagusiak.

Ideia horiek praktikan jartzeko orduan ezinbestekoa da Bergarako eragileen partaidetza. Hori lortzeko lanean dabil Ekaitz Aranberri, Kilometroak 2016ko koordinatzailea. Proposamena ikastola barruan landu eta barneratu ostean, Bergarako herriari zabaltzeko lanetan dabil. "Gabonetatik hona herriko hainbat eragilerekin bilerak egin ditugu gure proposamena azaltzeko. Hasiera batean, kosta egiten da azaltzea guk eskaintzen duguna. Gure helburua ez da esatea herriko eragileei, 'zerbait egin behar duzue Kilometroak jairako', eta hor konpon! Ez, gure asmoa haiekin elkarlanean zerbait sortzea da. Haiek ikusiko dute Kilometroak jaiaren bueltan zer egin nahi duten", dio Aranberrik.

**Txosnagunean ere presente egongo da Kilometroak jaia**

### TAILA ESKOLA, GAZTEAK...

Egindako bilerak hasi dira emaitzak ematen eta dagoeneko ekintza konkretuak martxan daude. Aranbarrik dioen moduan: "Taila eskolakoek Demasaren egurrezko logo polit bat egin dute eta ekaineko lehenengo hamabostaldirako eragileen eguna antolatzeko asmoa daukagu. Bertan, herrian lanean dabiltzan eragile desberdinen jarduerak ikusteko aukera izango dugu".

Ikastolako guraso eta ikasleen partaidetza aktiboa ere bultzatu nahi da prozesu honen bitartez eta helburu nagusia autogestioa da. Modu autonomoan guraso eta ikasleek ekimenak bultzatzeko aukera izan da eta horri esker gazte talde bat lanean dabil. "Taldea ikastolako ikasle eta ikasle ohiz osatuta dago, 30 bat laguneko taldea da, eta, esate baterako, gaztetxean jaialdi bat antolatu zuten. Gainera, Pazkoetako igandeko txosnaguneko egitaraua ere haiek antolatu dute", dio Aranberrik.

Kilometroak 2016ko koordinatzaileak gogorarazi nahi izan du norbaitek zerbait antolatu edo Kilometroak jaiaren aitzakiarekin ekimenen bat bultzatu nahi badu, Aranzadi Ikastolako ateak zabalik daudela.

**Txikienendako gunea sortzeko prozesu irekia abian da**

### TXIKIENDAKO GUNEA

Parte-hartzearen sokari jarraituz, Airez taldeko kideek aukera ona ikusi dute euren lana eta Kilometroak jaia uztartzeko. Gauzak horrela, joan zen apirilaren 19an aurkeztu zuten proiektua eta dagoeneko hasi dira lanean urriaren 2an ospatuko den jaiegunean haurrek espazio aproposa izan dezaten. "*Blai-blai* prozesuaren helburua Bergaran egingo den Kilometroak 2016 baitan haurrena izango den espazio bat eratzea da. Herriko espazio horretan eraldaketa bat egitera goaz, baina azpimarratu beharra dago emaitzaz aparte, hori zergatik eta nola egiten dugun ere garrantzitsua dela", dio Nerea Madariagak, Airez taldeko kideak.

Lehenengo batzarrean elkartutako lagunekin herritarren foroa osatu dute, eta, bi astean behin, martitzenetan, Errotalde jauregian elkartuko dira, 18:30etik aurrera.

Hurrengo bilera maiatzaren 3an egingo dute. "Parte-hartze prozesu bat izango da. Prozesu honek hiru fase izango ditu, maiatzetik urrira iraungo duena. Lehen fasean, diagnostikoa egingo da, arazoaren gainerako hausnarketa bat bultzatuz eta kolektibo bakoitzaren beharrak identifikatuz. Bigarren fasean, diseinua gauzatuko da, lehen fasetik ateratako ondorioak oinarritzat hartuz gauzatuko dena. Eta azken fasea gauzatzearena izango da. Herritarren foroaren lana egun horretan antolatuko den espazioaren lanketa izango da, eta bertara edozein hurbildu daiteke. Haur, gazte eta helduak ongietorriak izango dira", dio Madariagak.

Airez taldea aholkularitza teknikoaz arduratuko da, baina garrantzitsuena herritarren parte-hartze aktiboa izango da, eta, batez ere, haurrena, eurentzako izango baita diseinatuko duten espazioa. Herritarren foroa izango da ekimenaren motor nagusia, eta, haurren partaidetza bermatzeko, eskola orduetan Aranzadi ikastolako Lehen Hezkuntzako 3 eta 5 urteko gelakoek proposamenak landuko dituzte gelan.

Airez taldetik adierazi dutenez, herriko gainontzeko ikastetxeekin lan egiteko ere prest leudeke. Ikastetxeez gain, gurasoen partaidetza bultzatzeko, datorren maiatzaren 6an Usondo parkean elkartuko dira, 17:30etik aurrera bilera egingo dute herriko guraso talde ezberdinekin.

oerlikon balzers

Oerlikon Balzers
Coating Spain S.A.U.
Antigua 2
20577 Antzuola
Tel.: 943 76 62 08
info.balzers.es@oerlikon.com

www.oerlikon.com/balzers/es

# Kilometroak urte osoan, ez bakarrik urriaren 2an

## Metroz metro, guztien ahaleginarekin, Kilometroak egiten eta Demasa leloa urte osoan zabaltzen



**Leloa eta irudia aurkezteko jaialdia, azaroan. Demasa!**



**Demasa Kantuan, Gabonetan, kaleak berotzeko.**



**Santa Ageda Demasa otsail hasieran: makila eskuan, doinua ahoan.**



**Kilometroak Txikia otsail amaieran; hotzari jai giroan aurre eginez.**




**Lilatoian, martxoan. Demasa, lasterketako talderik handiena.**



**Erramu Zapatuan, Demasa Behia eta beste. Kilometroak ere azokan.**



**Gipuzkoako azokak eta jaiak non, Demasa han.**



**Demasa Astea apirilean. Aniztasuna eta inklusibitatea berbeta gai.**

### DATORRENA...

#### Kantuaren aurkezpena

Maiatzaren 20an aurkeztuko da jendearen aurrean Kilometroak 2016ren kantu ofiziala. Emon taldeak egin du. Beste hainbat emanaldi izango dira ikuskizun zabalean. Udal Pilotalekuan.

#### Pentekoste jaietan

Jaietan kalean izango da Kilometroak 2016. Tonbolarekin, arropa salmentarekin, egunero, eta domekan, txosnagunean. Demasa Eguna: denetik.

#### Garagardo Feria ekainean

Garagardoa dastatzeko aukera izango da ekainaren 10etik 12ra bitartean Ikastolako jolastokian. Jateko eta edatekoaz gain, hainbat ekimen antolatuko dira feria girotzeko.

#### Banda eta Orkestra ere bai

Ekainaren 19an, Bergarako Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak Kilometroak 2016 dela-eta prestatu duten pieza sinfonikoa aurkeztuko dute, Alfredo Gonzalez Chirlaquek konposatua eta umeekin kantatua. Udal Pilotalekuan, eguerdian.

#### Reala Agorrosinen

Uztailean, Realeko gizonezkoen talde nagusiaren lagunarteko partidua izango da. Goi mailako futbolariak ikusteko aukera, Agorrosinen.

#### Ikastolak 45 urte

Iraila, indartsu: goi mailako bertso saioa; Aranzadi Ikastolaren 45 urteak eta Kilometroak jaiaren 40. edizioa direla-eta, erakusketa eta hitzaldi zikloa; *Garden* ikuskizuna (Eñaut Elorrieta...) Gipuzkoa Basket...



# Batzordez batzorde lanean

**Urriaren 2rako 2.000 boluntario beharko dira, baina, bitartean, gelditu barik ari dira lanean Kilometroak antolatzen**



**ARROPA SALMENTA** Kilometroak 2016ren Bergarako denda (Bidekurutzeta kalean) eta herririk herri egiten diren irteerak antolatzeko ardura du batzorde honek. Urtea amaitu orduko, 1.000 bat irteera egingo dira lurralde osoan barrena, herriko azoka, jai, eta abarretan. Diru iturri nagusietakoa.



**EKONOMIA** Kilometroak jaiaren helburuetako bat dirua batzea da, proiektu pedagogikoa aurrera atera ahal izateko, eta batzorde honen ardura da, batez ere, halako jai bat antolatzeak dakartzan sarrera eta gastuak zaintzea, aurreikusitakoa bete dadin.



**ERRONKA** Kilometroak jaiaren asmakizun borobila. Ikastoletako gazteak kirol jardueretan murgiltzen dira erronkei aurre eginez. Bergarako guneak eta jarduerak prestatzen dihardute batzorde honetan.



**GIZA BALIABIDEAK** Boluntarioak –hasieran, bereziki, ikastolako guraso, langile eta ikasleak– nahi duten batzorde eta zereginetan ari daitezen datu-basea osatu eta zaintzeko ardura. Kilometroak egunean lanean jardungo duten herritarren zerrenda osatzekoa ere bai.



**GURE ZOZKETA** Beste diru iturri garrantzitsua. Arropa salmentako taldearekin batera, herririk herri txartelak saltzeko taldeak osatzeko ardura du batzordeak. 60.000 euro zozkatuko dira urriaren 3an notario aurrean. "5 euroren truke... nahi duzunerako!", diote.



**IKUSKIZUNAK** Leloa eta irudia aurkezteko jaialdia; abesti ofiziala aurkeztekoa, edota herria girotzeko antolatzen diren beste ikuskizun, jai edo ekimenen ardura du batzordeak. Parte hartzea eta ikusgarritasuna ardatz, "gauza ezberdinak" egiteko borondatez, betiere.



**JASANGARRITASUNA** Kilometroak jaiaren balioetako bat da jasangarritasuna; ingurumenari errespetua. Ahalik eta hondakin gutxien sortzea eta sortzen dena sailkatuta batzea. Horri eutsiz, asmoak jaian txerta daitezen neurriak proposatu eta gauzatzeko ardura.



**KOMUNIKAZIOA** Kilometroak jaiaren helburuak, balioak, leloa, irudia, ekimenak, jakinarazpenak... gizarteratzeko ardura. Egiten dena komunikatzekoa eta zelan komunikatu erabakitzekoa. Abesti ofiziala sortzea, bideoklipa egitea... ere batzorde honen ardura da.



**OSASUNA** Bereziki, urriaren 2ko jai erraldoirako osasun zerbitzuen beharrak aurreikustea, diseinatzea eta behar den eran eta unean erantzuteko gertatzea, larrialdi, segurtasun edota osasun zerbitzuekin batera eta elkarlanean.



**TXOSNAK** Urtean barrena eta, bereziki, Kilometroak egunean, jartzen diren txosnen txandak antolatzea, txosnaren beraren eskaintza atontzea, hornitzaileekin harremanetan jardutea, premiak aurreikustea... Horiek betekizunak. Urriko lehen domekako jaian, ezinbestekoa.



**MUNTAKETA** Urtean barrena eta, batez ere, jaiegunean bertan, agertokiak, tabernak, seinaleztapena, eta bestelakoak diseinatzea, lortzea, muntatzea... gisa horretako premiei erantzutea da batzordearen egitekoa.



**PROTOKOLOA** Kilometroak jaiak antolatzen dituen jaialdi edo ikuskizun garrantzitsuenetarako protokoloa prestatzeko eta zaintzeko ardura. Bereziki, jaieguneko zinta mozketa eta omenaldiko ekitaldietan. Gonbidatuen zerrenda prestatu, eta halakoak.



**PREBENTZIOA** Alkoholaren kontsumo arduratsua bultzatzea, sexu erasoak saihestea, errespetuz gozatzea... Horiek ikastolen komunitatearen kezka inportanteetakoak. Errespetuan oinarritutako balioak Kilometroak jaian txerta daitezen lanean dihardu batzorde honek.



**ZIRKUITUA** Kilometroak jaian, sortzez, ibilbideak berebiziko garrantzia izan du. Segurtasun premiak, logistikarekin lotutakoak, jaieguneko eskaintzaren diseinuak, helburuak eta balioak kontuan, zirkuitu erakargarri, eroso eta seguruena diseinatzeko ardura du.

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak







BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA

bai euskarari
zerbitzua euskaraz

Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Abestia eta bideoklipa abian



**Joan zen egubakoitzean grabatu zuten, Elkar estudioan, Donostian, *Demasa* kantua. Argazkian, Emon taldekoak kolaboratzaileekin.**

Abian da *Demasa* abestia, Kilometroak 2016ko kantua. Oraingo egunotan grabatu, nahastu eta masterizatu dute Elkar eta AME estudioetan. Emon taldeak egin du musika eta Maddi Iñarrak letra. Abestiari irudiak gaur, egubakoitza, eta bihar jarriko zaizkio.

Bideoklipa eta abestia maiatzaren 11n aurkeztuko dituzte, eta hortik aurrera egongo da ikusgai eta entzungai. "Jaietan tabernetan eta txosnetan, eta gailu guztietan entzutea da asmoa", dio Ekaitz Aranberrik, Kilometroak 2016ko koordinatzaileak. Abestia zuzenean, berriz, maiatzaren 20an gozatu ahalko da, Udal Pilotalekuan egingo den jaialdi berezian.

## ERRITMO LATINDARRAK

Abesti dantzagarria da, festa girokoa, erritmo latindarrak, euskal folka eta rapa nahasten dituena. "Bitxia atera da!", dio Emon taldeko Aritz Alustizak. Hau guztia, "base elektroniko batzuekin eta samplerrekin" nahastuta. "Positibismoa transmititu nahi izan dugu. *Demasa* hitzak berak indar handia dauka eta musikak eta letrak ere indarra transmititu behar zuten. Horregatik, abesti oso bizia egin dugu, intentsitate handikoa", dio.

Emon taldeak hainbat kolaborazio izan du: Sorkun, Moro (Bad Sound System), Andoni (Kometa), Unai *Azkaiter Pelox*, Porrotx, Aranzadi Ikastolako neska-mutiko taldea… eta horrek aberastu egin du kantua.

Doinuari hitzak Maddi Iñarra bergararrak jarri dizkio. "Esperientzia berria izan da, sekula egin gabeko zerbait", dio. Musika zein letra egileak "oso ondo elkar ulertu dugu eta hartu-eman handia izan dugu zalantzak argitzeko".

Eta zer kontatzen du, bada, abestiak? Iñarrak berak azaltzen du: "Leloa *Demasa* izanda, adierazi nahi dut euskaldunok ere, komunitate txikia izanagatik, demasak garela, gure hizkuntza demasa dela, beste edozein bezain baliagarria… eta ikastolak, eta Aranzadi, demasak direla".

## BIDEOKLIPERAKO ESTRAK

Bideoklipa gaur eta bihar grabatuko dute. Zapaturako, gainera, estra lanetan jarduteko dei egin diete herritarrei. 15:30ean Seminarioko jolastokian Kilometroak 2016ko arropekin agertzeko dei egin dute. Irudiak pare bat ordutan grabatuko dituzte estrekin.



**Unai Azkarate ahotsa sartzen.**



**Aritz Alustiza soinuarekin.**



**Sorkun Rubio ere batu da *Demasa* kantura.**



# Demasa Astea bete-bete

**Askorako, askorentzako eta askorekin: Demasa Astean, bete-betean, astean eta asteburuan; hemen, zehaztasunak**



Eguaztenean, aniztasuna eta inklusibitatea berbeta gai izan dute Bergarako hainbat kolektibok.

Demasa Astea ospatzen ari da egunotan Aranzadi Ikastola, herritarrekin batera, Kilometroak 2016 jaiaren bueltan. Era askotako ekitaldiak antolatu dira aniztasuna —Kilometroak 2016ren balio garrantzitsuenetako bat— aintzat hartuta. Egubakoitz eta zapatuan izango du jarraipena, eguazteneko mahai-inguruaren eta egueneko Demasa Kantuaren eta pintxo -pote ezohikoaren ostean —jatorri askotariko pintxoak saldu dituzte herriko 17 tabernatan—.

Eguaztenean, aniztasuna eta inklusibitatea aintzat hartuta, herriko hainbat eragile batu ziren mahaiaren bueltan. Aurreiritziak, ohiturak, estandarretik kanpo daudenen zailtasunak onartuak izateko, eta beste izan zituzten berbeta gai, ikuspuntu ezberdinetik begiratuta.

### SOLASALDI HUNKIGARRIA

Erakundeen eginbeharraz bai, eta gizartea aldatzeko, inklusibitatea bultzatzeko edo, hezkuntzatik abiatuta, kultura aldaketarako errekurtsoen beharraz bai, baina, batik bat, norberaren konpromisoaz –edo konpromiso ezaz– eta aldaketaren gakoa pertsonetan eta ez horrenbeste erakundeetan dagoela azpimarratu zuten. Krisi sasoiek hainbat aukera ere sortzen dituztela aldaketetarako adierazi zuen gonbidatu batek edo bestek.

Pedro Garitanok adierazi zuen erretiratuak ez daudela gizartean aprobetxatuta eta erakundeek ez dituztela aurreikusi erretiratu gazteei probetxua ateratzeko moduak eta aukerak.

Enpatiaz aritu zen Enrike Amelibia, Gureak tailerreko ordezkaria, eta batutakoak hunkitu zituen berba sentikor, argi eta zehatzekin. Auzoko zer den, kanpotik herrira datozenekin integraziorako egiten den lanaz,3 jardun zuen Maddi Azpiazuk, eta haien arazo garrantzitsuena baliabide ekonomikoa baino gehiago etorkinekin solasean aritzeko astean ordubete emateko prest dagoen jendearen falta dela nabarmendu zuen.

Martxanterak feminismoaz aritu ziren; herrian dauden aurreiritziez. Genero berdintasuna gizonen eta emakumeen kontua dela, ez emakumezkoena bakarrik, esan zuten Andrea Gonzalezek eta Nerea San Miguelek.

Ikuspuntuak kontrajarri zituzten Bergarako Udaleko ongizate zerbitzuko teknikari Xabier Legorburuk eta Aransgi gorren elkarteko ordezkari Iñaki Madinabeitiak; lehenengoa ezkorrago bigarrena baino, jendearen aldaketarako prestutasunaren inguruan. Aspaceko Agustin Toledo eta Aritz Bikuña zailtasunez eta erronkez mintzatu ziren… eta Gurutze Arregi Aranzadiko irakasleak nabarmendu zuen ikasle guztiak berdintasunez tratatzeko -edozein dela jatorria- hezkuntzatik egiten duten lana.

**Eragileek hitz egin dute gizartea aldatzeko konpromisoez**

### ASTEBURUAN GEHIAGO

Demasa Asteak segida izango du. Gaur, egubakoitza, kriket erakustaldia eta ikastaroa izango dira pakistandar komunitatearen eskutik Aranzadi Ikastolako patioan, 17:00etan eta 19:00etan, Koldo Zuazo *Euskara zaharra gizarte berrian* lelopean ariko da Irizar jauregian. Zapatuan, umeentzako, 18:00etan, antzerkia, *Urrestillako musikariak*, DBHko 4. mailako ikasleen eskutik, Aranzadi Ikastolako patioan. Ondoren, munduko dantzen potpourria, DBHko 1. mailako ikasleen eskutik, eta txikitxoentzako, marrazkiak, munduko jolasak… Gazteentzako, 19:30ean, triki-poteoa, Aranzadi Ikastolako jolastokitik irtenda, eta 22:00etan, bertsio gaua gaztetxean, talde hauekin: Diablues&Bluecifer, Asea, Kaltz eta Petrol Bombs.



## Aniztasunak egiten gaitu demasak

**Ekaitz Aranberri** | Koordinatzailea

Pausoz pauso, metroz metro, egiten dira kilometroak, egiten da bidea. Norbanakoz norbanako, berriz, osatzen da gizartea. Bideak ere izan ohi ditu bihurgune eta aldapak, ez baita guztia zuzena eta laua. Gizartea osatzen dugun norbanakoak ere ez gara berdinak, anitzak baizik.

Bakoitza bere gaitasun, ideia, jatorri edota nahiekin elkartuz sortzen dira gauza handiak. Ezberdinen baturak, norbanako anitzen elkartzeak egiten gaitu handi. Hori aldarrikatzera dator Kilometroak 2016.

Aranzadi Ikastolako komunitatean eta Bergaran bertan dagoen potentzialitatea zaindu beharrekoa dela uste baitugu, eta aniztasuna zentzu horretan ulertzen dugu. Guztiok geure lekua izango dugun komunitatea irudikatzen dugu, inor baztertua izango ez dena, inklusiboa, alegia.

**"Guztiok geure lekua izango dugun komunitatea irudikatzen dugu Aranzadi Ikastolan"**

Aniztasuna eta inklusibitatea ardatz, egunotan Kilometroak 2016k bere ekarpentxoa egin nahi izan du. Eguaztenean, Aranzadi Ikastolako aretoan hainbat kolektibotako kideak elkartu ziren (Martxanterak, Aspace, Auzoko…) eta aniztasunaren zein inklusibitatearen inguruan duten ikuspegia eman zuten. Herriko errealitate ezberdinak ezagutu eta harreman sareak sendotzeko balio izan zuen berbaldiak.

Kilometroak 2016 jaiak eskaintzen duen abagunea horretan sakontzeko baliatu nahi dugu. Herri eragileen iniziatibak bultzatu ditugu, Gipuzkoako ikastolen jaiaren parte eginez, eta gizarte eredu honetan, orokorrean, ahotsik eta erabaki ahalmenik ematen ez zaien kolektiboen parte hartze aktiboa sustatu dugu. Horren adibide dira *Blai-blai* prozesua eta gazte taldea, Kilometroak 2016ren baitan ekimenak antolatzen diharduena. Izan ere, gure asmoa da Kilometroak 2016ren dinamikak Bergaran arrastoa uztea.

**"Herri eragileen iniziatibak bultzatu ditugu, Gipuzkoako ikastolen jaiaren parte eginez"**


OROILORE
*Maitasunez bizi, maitasunez agurtu*
*Lasaitasuna, hurbiltasuna eta berotasuna senide maitatu bat agurtzen duten horientzako*
Maribi
BERGARAN, Amillaga 27an • 617 44 21 55 / 943 76 94 73 • maribi@oroilore.com

# Arropa eta osagarri berriak udaberrirako

## Kilometroak dendan eta herririk herri salgai, sasoi-sasoian eta boladan egoteko

## IRTEERAK

**MAIATZAK 1, DOMEKA**
Donostia, Legazpi, Oñati, Idiazabal, Andoain eta Alegia.

**MAIATZAK 7, ZAPATUA**
Oñati, Aretxabaleta eta Beasain.

**MAIATZAK 13, EGUBAKOITZA**
Bergara eta Arrasate (Hiper Eroski).

**MAIATZAK 14, ZAPATUA**
Lezo, Bergara eta Astigarraga.

**MAIATZAK 15, DOMEKA**
Hondarribia eta Bergara.

**MAIATZAK 16, ASTELEHENA**
Bergara.

**MAIATZAK 17, MARTITZENA**
Bergara.

**MAIATZAK 21, ZAPATUA**
Elgoibar eta Ordizia.

**MAIATZAK 22, DOMEKA**
Aia, Anoeta, Usurbil, Donostia, Azkoitia eta Arantzazu (Oñati).

**MAIATZAK 27, EGUBAKOITZA**
Arrasate (Hiper Eroski).

**MAIATZAK 28, ZAPATUA**
Getaria, Oiartzun, Tolosa, Oñati, Urnieta, Alegia, Legorreta eta Arrasate (Hiper Eroski).

**MAIATZAK 29, DOMEKA**
Azpeitia eta Arantzazu (Oñati).

**MAIATZAK 30, ASTELEHENA**
Ordizia.

**Arropa gehiago:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.




















Aiba! mendi martxaren dokumentala eskainiko dute martitzeneko emanaldian. | BESAIDE MENDIZALE ELKARTEA

# Mendiaren eta naturaren gaineko zinema Arrasaten datorren martitzenean

▶ Bilbao Mendi Film Festivaleko pelikularik onenak ikusi ahal izango dira

▶ Amaia Udal Antzokian izango da, maiatzaren 3an, 19:30ean

**ENEKO AZURMENDI** | ARRASATE

Bilbao Mendi Film Festivaleko pelikularik onenak Gipuzkoako hainbat herritan eskaintzen ari dira *Mendi Tour* ekitaldiaren barruan, eta hurrengo geltokia Arrasaten izango dute maiatzaren 3an, martitzena, 19:30ean. Sarrerak 5 eurotan egongo dira. Bilbao Mendi Film Festivalek antolatu du ekitaldia, Zineuskadiren laguntzarekin eta Besaide Mendizale Elkartearen eta Arrasateko Udalaren babesarekin. Arrasaten bosgarren aldiz ospatuko da ekitaldi hori. Antolakuntzatik nabarmendu dute mendia eta natura gustuko duenarentzat ez ezik, publiko orokorrago bati zuzendutako emanaldia ere badela.

Lau izango dira eskainiko diren pelikula edota film laburrak: *Aiba! mendi martxa, High and Mighty, The warmth of winter* eta *Jeff Lowe´s metanoia.*

Lehenengoa Arrasateko Aiba mendi martxaren gaineko dokumental bat da, Besaide mendizale elkarteak 2015eko mendi martxan lagunartean grabatutakoa, eta bertako Dragoi Produkzioek ekoitzia. Aitor Zubiaga Besaide mendizale elkarteko kideak azpimarratu du herritarrei mendi martxaren gaineko informazioa ematea izan dela dokumental honen helburua. Jendeari erakusteko momentu egokia aurkitu arte itxaron dutela onartu du. "Urtebete inguru eduki dugu gordeta eta ekitaldi hau baliatu nahi izan dugu bertan herritarrei eskaintzeko", azaldu du Zubilagak.

*High and mighty*-k (altua eta indartsua) film labur onenaren saria irabazi zuen Bilboko jaialdian, Nik Rosen zuzendaritzapean. 2015eko filma da eta 18 minutuko iraupena du.

Film labur horrek zailtasunezko eskaladaren kultura modu arriskutsuan azaleratzen du, eszenatoki berritzaile batekin.

Daniel Woods protagonistak *Highball* izeneko harrizko horma eskalatzea du helburu, eta bertatik erortzeak lesio larriak ekarri diezazkioke. Zailtasun maila handiko horma da eta borroka itzela izango du protagonistak hura gainditzeko.

*The warmth of the winter* (neguaren berotasuna) musikala hausnarketarako bidea ematen duen film bat da, 6 minutuko iraupena duena. 2015ean argitaratu zen Ben Sturgulewski zuzendariak gidatutako film hori.

Japonia iparraldeko elur berezia, egun eguzkitsuak eta eskia uztartzen ditu lanak.

Azkenik, *Jeff Lowe´s metanoia* (Jeff Loweren metanoia) filmak ikusleen saria irabazi zuen. 2014ko pelikula da eta 78 minutuko iraupena du. Zuzendaria Jim Aikman da. Hark Jeff Lowe alpinista ospetsuaren bizitza kontatzen du: igoera utopikoekin eta kirol honen gailurrean izatearekin hasita, zoritxarrezko gainbehera emozionaletik igaroz eta gaur egun pairatzen duen endekapenezko gaixotasunera heldu arte. *Metanoia*-k, Jeff-en bide imajinaezin berriak –bakarrik, negu gorrian eta Eigerko ipar horman–, bere bizitza aldatu zuen eta inoiz bizi izan duen abentura handienerako prestatu zuen.

**Mendizaletasuna bultzatzen**

Zubiagaren ustez, oso garrantzitsua da mota horretako ekitaldiak Arrasaten egitea. "Egun berezia izaten da guretzat. Mendizaleon topagune moduko bat da, urtero elkartzeko aukera ematen diguna", azaldu du Zubiagak.

Ekitaldi horretaz gain, gazteei zuzendutako emanaldi bat ere egin guran dabiltza Besaide elkartean, baina oraingoz, behintzat, proiektu bat besterik ez da. Azken finean, inguruko herrietan mendizaletasuna bultzatzea da elkartearen helburua.

**ESANAK**

**"Ekitaldi hau baliatu dugu jendeari gure dokumentala erakusteko"**

**"Mendizaleon topagune moduko bat da, elkartzeko balio diguna"**

AITOR ZUBIAGA | BESAIDEKO KIDEA

## La Banda del Abuelo eta Eskean Kristo taldeek itxiko dute apirileko egitaraua

**I.B** | ARRASATE

AGAKOk, hogeita bosgarren urteurrenaren harira, Kooltur ostegunetatik kanpo kontzertuak antolatu ditu apirilean, Kooltur ekimenak eta beste hainbat eragilek lagunduta. Hala, hilari amaiera emateko, La Banda del Abuelo eta Eskean Kristo taldeak izango dira bihar Arrasateko gaztetxean. 22:00etan izango da emanaldia eta sarrerak bost eurotan izango dira salgai.

**Maiatzeko egitaraua prest**

Maiatzeko egitaraua atera berri du Kooltur egitasmoak: maiatzaren 5ean, Juantxo Skalari izango da; 12an, berriz, Eraso taldea metal-rocka eskainiz; 19an, Shake! talde kataluniarrak soula ekarriko du gurera; eta azkenik, maiatzaren 26an, Bad Co. Project izango da. Alemaniako talde horretan Arrasateko Asier Sala gitarra-joleak dihardu, eta haiek emango diote amaiera Kooltur ostegunei.

## Maider Arregi oñatiarra da Plazatik Gaztetxera sariketan gelditzen den debagoiendar bakarra

Aitzol Iturbe antzuolarrak, Unai Aranzabal bergararrak eta Paula Amilburu aramaioarrak ezin izan zuten aurrera egin Bergarako kanporaketan.

Zortzi bikote gelditzen dira, bi finalerdietan banatuko direnak. Bihar, zapatua, Deban jokatuko dute lehen finalaurrekoa. Bertan izango da Maider Arregi oñatiarra, Gemma Urteaga bikotekidearekin. Beste finalerdia maiatzaren 7an jokatuko da, Markina-Xemeinen. Finala maiatzaren 21an izango da, Mutrikun.

## Yllana antzerki taldeak 'The Gagfather' lana taularatuko du Santa Ana antzokian

Zinema beltzari keinu eginez, gangsterren istorioa kontatuko da umorez

**IMANOL BELOKI** | OÑATI

Madrildik datorren Yllana antzerki konpainiak mota ezberdinetako ikuskizunak egiten ditu, baina gaurkoan umore beltzez betetako antzerkiarekin izango da Oñatin, beraien estiloan barneratuta duten keinu kodea erabiliz.

Oñatiko Santa Ana aretoan *The Gagfather* lana taularatuko dute gaur, ongiaren eta gaizkiaren hausnarketa bat eginez, eta, bide batez, hainbat pelikulari omenaldi eginez; *Aitajauna*-ri esaterako. Luis Cao, Fidel Fernandez, Juan Fran Dorado eta Jony Eliasek antzeztutako obran, pertsonai ezberdinak interpretatuko dituzte, eta arropa aldaketa konstantea egingo dute. Emanaldia 22:30ean izango da eta sarrerak hamar euro balio du. Nahi duenak aurrez erosi ahal izango du sarrera, *bibe.me* webgunean.



Poliziak mafiosoa harrapatzen saiatzen. | PEPE H

**Zinema beltza, umorez**

Zinema beltzari keinu eginez, gangsterren istorio bat kontatuko da, umore beltzez betetako egoera zoroen bidez. Gangster talde batek hiria izutuko du. Pailazo maskarekin jantzita doaz, eta, drogekin trafikatzen duten bitartean, polizia burugabeak eurak geldiarazten saiatuko dira.

Era guztietan saiatuko da polizia gaizkileak harrapatzen, baina ondorio jostagarriak izango dituzte pertsekuzioan.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** Santa Marina kalean 55 metro koadroko etxebizitza salgai. Hirugarren solairuan. Gela guztiak kalera begira. Egongela, sukaldea, komuna eta bi logelakoa. Sotoa ere badu. 605 70 98 60 edo santamaina10@gmail.com

**Bergara.** 190 metro koadroko duplexa salgai. Lorategia, baratzea eta garajea dauzka. 678 47 43 52 edo 943 76 50 97

### 102. EROSI

**Baserria.** Baserria errentan hartu edo erosiko genuke. 661 22 76 83

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Zerrajera kalean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logelakoa. Igogailua eta garajea. 635 73 27 74

**Eskoriatza.** Etxebizitza guztiz jantzia ematen da errentan. Sukalde, bi bainugela, egongela eta hiru komun. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 77 51 65

**La Pineda (Tarragona).** Uztailean eta abuztuan etxebizitza ematen da erremntan. Asteka edo hamabostaldika alokatu daiteke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650 58 66 99

**Pineda (Tarragona).** 65 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Terraza handia eta altzariz hornitua, igerilekua eta garajearekin. Hondartzatik 200 metrora. Urte osorako edo uda sasoirako. Asteko, hamabost eguneko eta hilabeteko tarifak. Harremanetarako, deitu 634 42 13 70 zenbakira edota idatzi posta elektronikoa honako helbidera: oskar.carrascal@gmail.com.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Bertako bikotea, Aretxabaletan etxebizitza bila. Logela batekoa, bikoa edo hirukoa. 664 545 377

**Arrasate.** Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. 634 14 36 65

**Bergara.** Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Hilean 350-400 euro ordain ditzaket. Berdin da altzaririk ez badago. 632 77 35 38

### 105. ETXEAK OSATU

**Bergara.** Neska gaztea logela bila, etxe konpartituan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 673 90 69 74

**Logela errentan Oñatin.** Logela ematen da errentan erdigunetik oso gertu dagoen duplex berri batean. Pertsona arduratsua eskatzen da. Wifi konexioarekin. 656 74 29 49

## 2. GARAJEAK

### 204. ERRENTAN HARTU

**Antzuolan garajea.** Antzuolan garaje baten bila ari gara errentan hartzeko. Deitu zenbaki honetara: 676 61 15 47

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Antzuola.** Bost urteko bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko Antzuolako edo Bergarako emakume bat behar da. Esperientzia baloratuko da. 606 27 87 47 edo 606 26 71 53

**ARRASATE**
Esperientziadun ile-apaintzailea behar da.
943 79 79 65

**Aretxabaleta.** Pertsona bat behar dugu ostiraletik domekara bitartean, gauetan, 21:00etatik 8:00ak arte, adineko bi pertsonekin egoteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 649 52 75 63

### 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Bergara.** Neska arduratsua gertu etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 85 44 78

**Arrasate.** Emakume euskalduna prest lan egiteko: pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko, umeak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 66 76 91

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 04 17 30

**Arrasate.** Neska arduratsua, lege paperak dituena, garbiketan aritzeko edo nagusiak zaintzeko lan bila. Orduka, gauez zein asteburuetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 14 71 34

**Arrasate.** Neska gertu zerbitzari lanetan aritzeko. Baita nagusiak zaintzen, garbiketan eta abarrean ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 09 37 90 (Eva)

**Bergara.** Emakumezkoa prest asteburuetan eta jaiegunetan nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 75 41 32

**Bergara.** Neska gertu bulego eta lokalak garbitzeko eta nagusiak lagundu edota afariak gertatzeko. 610 34 97 88

**Bergara.** Neska gertu etxe garbiketak egiteko orduka. Ordua 7 euroan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 25 38 64

**Debagoiena.** Asteburuetan nagusiak zainduko nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 687 36 02 86

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Lege paperak eta erreferentzia onak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 96 81 63

**Debagoiena.** Emakumea orduka etxeko lanak egiteko gertu. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 77 35 38

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile titulua duen neska zaintza lanetarako gertu. Esperientzia dut eta erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 620 23 58 15

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten, egun erdiz zein orduka lan egingo nuke ume eta nagusiak zaintzen. 632 46 17 94

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin eta ume zein nagusiak zaintzeko gertu nago. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 02 45 80

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan edo nagusi eta umeak zaintzen lan egingo nuke, orduka, ordutegi malguarekin. 681 37 60 13

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Artzamendi, 74 m², 3 logela, lurra berria eta margotu berri, garajea barne. 210.000€.
- Aranerreka, 85 m², 3 logela, Berriztuta. Ez du obra beharrik. 175.000€.
- Bolu, 113 m², 4 logela, igogailua eta trastelekua. 210.000€. Bi garaje aukeran.
- Irizar pasealekua, 87 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 190.000€.
- Matxiategi, 72 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 170.000€. Ez du obrarik behar.
- Lizaria, 50 m², 2 logela, Eraikuntza berria. Garajea barne. 197.000€. Eguzkitsua.
- Zabalotegi, 79 m², 3 logela, igogailua, eguzkitsua. Ez du obrarik behar. 165.000€.
- Artzamendi, 75 m², 3 logela, trastelekua eta garajea. 153.000€. Ez du obrarik behar.
- Aranerreka, 80 m², 3 logela, trastelekua, igogailua. 130.000€. Garajea aukeran.
- Madura, 65 m², 4 logela, bi balkoi. 110.000€. AUKERA ONA.
- Bidekurutzeta, 130 m², 4 log, 320.000€. Terraza, igogailu, patioa.
- Ernai, 52 m², atikoa, 2 logela eta terraza handia. Etxebizitza tasatua. 178.000€.
- Espoloia, 95 m², 3 logela. Trastelekua. 200.000€ Garajea aukeran. 25.000€.
- Koldo Eleizalde, 74 m²+30 m² ganbara, duplexa egiteko aukera 170.000€.
- Koldo Eleizalde, 76 m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000€. NEGOZIAGARRIA.
- Koldo Eleizalde, 87 m², 3 logela, Fatxada berriztuta. 199.000€. PREZIO JAITSIERA.
- Simon Arrieta, 68 m², 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 130.000€.
- Simon Arrieta, 82 m2, 3 logela. Igogailuarekin. 160.000€.
- Zubieta, 125 m², terraza eta 2 orturekin. Bi etxe egiteko aukera 192.000€.
- San Pedro, 90 m², 4 logela. 95.000€. AUKERA ONA.
- San Antonio, 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000€.
- Zubiaurre, 60 m², 2 logela, trastelekua eta igogailua. 98.000€. AUKERA ONA.
- Ibarra, 62 m², 3 logela. Trastelekua. 86.000€. PREZIO JAITSIERA. AUKERA ONA.

**ANGIOZAR:**
- Etxebizitza 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000€.
- Baserria 233 m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko baimenarekin. 250.000€.
- Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena hornitua eta martxan.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 61 m². 3 logela eta trasteroa. BERRIZTEKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 70 m². 2 logela eta igogailua. 62.000€. AUKERA BIKAINA.

**ANTZUOLA:**
- Sagasti, 88 m², 3 logela. Terrazarekin. Ez du obrarik behar. 225.000€. Garajea aukeran.
- Buztin-zuri, 65 m², 2 logela. Ez du obrarik behar. 180.000€. Garajea aukeran.
- Errekalde, 78 m², 3 logela, Berriztua. 130.000€. Garajea aukeran.
- Ibarrondo, 90 m², 3 logela. Trastelekua, eguzkitsua. 190.000€. Garajea barne.
- Kalebarren, 85 m², 3 logela, igogailua. 180.000€.

**ELGETA:**
- San Roke, etxebizitza, lokala, ganbara eta garajea. Dena eraikuntza batean.
- Gudarien Bidea, 75 m², berrizteko. 72.000€ AUKERA BIKAINA.
- Torrealdea, 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**IZPI ALAIA ILE-APAINDEGIA**
Esperientziadun pertsona behar da, denbora batez ile-apaindegiaz arduratuko dena. Gero lanean jarraitzeko aukerarekin.
943 04 45 73 edo izpialaia@hotmail.es

**Debagoiena.** Garbiketak, nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka edo egun osoz. 638 85 43 36

**Debagoiena.** Geriatriako titulua duen neska prest orduka lan egiteko. Etxeetan lan egiteko ere bai, orduka. Eskarmentu handia. Autoa daukat. : 600 00 51 60

**Debagoiena.** Gizona gertu orduka pertsona nagusiak zaindu, kalera irtetzen lagundu eta abarretarako. 634 09 55 46

**Debagoiena.** Gizona gertu pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeko mantentze lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 14 36 65

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu: garbiketak, banaketak edo denetariko lanak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

**Debagoiena.** Mutil arduratsua gertu nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko zein bestelako lanetarako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 42 92 16

**Debagoiena.** Mutila garbiketa lanetarako eta nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo egun osoz. Baita asteburuetan ere. 634 07 99 70

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta sukaldean ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 01 74 66 (Cristino)

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 30 12 37 (Arelis)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia daukat. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Autoarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660 90 51 50 (Argelis)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, garbiketak egiten eta abarrean lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 35 54 96 (Carmen)

**Debagoiena.** Nagusien zaintza eta denetariko lanak egiteko prest dagoen gizonezko arduratsua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 42 92 61

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu orduka garbiketan eta nagusi zein umeen zaintza lanetan jarduteko. 688 81 48 24

**Debagoiena.** Neska arduratsua ume eta nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 81 54 08

**Debagoiena.** Neska arduratsua ume eta nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 81 53 35

**Debagoiena.** Neska espainiarra gertu nagusiak zaintzeko, egunez edo gauez. Etxeak, atariak eta tabernak garbitzen ere arituko nintzateke. Esperientzia dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 45 83 80

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 81 54 93

**Debagoiena.** Neska gertu egunez edo orduka garbiketa eta zaintza lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 64 98 53

**Debagoiena.** Neska gertu garbikerak egin, nagusiak zaindu eta abarretarako. Txarkuterian ere lan egingo nuke. Orduka edo jardun osoz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 61 89 96 (Mari)

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 603 29 94 29 edo 685 57 54 33

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Ordutegi arazo barik. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 64 84 78

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen edo etxe, atari eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. Berehala hasteko gertu nago. 688 65 14 17

**Debagoiena.** Sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen edo garbiketak egiten aritzeko gertu nago. Orduka, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 64 85 64

**Debagoiena.** Zerbitzari moduan, nagusi eta umeak zaintzen edo denetariko garbiketa lanetan arituko nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 29 11 23

**Emakumea lanerako prest.** Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko edo etxeko garbiketak egiteko prest. Aretxabaleta eta inguruak. 632 44 92 85 edo 665 21 38 21

**Erizain laguntzailea.** Neska euskalduna, erizain laguntzaile tituluarekin eta esperientziaduna, lan bila. 10:30etik 16:30era edota 18:30etik aurrera lan egiteko aukera. Umeak edo nagusiak zaintzen. Gida baimena eta autoa dauzkat. 617 20 59 43

**Lana.** Umeak eta nagusiak zaintzen esperientzia daukat. Tabernako zerbitzari moduan, gozoki dendan eta urdaitegian ere bai. Presazkoa da. Eskerrik asko. 676 44 85 58

**Lana.** Zerbitzari moduan, sukalde, atari eta abarrak garbitzen, nagusi zein umeak zaintzen lan egingo nuke. Dendari moduan aritutakoa naiz. Presazkoa da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 676 44 84 48

**Oñati, Arrasate edo Bergara.** Haur Hezkuntzako ikasketak dituen emakumea arratsaldetan haurrak zaintzeko edo orduka garbiketa lanak egiteko prest. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 664 53 28 56

**Oñati.** Nagusiak eta haurrak zaintzen edo etxeak garbitzen lan egingo nuke. Esperientzia handia daukat. Ordutegi aldetik ez daukat arazorik. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 627 18 04 35 edo 943 08 23 99

**Ume zaintza.** Neska bergararra umeak zaintzeko prest. Ordutegi malgua eta lanerako gogo handia. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 648 00 25 66 edo 943 76 07 99

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**BMW 650 GS.** 798c.c. eta 72CV. 2008 urtekoa. 9.500 kilometro. Kubierta eta bateria berriak, ABS, erdiko kabailetea, kaskoa eramateko kaxarekin. Kolore urdina. Oso egoera onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 664 49 64 78

### 602. EROSI

**T4 westfalia.** 1999 urte inguruko T4 westfalia (sukaldeduna) erosiko nuke, 2.5TDI motorduna eta ondo zaindua. Ez dut astakeriarik ordainduko. Eskerrik asko. 660 43 64 29

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Arratoi txakurkumeak.** Arratoi txakurkumeak ematen dira opari. Ondo ikasitakoak. Ondo zainduko dituenari emango dizkiogu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 75 86 49

**Katakumeak.** Hilabeteko katakumeak ematen dira opari. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615 73 68 07

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Aramaio.** Zabola auzoan 4.800 metro koadroko lursaila salgai. Errepide ertzean. Aldapatsua. 20.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 609 44 95 91 edo 663 94 75 77

**Lursaila Aretxabaletan.** 1.000 metro koadroko landa -lursaila salgai Etxebarri auzoaren atzealdean. Bista paregabeak eta herritik gertu. Prezioa merkatua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 76 34 40

### 805. TRUKATU

**Zaldiendako lursaila.** Zaldiak bertan izateko moduko lursail bila ari naiz. Trukean, lursaila garbi mantenduko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697 41 66 24

### 806. GALDU

**Argazki kamera Arrasaten.** Martxoaren 27an, domeka, argazki kamera galdu genuen Monterron inguruan, Kondekuako eserlekuetan. Nikon etxekoa da eta maleta beltz baten zegoen objektiboekin batera. Balio sentimental handia du. Aurkitu baduzu eskertuko nuke telefono zenbaki honetara deitzea: 607 91 14 84

### 807. AURKITU

**Giltza aurkitu.** Apirilaren 1ean giltza bat aurkitu genuen Osintxun. Zurea bada, deitu zenbaki honetara: 699 32 22 45

### 808. BESTELAKOAK

**Lapurreta Bergaran.** Apirilaren 5ean, Ramon Maria Lili kalean (palmerara jaisten dan aldapan), Golf beltz bati kristala apurtu eta barruko poltsa ostu zuten. 15:00ak aldera izan zen. Mesedez norbaitek zerbait ikusi izan balu, jar zaitezte harremanetan telefono zenbaki honetan. Eskerrik asko. 618 41 76 25

## ZORION AGURRAK



BERGARA
**Intza Goiti Zubia**
Maiatzaren 3an, 6 urte. Zorionak Egoitzen, aitatxoren eta amatxoren partetik. Asko maite zaitugu!



ELOSU
**Nora Rebanal Pesos**
Maiatzaren 2an, 5 urte. Zorionak eta ondo pasatu eguna aitaita-amamen eta osaba Daviden partetik!



ARRASATE
**Izaro Prol Bilbao**
Maiatzaren 2an, 3 urte. Zorionak, Marisorgin! Txokolatezko muxu bat, Manuren, Izaskunen, Ametsen eta Ibairen partetik!



OÑATI
**Ion Arabaolaza**
Maiatzaren 1ean, 28 urte. Zorionak, Ion! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean!



BERGARA
**Irene Larrañaga Alvarez**
Maiatzaren 1ean, 9 urte. Zorionak etxekoen partetik!



ARRASATE
**June Dominguez Garai**
Apirilaren 30ean, 6 urte. Zorionak, polit hori! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Patxo handi bat, maite zaitugun danon partetik.



ARRASATE
**Aintzira Abasolo Zugasti**
Apirilaren 30ean, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure eguna eta disfrutatu. Familiaren eta lagun guztien partetik.



OÑATI
**Unax Gende Sanchez**
Apirilaren 30ean, 2 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean! Muxu handi bat aitatxoren eta amatxoren partetik! Asko maite zaitugu.



BERGARA
**Edith eta Aiur Arana**
Edithek apirilaren 29an, 5 urte eta Aiurrek maiatzaren 9an, 2 urte. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetziak eta muxu potolo bat familia osoaren partetik.



OÑATI
**Alaitz Madinagoitia Igarzabal**
Apirilaren 29an, 7 urte. Zorionak, Alaitz! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat danon partetik!



ARAMAIO
**Uxue Arana, Bittor Arana eta Aitor Arana**
Zorionak, hirukote! Aitite Bittorrek urteak bete zituen apirilaren 25ean, Uxuek apirilaren 29an, 10 urte beteko ditu eta Aitorrek, maiatzaren 2an beteko ditu. Muxu handi bat etxeko danon partetik eta prestatu domekan bazkari eder bat danondako!



ARRASATE
**Aimar Garcia Alvarez**
Apirilaren 29an, 2 urte. Zorionak familiaren eta, batez ere, Noraren partetik, eta oso ondo pasatu!



BERGARA
**Hur Bilbao Alvarez**
Apirilaren 28an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eta zorionak beti! Patxo handi bat etxeko danon partetik.



OÑATI
**Maia Igartua Zubia**
Apirilaren 28an, urtebete. Zorionak, potxola! Zure lehenengo urtebetetzea! Muxu handi-handi bat, familia osoaren partetik.



BERGARA
**Beñat Legazpia Molina**
Apirilaren 27an, 5 urte. Zorionak, Beñat, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna eta muxu pila bat, etxekoen eta, bereziki, Jonen eta Naroaren partetik.



ARAMAIO
**Ilare Agirre Errasti**
Apirilaren 27an, urtebete. Zorionak, polit hori! Zelako aguro pasatu dan lelengo urtetxue! Zurekin zoriontasunez betie! Eskerrik asko!



ANTZUOLA
**Iban Mendia Valor**
Apirilaren 27an, 6 urte. Zorionak! Oso-ondo pasatu zure urtebetetze egunean, eta tarta goxo-goxoa prestatu denok batera jateko! Jaso itzazu, familia osoaren partetik, sei txokomarrubizko muxu potolo-potoloak; berezienak, Aitanarenak!



ARRASATE
**Elaia Gonzalez**
Apirilaren 26an, 10 urte. Zorionak, maitia! Izugarri maite zaituen amatxoren partetik, ongi pasatu eguna eta muxu erraldoi bat!



ARRASATE
**Belen Bedia Egiluz**
Apirilaren 26an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako! Ondo-ondo pasatu eguna. Patxo handi bat, familixaren eta lagun danen partetik!



ARETXABALETA
**Aimar Akizu eta Begoña Uribetxeberria**
Aimarrek apirilaren 25ean, 4 urte eta Begoñak apirilaren 27an, 68 urte. Zorionak, bikote! Segi biok horrela, gure bihotzak alaitzen.



OÑATI
**Xabi Jausoro**
Apirilaren 25ean, 6 urte. Zorionak, Xabi! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Patxo erraldoi bat.



ARRASATE
**Unai Torres Valdes**
Apirilaren 24an, 3 urte. Zorionak zure osaba-izeba Mikel eta Vanessaren eta lehengusu Hugoren partetik. Oso ondo pasatu zure eguna. Asko maite zaitugu.



BERGARA
**Ekain Rodriguez Diaz de Zerio**
Apirilaren 24an, 6 urte. Zorionak, Ekain! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzian eta patxo handi bat etxeko danon partetik!



OÑATI
**Eneritz Gereñu Arregi**
Apirilaren 24an, 8 urte. Zorionak, Eneritz! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta pa potolo bat etxeko danon partetik!



ARETXABALETA
**Ekhi Louvelli Urrutia**
Apirilaren 23an, 8 urte. Zorionak, artista! Ondo pasatu zure egunian lagunen eta etxekuen onduan. Itoitz eta Ihintza.



ARETXABALETA
**Itoitz Louvelli Urrutia**
Apirilaren 23an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo opsatu zure eguna, ederto pasatuko dogu merixendan. Ekhi eta Ihintza.



ELGETA
**Igor Larrañaga Mandaluniz**
Apirilaren 23an, 3 urte. Zorionak zuri, zorionak beti, ... Urte askotarako! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bana aitatxoren, amatxoren eta Markelen partetik.



ARRASATE
**Beñat Iriarte**
Apirilaren 21ean, 6 urte. Zorionak, Beñat, eta muxu handi-handi bat Garaziren, amatxoren, aitatxoren eta familia guztiaren partetik! Ondo-ondo pasatu eguna eta jarraitu beti bezain jatorra. Asko maite zaitugu!



BERGARA
**Hegoi Gauna Iglesias**
Apirilaren 20an, urtebete. Etxea pozez eta irribarrez betetzen duzu egunero. Zorionak, maittia.



ARETXABALETA
**Elene Iztueta Etxenausia**
Apirilaren 18an, 4 urte. Urte askotarako, printzesa! Ondo-ondo ospatu zure laugarren urtebetetze eguna. Patxo handi bana Araitzen, Doltzaren eta Pauleren partetik.



BERGARA
**Laia Azkarate-Askasua Baleztena**
Apirilaren 18an, 7 urte. Zorionak, txapelduna! Patxo handi bat etxekoen eta, batez ere, Meiren eta Malenen partetik. Ederki pasatu genuen zure zazpigarren urtebetetzean. Segi horrela, alaia eta irribarrea ahoan duzula beti.



ARETXABALETA
**Nahia Fernandez Agirre**
Apirilaren 29an, 2 urte. Familiaren partetik, zorionak eta ondo-ondo pasatu eguna!!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## ASTEA GOIENAN


BAGARA HERRIGINTZA

### Debagoieneko lehen sektorea berbeta gai

Bagara Herrigintzak eta Artemanek ekoiztutako *Lurretik* saioa eskainiko da eguaztenean. Bertan, lehen sektorearen Debagoieneko egoera zein den erakutsiko da, batetik; eta, bestetik, etorkizunerako dituzten erronken berri ere emango da saioan.
**'Lurretik'**
Eguaztena, 22:00


GOIENA

### Antzuolako alkatea izango da 'Harira'-n

Beñardo Kortabarria izango da datorren asteko *Harira* saioko gonbidatua. Platoko galderei eta kalean, herritarren artean, jasotakoei erantzungo die Antzuolako alkateak. Herritarrek ere galderak bidaltzeko aukera izango dute saioan.
**'Harira'**
Martitzena, 22:00

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 29**
- **12:00** Debagoiena zuzenean
- **12:30** Erreportajea
- **13:00** Korapilo
- **13:30** Zaindu zaitez
- **14:00** Debagoiena zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Erreportajea
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Aizank!
- **18:00** Ur eta lur
- **18:25** Zorion Agurrak
- **18:30** Berriak
- **19:00** Kantari
- **19:30** Erreportajea
- **20:00** Debagoiena zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Osoko bilkura: Bergara
- **00:00** Debagoiena zuzenean
- **00:30** Berriak
- **01:00** Amaia DJ

**ZAPATUA, 30**
- **09:00** Kantari
- **09:30** Platopic
- **10:00** Korapilo
- **10:30** Kantari
- **11:00** Debagoiena zuzenean
- **11:55** Astea iruditan
- **12:00** Osoko bilkura: Bergara
- **14:00** Harira
- **15:00** Debagoiena zuzenean
- **16:00** Astea iruditan
- **16:05** Platopic
- **16:30** Kantari
- **17:00** Korapilo
- **17:30** Amaia DJ
- **18:00** Osoko bilkura: Bergara
- **20:00** Kantari
- **20:30** Amaia DJ
- **21:00** Harira
- **22:00** Debagoiena zuzenean
- **22:55** Astea iruditan
- **23:00** Galdegazte

**DOMEKA, 1**
- **09:00** Kantari
- **09:30** Platopic
- **10:00** Korapilo
- **10:30** Kantari
- **11:00** Galdegazte
- **11:30** Amaia DJ
- **12:00** Harira
- **13:00** Debagoiena zuzenean
- **13:55** Astea iruditan
- **14:00** Osoko bilkura: Bergara
- **16:00** Platopic
- **16:30** Kantari
- **17:00** Korapilo
- **17:30** Debagoiena zuzenean
- **18:25** Astea iruditan
- **18:30** Galdegazte
- **19:00** Harira
- **20:00** Kantari
- **20:30** Debagoiena zuzenean
- **21:25** Astea iruditan
- **21:30** Osoko bilkura: Bergara
- **23:30** Osoko bilkura: Bergara
- **23:30** Debagoiena zuzenean
- **00:25** Astea iruditan
- **00:30** Amaia DJ

**ASTELEHENA, 2**
- **12:00** Debagoiena zuzenean
- **13:00** Korapilo
- **13:30** Debagoiena zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Amaia DJ
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Aizank!
- **18:00** Platopic
- **18:30** Berriak
- **19:00** Kantari
- **19:30** Amaia DJ
- **20:00** Debagoiena zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Harmailatik
- **22:30** Osoko bilkura: Oñati
- **23:30** Debagoiena zuzenean
- **00:00** Berriak
- **00:30** Amaia DJ
- **01:00** Debagoiena zuzenean
- **01:30** Berriak
- **02:00** Harmailatik

**MARTITZENA, 3**
- **12:00** Debagoiena zuzenean
- **12:30** Harmailatik
- **13:00** Osoko bilkura: Oñati
- **13:30** Kantari
- **14:00** Debagoiena zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Harmailatik
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Zaindu zaitez
- **17:30** Geure altxorrak
- **18:00** Bertso saioa
- **18:30** Berriak
- **19:00** Korapilo
- **19:30** Harmailatik
- **20:00** Debagoiena zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Harira
- **23:00** Debagoiena zuzenean
- **23:30** Berriak
- **00:00** Harmailatik
- **00:30** Debagoiena zuzenean
- **01:00** Berriak
- **01:30** Harira

**EGUAZTENA, 4**
- **12:00** Debagoiena zuzenean
- **12:30** Harira
- **13:30** Korapilo
- **14:00** Debagoiena zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Bertso saioa
- **15:25** Hurbilean
- **16:00** Geure altxorrak
- **16:30** Berriak
- **17:00** Zaindu zaitez
- **17:35** Osoko bilkura: Oñati
- **18:30** Berriak
- **19:00** Harira
- **20:00** Debagoiena zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Erreportajea: Lurretik
- **22:30** Debagoiena zuzenean
- **23:00** Berriak
- **23:30** Harira
- **00:30** Debagoiena zuzenean
- **01:00** Berriak

**EGUENA, 5**
- **12:00** Debagoiena zuzenean
- **12:30** Erreportajea: Lurretik
- **13:00** Platopic
- **13:30** Kantari
- **14:00** Debagoiena zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Erreportajea: Lurretik
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Hurbilean
- **17:30** Harira
- **18:30** Berriak
- **19:00** Korapilo
- **19:30** Erreportajea: Lurretik
- **20:00** Debagoiena zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Bertso saioa
- **22:30** Debagoiena zuzenean
- **23:00** Berriak
- **23:30** Erreportajea: Lurretik
- **00:00** Debagoiena zuzenean
- **00:30** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### Mendi Film Festival hizpide izango da asteleheneko saioan

Martitzenean Amaia antzokian proiektatuko dira, aurten bosgarren aldiz, Mendi Film Festivaleko ikus-entzunezkoak, Besaiderekin eta Udalarekin elkarlanean. Jaialdiaren nondik norakoen berri emango digu ekimeneko bultzatzaileak *Igo autobusera!* irratsaioan 11:00etan.

### Kontzerturako eta haur antzerkirako sarrerak zozketan

*Kooltur Ostegunak* barruan, eguenean gaztetxean izango da, 22:00etan, Juantxo Skalari. Maiatzaren 8an, 17:00etan, Amaian, haurrendako antzerki *Pinocchio* eskainiko da. Horietarako sarrerak lortzeko hartu parte zozketan 943 25 05 05era deituta edo *irratia@goiena.eus*-era idatzita.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 29** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea, 38 | 943 77 16 30 |
| **Zapatua, 30** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea, 1 | 943 79 15 15 |
| **Domeka, 1** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **Astelehena, 2** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea, 1 | 943 79 22 26 |
| **Martitzena, 3** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Eguaztena, 4** | AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Eguena, 5** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 29** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Zapatua, 30** | OIARBIDE | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Domeka, 1** | OIARBIDE | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Astelehena, 2** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Martitzena, 3** | ALVAREZ MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| **Eguaztena, 4** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Eguena, 5** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 29** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Zapatua, 30** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Domeka, 1** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Astelehena, 2** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Martitzena, 3** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Eguaztena, 4** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Eguena, 5** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |

**Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA


Max. 15º
Min. 3º

**ZAPATUA, 30**
Hodei bakan batzuk izango dira, baina giro eguzkitsua nagusituko da. Egunak aurrera egin ahala, euria egin dezake.


Max. 17º
Min. 5º

**DOMEKA, 1**
Ez da espero euririk egitea, eta, tenperatura zertxobait igotzea espero den arren, zeruan laino ugari izango dira orokorrean.

### EUSKAL HERRIA




## GAZTE INFORMAZIOA

### LANA

**Gizarte zerbitzuetako burua.** Azkoitiko Udala. Baldintzak: Gizarte laguntzaileari dagokion titulazioa, Gizarte Lanean diplomatura edo Gizarte lanean gradua edukitzea , Euskara: 3. HE. Epea: maiatzak 8.

**Administrari laguntzaileen lan poltsa.** Ubideko udala. Baldintzak: LHI edo Erdi Mailako Heziketa Zikloa administrazioa eta kudeaketa familiakoa, euskara 2. HE. Epea: maiatzak 5.

**Irakurleak.** Etxepare Euskal Institutua. Euskara eta euskal kulturako 5 irakurle. Baldintzak: unibertsitateko gradua edo lizentziatura izatea (lehenetsiko dira Euskal Filologia, Euskal Ikasketak edo Itzulpengintza eta Interpretazioa). Lekuak: Txile, Britainia Handia, Kuba, Baiona, Txekiar Errepublika. Azken eguna izango da: maiatzak 6.

**Hainbat.** Donostiako Nazioarteko Zinemaldia. Bi deialdi: boluntarioentzako eta lan poltsa profesionalak osatzeko. *http://www.sansebastianfestival.com/bidali_zure_cva/1/4226/eu.*

### BEKAK

**Izangozara.** Prestakuntza bekak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gazteen bikaintasuna sustatu nahi da arkitektura, moda, gastronomia, arteak, ondarea, zientzia, kirola eta lankidetza bezalako esparruetan. *www.izangozara.org.*

### UDAKO IKASTAROAK

**Hainbat.** EHUk urtero antolatzen dituen udako unibertsitateko eskaintza aurkeztu du. Epea: plazak bete arte.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate.eus
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

OROIGARRIA

## Fernando Amasorrain Zabala



2015eko apirilaren 28an hil zen.

*Maite izan zaitugunok, gogoan zaitugu, Fernando.*

**Bergaran, 2016ko apirilaren 29an.**

OROIGARRIA

## Aitor Garai Elorza

2016ko apirilaren 25ean hil zen, 50 urte zituela.

*Kurtzebarri Eskolako Aitor Garairen familia eta lagunak, atsekabean laguntzen ditugu.*

GURABARRI

**Kurtzebarriko Komunitatea.**
**Aretxabaletan, 2016ko apirilaren 29an.**

OROIGARRIA

## Aitor Garai Elorza



2016ko apirilaren 25ean, 50 urte zituela.

*Gure artean egon zarenean, lagun oso ona eta maitekorra izan zara. Bihotz-bihotzez, muxu handi bat, 'moreno'.*

**Zure lagunak: Ana eta Andoni, Virginia eta Arturo, Jaione eta Josean.**
**Aretxabaletan, 2016ko apirilaren 29an.**

URTEURRENA

## Melchor Errasti Astondoa



1936-01-06 / 2015-05-01

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 1ean, 13:00etan, Barajuengo Andra Mari elizan.

**Eskerrik asko, Artabeko familiaren izenean.**
**Aramaion (Barajuen), 2016ko apirilaren 29an.**


## OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*
*NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua*
*AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



***maribi 617 44 21 55***
***BERGARA***




**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun elkartea: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

# NON-ZER

APIRILA 29
MAIATZA 5

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**ARAMAIO 'Musika Jaialdixe'**
Manex Arriolabengoa eta Maria Izaga, Enbata taldea eta Sara Alonso Erain Debagoienaren eskutik. Sarrerak, hiru euro.
Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 20:00etan.

**ARRASATE Arrasate Musikal eta Goikobalu**
Udaberriko Musikaldiko emanaldia.
Gaur, egubakoitza, San Frantzisko elizan, 20:00etan.

**BERGARA 'Martxa kalera'**
Zumarragako eta Bergarako musika eskoletako Big Band taldeen emanaldia, Edorta de Pedro eta Angel Agiriano zuzendariekin.
Gaur, egubakoitza, Irala kalean, 19:00etan.

**OÑATI 'Herrixa kantuan'**
Txantxiku Ikastolaren eta Jose de Azpiazu musika eskolaren eskutik.
Bihar, zapatua, Foruen plazan, 12:30ean.

**ARRASATE Pirenaeus Consort**
Udaberriko Musikaldiko emanaldia.
Bihar, zapatua, parrokian, 20:00etan.

**BERGARA Tronpa emanaldia**
*Apirilean musika* egitasmoaren azken emanaldia.
Etzi, domeka, kaleetan, 13:00etan.

**ARRASATE Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarena**
Udaberriko Musikaldiko azken emanaldia.
Etzi, domeka, Kulturaten, 20:00etan.

## ANTZERKIA

**OÑATI 'The Gagfather'**
Zinema beltzari omenaldia egiten dio Yllana taldeak. Gangster talde batek izututa dauka hiria. Haren atzetik, polizia talde bat. Denen artean askotariko egoerak biziko dituzte. Sarrerak, hamar euro.
Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 22:30ean.

## ERAKUSKETAK

**ANTZUOLA 'Kapulana bat zintzilik'**
Mundukideren 15. urteurreneko erakusketa bihar zabalduko dute.
Maiatzaren 1era arte, Olaranen, 18:30ean.

**LEINTZ GATZAGA 'Kapulana bat zintzilik'**
Mundukideren 15. urteurreneko argazki erakusketa. Maiatzaren 2an zabalduko dute.
Maiatzaren 6ra arte, kultura etxean.

**BERGARA Pello Alberdi**
Pinturak ikusi ahal izateko azken egunak.
Maiatzaren 1era arte, Aroztegin, 18:00etan.

**ARRASATE 'Rockomikiak'**
Egile ezberdinen lanak. Gasteiz eta Donostian geldialdia egon ostean heldu da Arrasatera erakusketa, baina oraingoa bereziagoa da; izan ere, hainbat arrasatearrek euren obrekin aberastu dute. Diskoen azalak, komikiak eta fanzineak ikus daitezke.
Hilaren 30era arte, Kulturaten, 18:00ean.

## HITZALDIAK

**OÑATI 'Ustiapen eta garapen kognitiboa. Erritmo kognitiboak'**
Haurdun daudenendako eta 0-1 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako. Sarrera irekia izango da.
Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:00etan.

**OÑATI Sare elkartea**
*Giza eskubideen trena* delako ekimena partekatzeko eta ekarpenak jasotzeko batzarra egingo dute.
Bihar, zapatua, Eltzian, 11:00etan.

**ESKORIATZA 'Bizi baratzea, garaian garaikoa garaiz'**
Jakoba Errekondoren berbaldia. Liburua aurkeztuko du lehenengo, eta ostean, landareei buruzko zalantzak eta galderak argitzeko –baratzea, lorategia, fruta-arbolak, basoa, etxe barrukoak eta kanpokoak– aukera izango da.
Maiatzaren 3an, Zaldibarren, 18:30ean.

## GAZTELEKUAK

**ARRASATE San Andresko jaiak**
Askotariko ekintzak: 17:00etan mahai-futbol txapelketa eta aurpegia margotzeko tailerra, 18:30ean txokolate-jana eta 19:30ean buruhandiak. Eguraldi txarra egiten badu, Gudarien plazan egingo dituzte ekintzak.
Gaur, egubakoitza, San Andresko gaztetxokoa, aipatutako orduetan.

**ARRASATE Askotariko ekintzak**
Gazteek erabakiko dute zer egin gura duten.
Bihar, zapatua, erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

**BERGARA 'Udaberri fest'**
Udaberriari ongietorria emateko apainketa lanak egingo dituzte aste bukaeran. Zapatuan, parrillada egingo dute.
Aste bukaeran, Xabaloten.

**ARRASATE Itxita**
Maiatzaren 1a izanik, itxita egongo dira gazte txokoak.
Etzi, domeka.

**BERGARA Itxita**
Maiatzaren 1a izanik, itxita egongo da gaztelekua.
Etzi, domeka.

## DANTZA

**OÑATI Helduen Dantzari Eguna**
Arrasateko, Antzuolako, Aretxaletako eta Oñatiko dantzarien topaketa. 11:30ean kalejira egingo dute, eta 12:00etan eta 18:00etan alarde bana.
Bihar, zapatua, kaleetan eta Foruen plazan, aipatutako orduetan.

**ARETXABALETA Larrain dantza**
Maiatzaren 21ean egingo duten dantza lantzeko entsegua.
Maiatzaren 2an, udaletxe zaharrean, 18:30ean.

## UMEAK

**ELGETA Ipuin kontaketa**
Begoña Alabazanek euskarazko saioa egingo du 2-7 urte artekoendako. Sarrera doan.
Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:30ean.

## JAIAK

**OÑATI Olabarrieta auzoan**
Herriko musika taldeen rock kontzertua, bertsolaritza saioa, umeendako jolasak, pilota txapelketa, Gaitzerdi taldearen erromeria, meza, luntxa eta beste hainbat ekintza egingo dituzte.
Gaurtik domeka arte

ULMA — ULMA Hormigon Polimero, S. Coop. — Oñati

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**
**D E I ALDIA**

**Eguna:** 2016ko maiatzaren 6a
**Ordua**: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
**Tokia**: MU-Enpresagintzako auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

**GAI ZERRENDA**

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2015eko ekitaldiko gestio soziala aztertzea, eta, onartzea hala badagokio, eta 2016ko gestio plana berrestea hala badagokio
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2015eko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
   4.1. 2015eko ekitaldiko banakako urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
   4.2. 2015eko ekitaldiko urteko kontu bateratuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
5. Auditorea berrautatzea
6. Kapitalaren ordainketa. 2015eko ekitaldiari dagozkion interesen sortzapena
7. 2015eko ekitaldiko emaitzak banatzea
8. POGU III eta Kooperatibaren Barne Araudiko 42. artikulua aldatzea, dagokionean, egoera berezietan interesak sortzeari dagokionez
9. Mondragon Inversiones, S. Coop.en desinbertsioa
   9.1. Dibisioko hedapen fondo bat sortzeko erabakia eta ondorioz Mondragon Inversiones, S. Coop.en baja hartzea
   9.2. Bigarren mailako sozietate kooperatibo bat eratzea, bere estatutu sozialak onartuz
10. Heziketa eta Kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
    10.1. 2015ean IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua
    10.2. 2016an IPDK-k aplikatzeko proposamena
11. Bazkide berrien kapitalera ekarpenak
12. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
    12.1. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipenaren bilakaera eta itxiera
    12.2. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
13. Kontseilu Errektoreko lehendakaria izendatzea
14. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
15. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
16. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
17. Ahalmenak eskuordetzea
18. Galde-eskeak

**OHARRAK**: Bazkideei gogorarazten zaie ULMA Hormigón Polímero, S. Coop.eko (aurrerantzean, "Kooperatiba") sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.
Era berean, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela (I) proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketen testu osoak eta doan emateko edo bidaltzeko eska ditzaketela; eta (II) "Etorkizuneko MONDRAGON" ponentziari MONDRAGONeko Kongresu Arauen onespen-proposamenaren testua, 2016ko martxoaren 18an MONDRAGONeko Kooperatiba elkartuei jakinarazitako idazkerarekin. Hau guztia, jakinaren gainean izateko Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 9.1 puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan.
Azkenik, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela ere, eratzea proposatzen den Bigarren mailako kooperatibaren estatutu sozialak, jakinaren gainean izateko Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 9.2 puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2016ko apirilaren 22a

ULMA — ULMA Agricola, S. Coop. — Oñati

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**
**D E I A L D I A**

**Eguna**: 2016ko maiatzaren 5a
**Ordua**: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
**Tokia**: ULMA Taldeko auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

**GAI ZERRENDA**

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2015eko ekitaldiko gestio soziala aztertzea, eta, onartzea hala badagokio, eta 2016ko gestio plana berrestea hala badagokio
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2015eko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
5. Auditorea berrautatzea
6. Kapitalaren ordainketa. 2015eko ekitaldiari dagozkion interesen sortzapena
7. 2015eko ekitaldiko emaitzak banatzea
8. POGU III eta Kooperatibaren Barne Araudiko 42. artikulua aldatzea, dagokionean, egoera berezietan interesak sortzeari dagokionez
9. Mondragon Inversiones, S. Coop.en desinbertsioa
   9.1. Dibisioko hedapen fondo bat sortzeko erabakia eta ondorioz Mondragon Inversiones, S. Coop.en baja hartzea
   9.2. Bigarren mailako sozietate kooperatibo bat eratzea, bere estatutu sozialak onartuz
10. Heziketa eta Kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
    10.1. 2015ean IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua
    10.2. 2016an IPDK-k aplikatzeko proposamena
11. Bazkide berrien kapitalera ekarpenak
12. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
13. Ahalmenak eskuordetzea
14. Galde-eskeak

**OHARRAK**: Bazkideei gogorarazten zaie ULMA Agrícola, S. Coop.eko (aurrerantzean, "Kooperatiba") sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.
Era berean, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela (I) proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketen testu osoak eta doan emateko edo bidaltzeko eska ditzaketela; eta (II) "Etorkizuneko MONDRAGON" ponentziari MONDRAGONeko Kongresu Arauen onespen-proposamenaren testua, 2016ko martxoaren 18an MONDRAGONeko Kooperatiba elkartuei jakinarazitako idazkerarekin. Hau guztia, jakinaren gainean izateko Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 9.1 puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan.
Azkenik, bazkideei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela ere, eratzea proposatzen den Bigarren mailako kooperatibaren estatutu sozialak, jakinaren gainean izateko Kooperatibaren Batzar Nagusiaren 9.2 puntuko erabaki proposamena onartzeko orduan.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2016ko apirilaren 22a



ESKEAN KRISTO

**ARRASATE Eskean Kristo eta La Banda Del Abuelo**
Kooltur Ostegunak ekimenak bat egin du AGAKO-ren 25. urteurreneko ekitaldiekin. Rock eta hard-rock doinuak izango dira nagusi. Sarrerak, bost euro.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

**BERGARA Labegaraietako jaiak**
Mozorro desfilea, kros lasterketa, triki-poteoa, Arno DJarekin dantzaldia, mus txapelketa eta Labegaraietako txirrindularitza lasterketa egingo dituzte, besteak beste.
Zapatuan eta domeka, Labegaraietan.

## OSPAKIZUNAK

**ESKORIATZA Debagoieneko IV. Artzain Eguna**
Tailerrak, dastaketak, haurrentzako jolasak eta *Debagoieneko Pastoriek* argazki lehiaketako sari banaketa egingo dira, besteak beste.
Etzi, zapatua, Eskoriatzan, 10:00etan.

**OÑATI Arantxen IX. topaketa**
11:00etan penitentzia ospakizuna, 12:00etan meza basilikan, 13:00etan talde argazkia eta 14:00etan bazkaria. Ostean, dantzaldia egingo dute.
Etzi, domeka, Arantzazun, aipatutako orduetan.

**ESKORIATZA Atxorrotx Eguna**
09:00etan txistulariak, 09:30ean igoera hasiko dute eta 11:00etan meza. Atxorrotxen egindako tortillak 18:00etan salduko dituzte Fernando Eskoriatza plazan.
Etzi, domeka, aipatutako lekuetan eta orduetan.

## IKUS-ENTZUNEZKOA

**ARRASATE 'Menditour'**
*Aiba! mendi martxa*, *High and migthy*, *The warmth of winter* eta *Jeff lowe´s metaiona* pelikulak emango dituzte. Sarrerak, bost euro.
Maiatzaren 3an, Amaia antzokian, 19:30ean.

## IKUSKIZUNAK

**ARETXABALETA Bakarrizketa saioa**
Ion Martinez *Txiki*-k bakarrizketa saioa egingo du Erain Debagoienaren sinadura batzea girotzeko.
Gaur, egubakoitza, Pagaldaixenean, 18:30ean.

**BERGARA David Navarro**
Umorezko bakarrizketa egingo du. Aurkezlea Kike Biguri izango da. Sarrerak, zortzi euro.
Bihar, zapatua, Zabalotegin, 20:00etan.

## BESTELAKOAK

**ELGETA Gaztetxean batzarra**
Etorkizunaren inguruan berba egingo dute.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:30ean.

**ELGETA Erretiratuen irteera**
Egun osoko irteera Ordiziako azokara eta Donostiara. Aginagako sagardotegian bazkalduko dute.
Maiatzaren 4an, Mendizaleen plazan, 09:00etan.

## LITERATURA

**ESKORIATZA Literatur solasaldia**
Susan Sontagen *Ante el dolor de los demás* liburuaren gaineko tertulia egingo dute, gazteleraz.
Maiatzaren 5ean, kultura etxean, 18:00etan.

## IKASTAROAK

**ARRASATE 'Nordic walking'-a**
Hankei ez ezik, besoei eta gorputzaren goiko alde osoari eragiten dion ibiltzeko modua da. Bi makila behar dira. Materiala Musakolan banatuko dute. Kiroldegiko ikastaroetako erabiltzaileendako.
Gaur, egubakoitza, Musakolan, 17:00etan.

**ELGETA Dinamizatzailea KZgunean**
Askotariko ikastaroak egiteko aukera izango dute erabiltzaileek. Era berean, dituzten zalantzak argitu eta kontsultak egin ahal izateko, tutorearen bisita izango dute.
Maiatzaren 4an, KZgunean, 16:00etan.

**OÑATI Entrenamendu funtzionala**
Tailerrean teoria eta praktika landuko dituzte. Aurrez eman behar da izena: kiroldegiko bazkideek doan eta gainerakoek bost euro ordainduta.
Bihar, zapatua, Zubikoan, 10:00etan.

**OÑATI Fenologia**
Klimak eta urtaroen gorabeherek izaki bizidunetan duten eragina aztertzen duen zientzia da. Beraz, naturaren behaketa eta interpretazioa izango dira jardunaldi honen ardatz nagusia, udaberri honetako aldaketa fenologikoetan oinarrituta. Pello Zabalaren eskutik. Aurrez izena eman behar da: *arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net* helbidean edo 943-78 28 94 telefonoan.
Apirilaren 30a, zapatua 10:30etan

**OÑATI 'K-stretch'-a**
Hamakaren sortzaile Danilo Barzioren tailerra gazteleraz. Luzaketak ondo egiten ikasteko aukera. Kirolarientzat, postura hobetu gura dutenentzat eta bizkarreko mina dutenentzat, besteak beste. Doan.
Bihar, zapatua, Zubikoan, 18:00etan.

**BERGARA Erretzen uzteko**
Bergarako anbulatorioan ikastaroa egingo dute, maiatzaren 26an hasita. Guztira, bost saio egingo dituzte, doan.
Izen-ematea, aipatuko lekuan.

**BERGARA Larrain dantza**
Maiatzaren 24tik ekainaren 28ra arte egingo dute ikastaroa, martitzenetan, 19:00etatik 20:30era arte. Eneko Galdos dantzaria izango da irakaslea. Izena emateko epea maiatzaren 10ean bukatzen da: 943-76 57 80 telefonoan edo *idazkaritza@bme.e.telefonica.net* helbidean.
Izen-ematea, aipatuko lekuan

## IZEN-EMATEA

**OÑATI Parisera eta Londresera bidaia**
Ekainaren 29tik uztailaren 9ra egingo dute Pake Lekuko erretiratuek. Izena emateko egunak maiatzaren 3a eta 4a dira, erretiratuen egoitza, 18:00etatik 20:00etara.
Izen-ematea aipatutako egunetan, lekuan eta orduan.

**ARRASATE Umeen danborrada**
Apirilaren 25ean zabalduko dute izen-ematea. Hurrenkera errespetatuko dute lekuak banatzeko orduan. Pertsona bakoitzak, gehienez, hiru umeren izenak eman ahal izango ditu. SUDCen bulegoan egongo dira arduradunak, egunero, 16:30etik 18:00etara arte.
Izen-ematea, aipatutako lekuan.

## LEHIAKETA

**BERGARA 'Bergara Hiria'**
*Argizaiola* lehiaketarako baliagarria izango da. Gaia eta teknikak libreak dira. Lanak entregatzeko epea maiatzaren 18an bukatzen da, eta erabakia maiatzaren 21ean jakinaraziko dute. Ostean, erakusketa egingo dute. Lanak kultura etxean entregatu behar dira. Saritan, 1.320 euro.
Lanak entregatzeko, goian aipatutako lekuan eta egunean.

## TURISMOA

**LEINTZ GATZAGA Dorleta santutegia**
*Ezkutuko altxorrak* egitasmoaren barruan bisita gidatua egingo dute. Aldez aurretik izena eman behar da: *info@ignaziotarlurraldea.com* helbidean edo 943-79 64 63 telefonoan.
Etzi, domeka, Dorletan, 12:00etan.

## DEIA

**ARRASATE Curriculumak bidaltzeko azken eguna**
Txatxilipurdiren udalekuetan hezitzaile izan gura dutenendako azken eguna da gaur, egubakoitza. Bulegoan entregatu behar dira eskaerak.
Gaur, egubakoitza, bulegoan.

**ARRASATE Saskibaloiko campusak**
Ointxe! taldeak sanjuanetan egingo duen campuserako eta Orioko udalekuetarako deialdia egin du. Bietarako izen-emate epea maiatzaren 30era arte izango da. Sanjuanetako campusa ekainaren 26tik 30era izango da eta Orioko udalekuak uztailaren 11tik 16ra lehen txanda eta 18tik 23ra bigarrena. Informazio gehiago: 688 63 44 86 telefonoan.
Izen-ematea aipatutako bideak erabiliz.

## KIROLA

**OÑATI II. Buetraitzeko igoera bertikala**
Arantzazuko aparkalekuko amildegi azpitik hasita egingo dute. 2,7 kilometroko luzera du eta 727 metroko desnibela.
Gaur, egubakoitza, Arantzazun, 22:00etan.

**OÑATI Eskola kiroletik, mendi irteera**
Aloñako Igoera ikustera joango dira Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleak.
Etzi, domeka, Foruen plazan, 09:00etan.

**OÑATI Aloñako igoera**
XI. igoera egingo dute. Punta -puntako korrikalariek eta herrikoiek bat egingo dute 21 kilometroko lasterketan. Mendi tontorrera igo ostean, Kresterian barrena ibiliko dira korrikalariak.
Etzi, domeka, Foruen plazan, 09:00etan.

**OÑATI Basoko arku tiroa**
Euskal Liga txapelketarako bigarren jardunaldiari dagokion tiraketa egingo dute, Txantxiku Arkulariak taldearen eskutik. Bailarako tiratzaileekin batera, ligako onenak batuko dira Arantzazurako bidean dagoen Zozopasen egingo duten saioan.
Etzi, domeka, Zozopasen, 09:30ean.

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Batman vs Superman**
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**Sufragistas**
Domeka: 19:30.

**Colegas en el bosque 4**
Domeka: 17:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEAN**

**Objetivo: Londres**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**El libro de la selva**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO**

**Toro**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**El resucitado**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Julieta**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**ANTZOKIA**

**El libro de la selva**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Toro**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

**BOULEVARD**

**Capitan America**
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitza: 20:00, 23:00.
Zapatua: 17:00, 20:00, 23:00.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 19:00, 20:00, 22:00.

**Capitan America 3D**
Egubakoitzetik eguenera: 21:00.

**Trumbo**
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:30.
Zapatua: 23:00.
Zapatua eta domeka: 15:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Feliz dia de la madre**
Egubakoitzetik domekara: 18:15, 20:45.
Zapatua: 23:15.
Zapatua eta domeka: 15:45.
Astelehenetik eguenera: 17:40, 20:10, 22:40.

**Rachet and Clank**
Zapatua: 16:00, 18:00, 20:00.
Egubakoitza eta domeka: 16:00, 18:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

**Toro**
Egubakoitza eta domekatik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua: 18:00, 20:15, 00:45.

**El libro de la selva 3D**
Zapatua: 16:00.

**El cazador y la reina del hielo**
Egubakoitza eta domekatik eguenera: 17:30, 19:45.
Zapatua: 16:15, 22:30.

**Kiki, el amor se hace**
Zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguenera: 18:10, 20:20, 22:30.

**Objetivo: Londres**
Egubakoitza eta domeka: 20:00, 22:10.
Zapatua: 22:10, 00:20.

**Zootropolis**
Domeka: 15:45.

**Kung Fu Panda 3**
Zapatua eta domeka: 16:00.

**El heroe de Berlin**
Zapatua: 23:45.

**Julieta**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Batman vs Superman**
Egubakoitza eta domekatik eguenera: 22:00.

**El libro de la selva**
Astelehenetik eguenera: 18:00, 19:15, 20:15, 21:30, 22:30.

**FLORIDA**

**El libro de la selva**
Egubakoitza eta zapatua: 12:00, 16.30, 18:30, 20:30.
Domeka: 12:00, 16:30, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 16:30, 18:30.

**Los recuerdos**
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 22:30.
Domeka, astelehena, eguaztena eta eguena: 18:30, 20:30.
Martitzena: 18:30.

**La noche que mi madre mato a mi padre**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 20:30, 22:30.
Domekatik eguenera: 16:30, 20:30.

**Julieta**
Egubakoitza eta zapatua: 17:30.
Domekatik eguenera: 17:00.

**La punta del iceberg**
Egubakoitza eta zapatua: 19:45.
Domekatik eguenera: 19:00.

**Cegados por el sol**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domekatik eguenera: 21:00.

**Bienvenidos a Grecia**
Egubakoitzetik eguenera: 16:30.

**Monsieur chocolat**
Egubakoitza eta zapatua: 18:15, 20:30, 22:40.
Domekatik eguenera: 18:15, 20:30.

**Capitan America**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:30, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:00, 20:00.

**Kiki, el amor se hace**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 20:30.
Domekatik eguenera: 18:30.

**Toro**
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 22:30.
Domekatik eguenera: 16:30, 20:30.

**El caso Fritz Bauer**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 20:30, 22:30.
Domekatik eguenera: 18:30, 20:30.

**Lady in the van**
Egubakoitza eta zapatua: 18:30.
Eguaztena eta eguena: 16:30.

**Kung Fu Panda 3**
Egubakoitzetik domekara: 12:00.

**Zootropolis**
Egubakoitzetik domekara: 12:00.

**Normal del Norte (euskaraz)**
Egubakoitzetik domekara: 12:00.

**El cazador y la reina de hielo**
Egubakoitzetik domekara: 12:00.

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!



Sirimiri jatetxean prestatutako txerri-saiheskia barbakoa-saltsarekin.

puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
*943 25 05 05* edo *Puntua.eus* edo *Whatsapp: 688 69 00 07*

goienakluba




BUKATZEKO

# Ordenagailua, ezinbesteko lagun

▶ Aretxabaletako zinegotzia da Hector Prieto eta muskuluetako gaitz degeneratiboa du

▶ Ezin da mugitu eta ezin du berbarik egin, baina ilusioz gainezka jarraitzen du lanean

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Ahots barik geratu zen iaz Hector Prieto (Aretxabaleta, 1983). Baina horrek ez du isildu, ez horixe. Ordenagailu baten laguntzarekin zinegotzi lanean jarraitzen du, sare sozialetan gogotsu dihardu eta historia kontuen gaineko hainbat proiektu ditu buruan.



Hector Prieto, alboan Pepi Rosado ama duela. | MIRARI ALTUBE



Prieto osoko bilkura batean. | M.A.

**Begien mugimenduarekin**

Muskuluetako gaitz degeneratiboa du Prietok, eta urte asko daramatza gurpil aulkian. Eskuak mugitu barik ere aise idatzi du ordenagailuan oraintsu arte, ahotsak lagunduta. Gaitzak, baina, aurrera jarraitzen du, eta iaz ahots barik geratu zen. "Hilabete gogorrak pasatu nituen, baina lanerako gertu itzuli naiz". Asko du esateko eta besteekin partekatzeko, eta horretan lagunduko dion ordenagailua jarri diote: "Ohiko tableta da, baina arratoia begiekin mugi dezaket. Gainera, idatzitakoari ahotsa jartzen dion programa dut". Teknologia-baliabideei oso eskertuta dago: "Elbarritasunak ditugunondako mundura zabaldutako leiho bat dira". Horrez gain, etxekoen babes handia du: "Horiek barik ezinezkoa zatekeen egin dudan guztia, euren bultzada ezinbestekoa dut une txarretan", eta, batez ere, ama nabarmendu du: "Nire bizitzaren zati handi bat da, beti alboan; ama benetan kementsua".

**Blog bi eta historia kontuak**

Iazko ekaina ezkero da zinegotzi Prieto: "Aitak, gaztetan, sindikatuen inguruan jardun zuen, eta horren eraginez-edo nik beti izan dut kontzientzia soziala. Zinegotzi izan zen Tomas Fernandezek proposatu zidan 2011n Bilduren zerrendan joateko, eta, baietza ematearekin batera, Alternatiban afiliatu nintzen". Gizarte Zerbitzuak beste aldetik ezagutzen ditu eta esperientzia hori eroan gura izan du udaletxera: "Etxerik etxeko laguntza hobetu gurako nuke, batez ere; erabiltzaileen eta laguntzaileen egoera. Ondo ordaindu gabeko lana dela kontura gaitezen gurako nuke; batez ere, emakumeek egindakoa", dio, eta gaineratu du: "Borondate politikoa behar da etxerik etxeko zerbitzua egoitzen alternatibatzat hartzeko".

Zinegotzi lana bateratzen du idaztearekin: "Oso gustuko dut, eta une gogorretan asko lagundu izan dit". Sare sozialetan ere ibiltzen da; batez ere, Facebooken. Eta bi blog ditu: "Lehengo *Rincito de los sueños* orain *Atxabalta redvolution* bihurtu dut, eta hor nabil. UDAko kontuak jasotzen ditudan *Pasión celeste*, ostera, geldi daukat. Datorren denboraldian helduko diot berriro, futbolzale asko ditut-eta horren zain". Historia ikasketak ditu eta buruan badu proiektutxoren bat: "Hainbat dokumentu jasotzen bukatu berri dut, eta aurrerago helduko diet".

Aurten 33 urte beteko ditu Aretxabaletako gazteak. Etorkizunera begira egon beharrean, egunean egunekoa bizi du: "Che Guevarak zioen esaldi bat dut oso gustuko: 'Bizitza honetan aire-ahokada bakoitzeko egin behar da borrokan'". Asma zuelako asko sufritu zuen hark, baina ez zuen sekula amorerik eman".

AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA



## Lana

Sarritan, zer garen gogoratzeko historiara begiratzea komeni da. Arrasateko Iturriotz kaleko 33. zenbakian Bañez de Artazubiaga jauregia dago. XVI. mendekoa da eta ate gainean ondoko esaldia dauka: *Solus labor parit virtutem sola virtus parit honorem* (lana da soilik bertutearen iturri; bertuteak soilik dakar ohorea). Hau da, lana zerbait positiboa da.

Goazen gertuagoko garai batera, baina kilometro batzuk urrunago. Carlos III.a Espainiako erregeak, 1783. urteko martxoan, Madrilen, zedula bat atera zuen hauxe adieraziz: larrugin, errementari, jostun, zapatagile, arotz eta antzerako ogibideak ondraduak dira, ez dute pertsona ez eta bere familia doilortzen.

Ikaragarria izan behar zuen lan horien desprestigioak –eta ondorioz zekarren monarkiaren garapen geldoak–, horrelako deklarazio bat egin behar izateko. Besteak beste, noble askok nahiago zuen miserian bizitzea eskuzko lanaren desohorea baino.

Gatozan berriro Iturriotzeko eraikinera. Jauregia izanik, bertako familiak aberatsa izan behar zuen. Atera kontuak!

Historiak bere arauak izango ditu, baina bi testuon inguruan dagoena gaurdaino dator.





Arrasaten

Benetan pisua galdu nahi duzu?

RPS: 741/13

Rosa Sarabia doktorea

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

PronoKal metodoa
Zientzia eta zorroztasuna pisua galtzeko

– Kontrol mediku zorrotza
– Pisu galtze handia – Gose gabezia

Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA – EZPAINAK – MESOTERAPIA
BARIZEAK – HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK – SUDURRA – SABELALDEA

Medikuntza estetikoa eta kirurgia plastikoa

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.